NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia Iruña, 2026ko apirilaren 13a 37. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00005. 2024ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00005. 2024ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2026ko martxoaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2024ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 178.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. 2024ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostena Nafarroako Gobernuari igortzea.

4. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea deitzea, Kontuen Ganberako lehendakariak agerraldia egin dezan, egindako txostena azaltze aldera.

Iruñean, 2026ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

NAFARROAKO KONTU OROKORRAK (2024)

GASTUAK	DIRU-SARRERAK	LANGILEAK
5.940 milioi	6.081 milioi	33.133 langile

GASTUAK

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	LANGILEAK	ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK
2.302 milioi	1.850 milioi	959 milioi

DIRU-SARRERAK

ZERGA ZUZENAK	ZEHARKAKO ZERGAK
2.970 milioi	2.431 milioi

ADIERAZLE EKONOMIKOEN BILAKAERA POSITIBOA

	AURREKONTUAREN EMAITZA	AURREZKI GORDINA	GASTU OROKORREN DIRUZAINTZAKO GERAKINA	FINANTZA ZORRA
2023	96 milioi	687 milioi	196 milioi	2.695 m.
2024	124 milioi	729 milioi	412 milioi	2.505 m.

FINANTZA-AUDITORETZAREN ALDEKO IRITZIA, SALBUESPENAK SALBUESPEN

- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ez da osorik aplikatzen.
- Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan ez da behar bezala intsuldatu ekitaldiko kobrantzei buruzko informazioa kontabilitate-sistemara.

LEGEZKOTASUN-IRITZI ALDEKOA, SALBUESPENAK SALBUESPEN

ndarraldia amaitu zaien edo kontratu egokirik ez duten kontratuen eta itunen prestazio ordainduak.

GOMENDIOAK

Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra osorik aplikatzea.

AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA ... 5
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA ... 5
III. IRITZIA ... 6
III.1 Finantza auditoritzako iritzia 2024ko urteko kontuei buruz ... 6
III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia ... 7
IV. IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA ... 7
IV.1 Finantza auditoretzako iritzi salbuespendunaren oinarria ... 7
IV.2 Legeria betetzeari buruzko iritzi salbuespendunaren oinarria ... 8
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK ... 8
VI. ENFASI-PARAGRAFOA ... 8
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA ... 9
VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA ... 11
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA ... 11
X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA ... 12
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA ... 14
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN MUGAKETA ... 20
2.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera. ... 20
2.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera ... 24
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA ... 25
4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA ... 27
4.1 CAT-SAP sistemen integrazioa ... 27
4.2. Zerbitzu-prestazioa kontratu-euskarri egokirik gabe ... 27
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK ... 30
5.1 2024ko kontu orokorrak ... 30
5.2 Nafarroako 2024ko Aurrekontu Orokorrak ... 30
5.3 NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioa 2024ko abenduaren 31n ... 37
5.4 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak ... 38
5.5 Langileen gastuak ... 42
5.5 Kontratazio publikoa ... 53
5.7 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak ... 61
5.8. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak ... 65
5.9. Beste diru-sarrera batzuk ... 70
5.10 Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak ... 71
5.11 Diruzaintza ... 72
5.12. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk ... 73
5.13. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak ... 75
6. GEHIGARRIA. SOZIETATE PUBLIKOEN ANALISIA ... 82
7. GEHIGARRIA. BELATEKO KONTRATUAREN EXEKUZIOA ... 90
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ... 99
KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA ... 117
MIGUEL ÁNGEL AURRECOECHEA GUTIÉRREZ AUDITOREAK AURKEZTUTAKO BEHIN BETIKO TXOSTENAREKIKO DESADOSTASUNA . 118
NAFARROAKO KONTUEN GANBERAKO LEHENDAKARIAK DESADOSTASUN HORRI EMANDAKO ERANTZUNA 153

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta 2025erako bere jarduketa programarekin bat, kontu orokorrak fiskalizatu ditu eta aldi berean legeria betetzearen fiskalizazioa egin die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (aurrerantzean, NFKA) eta haren mendeko entitateei, 2024ko ekitaldiari dagokionez.

Azterketa lana 2025eko apiriletik urrira bitartean egin du auditore batek zuzendutako lantaldeak. Auditoretzako bost teknikarik eta sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta erdi mailako beste batek osatu dute lantaldea. Halaber, Ganberaren zerbitzu juridikoen eta administratiboen laguntza izan da.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari azaldu zaizkio, beharrezkotzat joz gero, egokitzat jotako alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu dituzte Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Unibertsitateko zuzendari nagusiak, Lurralde Kohesiorako Departamentuko idazkari nagusi teknikoak, Industriako eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalareko Departamentuko Enpresa Sustapenerako eta Azpiegituretarako zuzendari nagusiak eta CPENeko zuzendari nagusiak, eta txosten honi erantsi zaizkio, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira zentimoak ez erakusteko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez balio biribilduen gainean.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua izan da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

• Ea NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2024ko ekitaldiko kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten 2024ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraikiz.

• Ea 2024ko ekitaldian NFKAk eta haren erakunde autonomoek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

Gure lanaren norainokoak 2024ko ekitaldiko kontu orokorrak eta 5., 6. eta 7. gehigarrietan adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak biltzen ditu.

Era berean, fiskalizazio horren irismenaren parte da Nafarroako Parlamentuak, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ekimenez, egindako hurrengo eskaera ere, Ganbera honek Kontu Orokorren testuinguruan aztertzea erabaki duena: 2014-2023 aldiko bilakaera eta bidegabeko aberastasun egoeran dauden kontratuen egungo egoera.

Lanaren denbora norainokoa 2024ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, honako hau hartu dugu kontuan:

• Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2025erako barne-kontroleko planean 2024ari buruzko alderdi hauek jaso ziren:

a) Fiskalizaziotik salbuetsitako munta txikiko (2. kapituluko zein 6. kapituluko) gastu eta kontratuen finantza kontrol iraunkorra egitea.

b) Aldez aurreko kontu-hartzailetzatik salbuetsitako gastu hauek aztertzea: etxebizitzaren arloko eta eraikuntzaren sustapenaren arloko laguntzak, eta pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, bermatutako prestazio gisa arautuak. Era berean, dirulaguntza txikiak[1] eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zorpetze-eragiketak eta diru-sarrerak berraztertzea.

• Nafarroako Parlamentuaren, Arartekoaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren 2024ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.

• Kontuen Ganberaren beraren 2024ko urteko kontuak auditoretza enpresa batek aztertu ditu.

• Sozietate eta fundazio publikoen 2024ko urteko kontuak eta legeriaren betetzea auditoretzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean.

• Kontuen Ganberak honako gai hauei dagokien lana egin du edo egiten ari da:

a) Next Generation funtsekin finantzatutako hezkuntza sistema digitalizatzeko programa (2021-2024).

b) Despopulatzearen aurkako borroka Nafarroan: Foru Administrazioak hartutako neurriak (2023-2024).

c) Sodenak Sunsundegui enpresari egindako finantza ekarpenak (2009-2024).

d) Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren kontuak, 2023ko ekitaldia, 2024ko ekainaren 30era arte.

e) Nafarroako Sektore Publikoko bost kontraturen fiskalizazioa, Nafarroako Parlamentuak eskatuta (2017-2025).

f) Nasuvinsaren eta Estudios Melitón SLren arteko errentamendu-kontratua.

g) NUPen 2024ko urteko kontuak.

h) Nafarroako Ubideko zona ureztagarriari buruzko fiskalizazio txostenaren eguneraketa.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, NFKAren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2024ko aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Halaber, aipatu araudiari jarraikiz, 2024an legeria betetzeari buruzko fiskalizazioa egin diegu NFKAri eta haren mendeko entitateei.

III.1 FINANTZA AUDITORITZAKO IRITZIA 2024KO URTEKO KONTUEI BURUZ

Gure ustez, “Finantza-auditoretzako iritzi salbuespendunaren oinarria” atalean azaldutako auzien eraginengatik salbu, kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen ondareari eta 2024ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokienez. Halaber, haien emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere (lege esparru hori identifikatzen da oroitidazkiko “Foru Komunitateko Administrazioaren kontuen alderdi orokorrak” dokumentuan).

[1] Munta txikiko dirulaguntzatzat hartzen dira, zenbatekoagatik, aldez aurreko fiskalizatzetik salbuetsita daudenak.

III.2 LEGERIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO IRITZIA

Gure ustez, gure txostenaren “Legeria betetzeari buruzko iritzi salbuespendunaren oinarria” atalean azaldutako auziaren eraginarengandik salbu, eta aintzat hartuta egindako lanaren norainokoa eta 2024ko ekitaldiko NFKAren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorretan islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA

Gure fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontroleko erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio printzipioei jarraituz eta, zehazki, ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoari jarraituz, zeinak finantza arloko eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioen gainekoak baitira. Halaber, bete ditugu kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, kontu orokorraren eta legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari dagokienez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzek ezartzen duten bezala, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duenez gero.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure finantza eta legezkotasun iritzia emateko.

IV.1 FINANTZA AUDITORETZAKO IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA

a) Ez dira aplikatzen zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean kontabilitate-tratamendu egokia egiteko jasota dauden kontuak, irizpideak eta printzipioak, nagusiki zergekin, tributu zordunekin eta hartzekodunekin eta ibilgetuarekin lotuta. Horrez gain, badaude garrantzi txikiagoko akatsak ere kontuen edo epigrafeen sailkapenean; horrek guztiak eragiten du diru-sarreren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintza-geldikinaren eta balantzearen likidazioko egoera-orrien egitura bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduekin. Era berean, ez da aurkeztu ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, ez eta diru-fluxuen egoera-orria ere.

b) Ekitaldian jasotako kobrantzei buruz hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman dagoen informazioa ez da behar bezala eskualdatu, eta ezin da bereizi kobrantza horiek ekitaldian sortutako diru-sarrerei edo aurreko urteetan sortutakoei dagozkien. Horregatik, baliteke beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak egotea 1. eta 2. kapituluetako diru-sarreren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbian.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintza-geldikinetik kobratzeko dauden eskubideen epigrafean eta balantzeko aurrekontu-zordunen epigrafean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik.

c) Ez balantzean ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu NFKAren eta haren erakunde autonomoen funtzionario aktibo eta pasiboen montepioak sortutako betebehar aktuarialei buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2025-2087 aldian izanen den kostuaren egungo balioa 1.395,56 milioi konstante ingurukoa da.

d) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik “Ibilgetua” epigrafeko zenbait osagairen kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 1.548,68 milioikoa zen 2024ko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

IV.2 LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA

• NFKAko departamentuek Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioaren arabera, 2. kapituluko –ondasun eta zerbitzuak– gastu arruntaren % 22 (214,26 milioi), eta 6. kapituluko –inbertsioak– 18,32 milioi dagozkie indarraldia amaituta daukaten edo kontratu-euskarri ezagunik ez duten kontratuetan eta itunetan oinarrituta ordaindu diren prestazioei.

Kontratuetan –2024an ordaindutako gastuaren % 77, 2024ko ekitaldia ixtean metatutako gastu osoaren % 85 eta kontratuen gastuaren % 58 dagozkie–, ez da zehazten kontratu-euskarririk ez izatearen arrazoia. Kontratu kopuruari dagokionez, % 11 ez dira izapidetu langile faltagatik.

Kontratu Publikoen Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) 45.3 artikulua aldatu egin zen, eta, 2023ko urtarriletik aurrera, baldin eta epemuga heltzean kontratu berria formalizatu ez bada, aurreko kontratuaren legezko luzapena aurreikusten da prestazioaren jarraipena bermatzeko. Ez dago aipatutako artikuluan aurreikusitako salbuespenaren aplikazioari buruzko argibiderik ematen duten informazio automatizaturik.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrei egin diegun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrei buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean eta “Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inongo gairen berri ematen.

VI. ENFASI-PARAGRAFOA

Kontu orokorretako memorian jasotako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

• Egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazleek bilakaera positiboa izan dute 2024an 2023koekin alderatuta, “Finantza- eta ondare-adierazleen azterketa” dokumentuak erakusten duenez.

(milakotan)

Adierazleak	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	329.006	336.624	2
Aurrekontu-emaitza doitua	96.473	124.080	29
Aurrezki gordina	687.540	728.815	6
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	266.351	278.687	5
Aurrezki garbia	421.189	450.128	7
Finantza-zorra *	2.695.268	2.505.855	-7
Zorraren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean	48	43	-10

*Kostu amortizatuarekin baloratua

• Gastu araua ez da bete, 2024rako % 2,6an ezarritako gastu konputagarriaren gehieneko aldakuntza tasa gainditu delako. 2024ko Nafarroako Kontu Orokorren memorian ageri den behin-behineko datuaren arabera, gastu konputagarria % 9,30 handitu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta gehieneko muga 268 milioitan gainditu zen. Gehiegizko gastuaren zati handi bat (109 milioi inguru), mutualistei 2020tik 2024ra bitarteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenengatik egindako kenkari fiskalek eragingo lukete.

Nolanahi ere, datu horiek behin-behinekotzat jo behar dira Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiak 2024ko Sektore Publikoaren Kontu Ekonomikoak egiten ez dituen bitartean.

VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

• Nabarmentzen dugu 2024tik aurrera arau fiskalak berraktibatzeak gastu publikoaren hazkundea mugatzera behartuko duela azken urteetako joerarekin alderatuta, zeina taula honetan erakusten baita:

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 24/15 (Nominala)	Aldakuntza (%) 24/15 (Erreala)
Gauzatutako gastua	3.914	3.967	3.984	4.180	4.396	4.587	5.064	5.601	5.782	5.940	% 52	% 22

Termino nominaletan, aldakuntza % 52koa izan da. 2015-2024 aldiko inflazioa deskontatuz gero (% 25,1ekoa izan da), gastuaren aldakuntza, termino errealetan, % 22koa izan da.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da gastu publikoaren bilakaera ez dutela soilik baliabideen erabilgarritasunak eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudian ezarritako zerga-arauen aktibazioak baldintzatzen. Lege arautzaileak berak jasotzen du, printzipio orokorren artean, [2] baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziaren printzipioa, eta, besteak beste, honako hau ezartzen du: "*Baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak eta kalitateak bideratuko dute, eta, horretarako, gastua arrazionalizatzeko eta sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko politikak aplikatuko dira*".

Aurrekontu-programen egungo diseinutik ondorioztatzen diren mugek eta horien ebaluazio egokirik ezak agerian uzten dute gabezia nabarmenak daudela aipatutako printzipioei erantzuteko.

• Belateko tunelaren bikoizketa.

Ekitaldi fiskalizatuan tunelaren obrak hasi ziren, 2024ko martxoan zehazki. Ekitaldian zehar, guztira 5,52 milioiko obra-ziurtagiriak eman eta ordaindu ziren, esleipenaren zenbateko osoaren % 7 (76,09 milioi, BEZa barne).

Ziurtagiri horiekin batera, obra-unitate berriengatiko prezio kontrajarrien proposamenak jasotzen dituzten txostenak aurkeztu dira, 7,21 milioiko gastu handiagoaren estimazioarekin.

Obra-kontratua hasi eta bi hilabetera, tunelean indusketa-lanak hasi baino bost hilabete lehenago zehazki, obra-kontratuaren esleipendun den ABEEak aldaketa-proposamen bat aurkeztu zuen eraikuntza-proiektuaren indusketari eta eusteari buruz.

2024ko urrian, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak 760/2024 Ebazpena onetsi zuen, "*adostasuna ematen diona "Eustearen eguneratzea" dokumentuari eta berariazko erantzuna ematen diena dokumentuaren hiru gairi Belateko tunelaren bikoizketaren hondeatzea, eustea eta estaltzea exekutatzeari dagokionez, lehergaiak eta leherketak erabiliz "Belateko tunelaren bikoizketa" eraikuntza proiektuan jasotako obrak egitean*".

Urriaren 14an, Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren 139/2024 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren N-121-A errepideko Belateko tunelaren bikoizketaren eraikuntza proiektuan jasotako eustea, 2022ko abendukoa, bai eta aldaketa ere, 2024ko irail-urrikoa, dokumentu hauetan jasota dagoena:

- Eustearen eguneratze memoria (2024/10/01ean aurkeztua).

- Planoak (2024/09/20an aurkeztuak).

- Aurrekontua (2024/09/20an aurkeztua).

[2] Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa apirilaren 27ko 2/2012 Legearen 7. artikulua.

Ebazpen horrek kontuan hartu beharreko hainbat zehaztapen tekniko adierazten zituen.

Obra Zuzendaritzak txosten bat egin zuen 2024ko azaroaren 25ean, eta, horren bidez, eraikuntza proiektua aldatzeko beharra proposatu zuen eustearen eguneratzea eta beste zenbait aldaketa barne hartuta, onetsitako prezio kontrajarri berrien gastu zenbatespenek kontratu aurreikuspenak gainditzen zituztelako –% 10eko maximoa finkatzen dute–.

Gerora, proposamen horrek berekin ekarri zuen Herri-lanen zuzendari nagusiak 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpena onestea, zeinaren bidez "*adostasuna ematen zaion "Belateko tunelaren bikoizketa" obren proiektuaren 1. aldaketa izapidetzeari Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 143.3 artikuluan ezarritako izapideekin bat etorriz, eta, era berean, obren behin-behineko jarraipena baimentzen den interes publikoari kalte larririk ez eragiteko*". Aldaketa hori onetsiz gero, obra-kontratuaren prezioa 8,54 milioi euro igoko zen (BEZa barne), hau da, gastua % 11,22 igoko zen.

Azken ebazpen horrekin hasi ziren KPFLn aurreikusitako kontratua aldatzeko izapideak. Hala, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 192/2025 Ebazpenaren bidez, 1. aldaketaren proiektua onetsi zen.

Osteko gertakari gisa, nabarmentzen dugu izapide horiek 2025eko azaroaren 26an bertan behera gelditu zirela, Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako etete eragozpen-ohar baten ondorioz. Eragozpen-ohar horretan, Kontu-hartzailetzak alegatzen du ez dagoela legezko baldintzarik; izan ere, irizten duenez, "*aldaketaren arrazoia komenigarritasun edo egokitasun arrazoietan dago, inola ere ez aurreikusi ezineko egoeretan edo kontratua proiektuak aurreikusitako baldintzetan gauzatzeko ezintasunean*".

Eragozpen-oharrak, gainera, honako hau ere zehazten du: "*izapidetzean zehar egin eta ordaindutako ziurtagiri guztiak behin-behineko konturako ordainketatzat hartuko dira, aldatutako proiektua onetsi ondoren –edo ez onetsi ondoren– egin daitezkeen balizko zuzenketen eta aldaketen mendekoak, bereziki hasierako proiektuan aurreikusi gabeko obra-unitateak dituzten ziurtagiriak, edo aldatutako proiektuaren proposamen teknikoan agertzen diren prezioak erreferentziatzat hartu dituzten obra-unitateak*".

Lurralde Kohesiorako Departamentuak onetsi egin du eragozpen-oharra, eta, hortaz, amaiera emango dio Belateko tunela bikoizteko obren proiektuaren 1. aldaketa prozedurari.

• Next Generation funtsen diru-sarrera eta gastuen exekuzioa, 2024ko ekitaldia ixtean, honako taula honetan islatzen da:

(milakotan)

Next Generation funtsetako gastuak eta diru-sarrerak	2020	2021	2022	2023	2024	Guztira (2024/12/31)
Gastuak	**41**	**4.218**	**59.685**	**113.817**	**149.184**	**326.946**
Arruntak		1.906	17.507	35.049	30.855	85.317
Kapitalekoak	41	2.312	42.178	78.767	118.329	241.627
Diru-sarrerak	**5.510**	**174.517**	**191.994**	**165.416**	**75.924**	**613.361**
Arruntak		49.968	36.088	31.108	7.658	124.822
Kapitalekoak	5.510	124.549	155.906	134.308	68.267	488.540

Funts horiek jasotzeko erritmoa eta proiektuei lotutako aurrekontu-gastuak desberdinak dira. Funtsen denbora-muga 2026an amaitzen da, eta, 2023ko ekitaldira arte, garapen-fasean dauden proiektuei dagozkien gastuak baino diru-sarrera handiagoak aitortu dira. Aldiz, 2024ko ekitaldian, diru-sarrerak baino gastu handiagoak aitortu dira.

Nolanahi ere, finantzaketaren asimetria horiek finantzaketaren desbideratzeetan aitortzen dira, bai aurrekontu-emaitzan, bai diruzaintzako geldikinean. Konkretuki:

(eurotan)

	Urteko desbideratze positiboak	Urteko desbideratze negatiboak	Desbideratze metatu positiboak
Aurrekontu-emaitza	54.209.614	104.194.978	
Diruzaintza-geldikina			287.791.378

• Kontratazio Plana argitaratzeak kontratazioan gardentasun handiagoa lortzen laguntzen du, eta positiboa da bai NFKArentzat, bai operadore ekonomikoentzat.

Alde batetik, administrazio publikoek ahalegina egiten dute beren beharrak zehazteko eremu kualitatibo, kuantitatibo eta tenporal batean (azken bi horiek eragin nabarmena dute aurrekontuan), eta, bestetik, lizitatzaile izan daitezkeenek gehiago ezagutuko dute kontratazio publikoaren bolumena, aurrerapen handiarekin gainera, antolamendu eta lehia aurreikuspenak erraztuz. Jakina, plangintza egoki batek eragina du lehian eta kontratazio publikoaren eraginkortasunean.

Egiaztatu dugu plangintza aurretiazko informazioaren iragarkietan bakarrik oinarritzen dela, eta, 2024an, ondoren egindako lizitazioen % 26 ordezkatzen duela, zenbatetsitako balioen baturaren % 37ren baliokidea dena.

• NFKAk eta haren erakunde autonomoek kontratazio espedienteak kudeatzeko dituzten sistemetatik modu masiboan esportatutako datuak aztertzeko teknikak erabiltzen saiatu gara, luzatutako, aldatutako eta amaitutako kontratu guztiak Nafarroako Kontratazioren Atarian argitaratzeko legezko betebeharra zenbateraino betetzen den egiaztatzeko.

Extr@ espediente kudeatzailean zenbait informazio lortzeko dauden mugek eta departamentuek beren datu base propioetatik bidalitako datuak ez homogeneizatzeak, eragotzi egin digute betetze maila hori kuantifikatzea.

VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, NFKAk bermatu beharko du aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontuko eta finantzako eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Haren erantzukizuna da, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorretan iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

Nafarroako Gobernuak 2024ko ekainaren 26ko bilkuran onetsi zuen 2025eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua, eta Nafarroako Parlamentuari igorri zion. Parlamentuko Mahaiak erabaki zuen Kontuen Ganberari igortzea aztertzeko eta bere iritzia emateko; idazkia 2025eko irailaren 3an sartu zen erakunde honetan.

IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, kontu orokorretan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontuko eta finantzako eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontroleko organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legezkotasun-urraketen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpo-kontroleko organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

• Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzurren edo okerren ondoriozko akats materialak egoteko eta legeak ez betetzeko dauden arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu gure iritziari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material bat ez atzematekoa baino; izan ere, iruzurrak bere barne izaten ahal ditu kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolarengandiko ihesa.

• Fiskalizaziorako esanguratsua den ezagutza, barne-kontrolari buruzkoa, lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

• Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.

• Kontu orokorren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horiek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitatearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoretza-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarriz ere. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein gai izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan direnak.

Lan hau egiteko orduan ezin izan dira bete araudi erregulatzailean aurreikusitako epeak; batetik, lanaren auditore arduraduna 2025eko ia iraila osoa egon zelako bajan, eta, bestetik, desadostasun klausularen izapidetzearen ondorioz.

X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek bete dira edo betetzen ari dira fiskalizatutako ekitaldian:

a) Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren betekizunei jarraituz.

b) Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

a) 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra osorik aplikatzea.

b) Nafarroako Foru Ogasunaren kontabilitate-sistemak egokitzea, horren bidez diru-sarreren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.

c) Balantzean islatzea montepioaren araubidekoak diren foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebehar aktuarialak.

d) Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.

e) CAT aplikazioa aldatzea zerga-bilketari buruzko datuak lortzeko. Datu horiek SAPG21 sistema elikatuko dute eta egoera-orri finantzarioak egiteko informazio fidagarria emanen dute; era berean, beste arlo batzuk kudeatzen eta aztertzen lagunduko dute, hala nola iruzur fiskalaren aurkako borroka.

f) Aztertzea aukerarik ba ote dagoen kontu orokorren oroitidazkian azterketa sakonago bat jasotzeko onura fiskalen bidez lortu nahi diren helburuei eta horien betetze graduari buruz.

g) Kontabilitate Zerbitzuak eta Diru-bilketa Zerbitzuak batera lan egitea ekitaldian sortutako eskubideei dagozkien zergen kobrantzari buruzko informazioa hobetzeko eta kontabilitateko egoera-orrien irudi fidagarriago bat islatzeko.

h) Enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezkotasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezartzea.

i) Aurrekontu-programen jarraipena, kontrola eta ebaluazio eraginkorra egitea, aurrekontu-baliabideen esleipenaren eraginkortasuna eta efizientzia aztertzeko.

j) Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak batera programatuko eta ebaluatuko dituzte aurrekontu-programak.

k) Dirulaguntzen plan estrategikoei buruz:

- *Dirulaguntzen plan estrategikoen ebaluazio txostenen formatua aldatzea, datuak ustiagarriak izan daitezen eta informazioaren tratamendu eraginkorragoa ahalbidetu dezaten.*
- *Dirulaguntzen plan estrategikoen lerroen helburu estrategikoak definitzea, aurrekontu-programekin benetan lotuta dauden egiaztatzeko.*
- *Departamentu bakoitzak egiten dituen ebaluazioetan, desbideraketei eta, ondorioz, neurrien eraginkortasunari buruzko azterketa eta konklusio eraginkorrak sartzea, dirulaguntzen eragina ebaluatu ahal izateko.*
- *Helburu estrategikoen eta operatiboen arteko lotura ezartzea, agerian gera dadin helburu estrategikoekin lehenengoak lortzen laguntzen dela.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legeria betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 5. eta 6. gehigarrietan (beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoak).

Txostena indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren eman da.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador.

1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA[3]

2024ko aurrekontuaren likidazioa

2024ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Betebehar onartu garbiak	Exekutatutako ehunekoa	Ordaindutakoa
Langileen gastua	1.864.332	8.780	1.873.112	1.849.520	% 99	1.849.520
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	1.001.930	24.377	1.026.307	958.679	% 93	918.440
Finantza-gastuak	51.370	507	51.877	44.158	% 85	44.150
Transferentzia arruntak	2.280.637	73.073	2.353.710	2.302.409	% 98	2.272.362
Kontingentzia funtsa	17.035	0	17.035	0	% 0	0
Inbertsio errealak	288.237	59.870	348.107	217.265	% 62	195.963
Kapital-transferentziak	332.431	144.493	476.924	300.021	% 63	288.626
Aktibo finantzarioak	34.909	358	35.267	33.799	% 96	33.799
Finantza-pasiboak	484.529	0	484.529	234.529	% 48	234.529
Guztira	6.355.410	311.458	6.666.868	5.940.380	% 89	5.837.389

2024ko diru-sarreren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide onartu garbiak	Betetze ehunekoa	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	2.834.325	0	2.834.325	2.970.269	% 105	2.987.528
Zeharkako zergak	2.368.589	0	2.368.589	2.431.246	% 103	2.412.870
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	131.105	20.129	151.234	168.962	% 112	143.697
Transferentzia arruntak	192.411	17.088	209.499	234.232	% 112	233.777
Ondare bidezko diru-sarrerak	11.084	17.248	28.332	34.714	% 123	32.230
Inbertsio errealen besterentzea	2.028	0	2.028	4.938	% 243	3.917
Kapital-transferentziak	63.795	18.495	82.290	164.315	% 200	157.577
Aktibo finantzarioak	190.714	238.498	429.212	22.576	% 5	21.205
Finantza-pasiboak	561.359	0	561.359	49.984	% 9	49.985
Guztira	6.355.410	311.458	6.666.868	6.081.236	% 91	6.042.786

[3] Gure txostenak Nafarroako kontu orokorren 2024ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egina. Testu osoa hemen kontsulta daiteke: https://www.navarra.es/eu/nafarroako-gobernua/kontu-orokorrak

2024ko aurrekontu-emaitza

(milakotan)

Kontzeptuak	Eskubide onartuak	Betebehar onartuak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	5.839.423	5.154.766	684.657
2. Kapital-eragiketak	169.253	517.286	-348.033
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	22.576	33.799	-11.223
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza			325.401
II. Finantza-pasiboen alde garbia	49.984	234.529	-184.545
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa			**140.856**
4. Lotu gabeko diru-zaintzako geldikinarekin finantzaturiko betebehar onartuak			0
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketaren desbideratze negatiboak			178.547
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketaren desbideratze positiboak			195.323
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5–6)			**124.080**

Diruzaintza-geldikina 2024ko abenduaren 31n

(eurotan)

Kontzeptuak		Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak		**246.463.760**
Diru-sarreren aurrekontua, aurtengo ekitaldia	947.585.543	
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-589.069.978	
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea	-31.954.332	
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea (CAT)	-87.970.237	
Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	7.094.973	
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-6.901.095	
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	7.936.730	
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-257.843	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak		**224.773.540**
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-193.656.159	
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-24.566	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	-31.092.815	
+ Funts likidoak		**842.858.507**

Diruzaintza-geldikina guztira (1)		864.548.727
Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintza-geldikina	21.664.205	
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	404.685.586	
PFEZaren % 0,7ari atxikitako diruzaintza-geldikina	1.272.180	
Diruzaintza-geldikina Hondakinen funtsa	23.144.741	
Diruzaintza-geldikina Klima-funtsa	1.408.893	
Lotutako diruzaintza-geldikina (2)		452.175.604
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina (1) – (2)		412.373.123

Egoeraren balantzea 2024ko abenduaren 31n

(eurotan)

AKTIBOA	2024ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
A) IBILGETUA	**3.440.860.499**	**3.236.205.029**
II. Ibilgetu immateriala	124.974.535	87.711.051
3. Aplikazio informatikoak	105.578.152	72.238.965
4. Bestelako ibilgetu ukiezina	19.396.383	15.472.086
III. Ibilgetu materialak	2.610.001.723	2.450.336.547
1. Lursailak eta eraikinak	1.147.177.900	1.134.761.095
2. Instalazio teknikoak eta makineria	94.007.904	88.581.963
3. Tresneria eta altzariak	552.553.620	527.142.427
4. Bestelako ibilgetua	378.760.418	362.102.807
5. Azpiegiturak	395.906.856	301.273.061
6. Ekitaldiko ibilgetua	17.709.649	13.618.490
7. Ondare historikoko ondasunak	23.885.376	22.856.704
IV. Ondasun higiezinetako inbertsioak	15.246.104	20.966.355
1. Lursailak	76.747	76.747
2. Eraikuntzak	15.169.357	20.889.608
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	690.638.136	677.191.075
1. Epe luzeko baloreen zorroa	577.541.256	568.187.256
2. Epe luzeko bestelako inbertsio eta kredituak	114.037.827	109.944.767
4. (Hornidurak)	-940.947	-940.947
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	**1.394.702.130**	**1.272.000.632**
0. Salgai dauden aktiboak	17.247.667	18.578.966
I. Izakinak	26.216.995	22.111.283
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	26.216.995	22.111.283
II. Zordunak	507.031.889	450.729.484
1. Aurrekontuko zordunak	947.183.776	955.893.353
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	148.093.817	110.447.112
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	6.753.574	3.259.757
5. Bestelako zordunak	6.364.386	5.998.247
6. (Hornidurak)	-601.363.665	-624.868.985
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak	1.347.072	353.257
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	1.321.411	327.597
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	25.661	25.661
IV. Diruzaintza	842.858.507	780.227.642
Guztira (A+B)	4.835.562.629	4.508.205.660

PASIBOA	2024ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
A) FUNTS PROPIOAK	**1.933.463.333**	**1.349.241.595**
I. Ondarea	836.894.679	363.011.285
1. Ondarea	836.894.679	363.011.285
III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	510.297.920	473.883.394
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	510.297.920	473.883.394
IV. Ekitaldiko emaitzak	584.349.767	510.868.767
V. Egotzi zain dagoen ondare gehikuntza	1.920.967	1.478.150
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	**2.233.725.342**	**2.448.576.766**
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.006.857.611	956.511.387
1. Obligazioak eta bonuak	1.006.857.611	956.511.387
II. Epe luzeko bestelako zorrak	1.226.867.731	1.492.065.379
2. Bestelako zorrak	1.226.472.347	1.491.668.115
4. Jasotako epe luzeko fidantzak eta gordailuak	395.384	397.265
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	**668.373.954**	**710.387.300**
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	279.737.685	257.759.677
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	10.713.102	117.252.585
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	269.024.583	140.507.092
III. Hartzekodunak	388.636.270	452.627.623
1. Aurrekontuko hartzekodunak	237.722.997	338.446.343
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	8.937.859f	10.413.683
4. Administrazio publikoak	5.725.676	5.387.666
5. Bestelako hartzekodunak	127.983.410	91.101.039
6. Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	8.266.327	7.278.891
Guztira (A+C+D)	4.835.562.629	4.508.205.660

2024ko emaitzen kontua

(eurotan)

Zorra	2024ko ekitaldia	2023ko ekital-dia
A) GASTUAK		
2. Hornigaiak	**379.671.314**	**354.020.366**
b) Ekitaldiko kontsumoak	379.671.314	354.020.366
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	**2.457.299.848**	**2.346.246.105**
a) Langile-gastuak.	**1.727.940.402**	**1.616.699.842**
a.1) Soldatak eta ordainsariak	1.418.530.954	1.327.338.039
a.2) Karga sozialak	309.409.448	289.361.803
b) Prestazio sozialak	**123.962.752**	**118.026.115**
d) Trafiko horniduren aldakuntza	**-23.505.319**	**2.477.511**
d.1) Kreditu kobraezinen horniduren eta galeren aldakuntza	-23.505.319	2.477.511
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	**571.680.065**	**548.010.066**
e.1) Kanpoko zerbitzuak	565.974.517	543.120.725
e.2) Tributuak	105.250	122.650
e.3) Askotariko gastuak	5.600.299	4.766.691
f) Finantza-gastuak eta parekagarriak	**39.480.355**	**43.993.882**
f.1) Zorrengatik	39.480.355	43.993.882
g) Finantza-inbertsioen horniduren aldakuntza	**0**	**0**
h) Ibilgetuaren amortizazioa	**17.741.593**	**17.038.688**
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	**2.547.625.329**	**2.595.592.326**
a) Transferentzia arruntak	2.289.341.679	2.334.775.883
c) Kapital-transferentziak	258.283.650	260.816.443
5. Ezohiko galerak eta gastuak	**44.935.414**	**48.768.018**
a) Ibilgetuengatiko galerak	2.738.576	721.100
c) Ezohiko gastuak	64.347	0
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	42.132.491	48.046.919
SALDO HARTZEKODUNA (AURREZKIA)	**584.349.767**	**510.868.767**
Zorra guztira	**6.013.881.672**	**5.855.495.582**

Hartzekoa	2024ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
B) DIRU-SARRERAK		
1. Tributu kudeaketako diru-sarrerak	**5.434.110.885**	**5.176.539.966**
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	**5.418.205.654**	**5.162.117.981**
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	2.328.398.494	2.103.924.273
a.2) Sozietateen gaineko zerga	490.553.494	531.796.111
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	75.975.993	59.586.649
a.4) Ondarearen gaineko zerga	43.763.895	35.053.178
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	31.576.920	10.842.589
a.9) Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	84.349.298	75.870.620
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.708.965.023	1.755.605.733
a.11) Zerga bereziak	637.931.678	573.224.101
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	55.341	54.489
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	16.635.518	16.160.239
b) Gizarte kotizazioak	**702.929**	**904.355**
c) Zerbitzu-prestazioak.	**15.202.302**	**13.517.630**
c.1) Zerbitzu-prestazioegatiko prezio publikoak	15.202.302	13.517.630
2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	**174.758.149**	**153.268.602**
a) Diru-itzulketak	**34.659.210**	**25.669.936**
b) Salmentak eta zerbitzu-prestazioak	**61.043.624**	**59.921.089**
c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	**36.890.286**	**38.821.493**
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	36.890.286	38.821.493
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	**42.165.029**	**28.856.085**
f.1) Beste interes batzuk	42.165.029	28.856.085
g) Finantza-inbertsioen horniduren aldakuntza	**0**	**0**
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	**398.707.244**	**524.358.469**
a) Transferentzia arruntak	**234.392.695**	**334.758.924**
b) Kapital-transferentziak	**164.314.550**	**189.599.545**
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	**6.305.394**	**1.328.545**
a) Ibilgetuengatiko mozkinak	1.079.900	257.398
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	0	1.095
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	5.225.494	1.070.052
SALDO ZORDUNA (DESAURREZKIA)		
Hartzekoa guztira	6.013.881.672	5.855.495.582

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN MUGAKETA

Foru sektore publikoaren 2024ko mugaketa bi ikuspuntutatik azter daiteke:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin bat (aurrerantzean NOPFL).

- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoarekin bat (aurrerantzean AEFILO).

2.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.

Honako hauek dira 2024an foru sektore publikoa osatzen dutenak, NOPFL legearen eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako erakunde autonomoak.

- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.

- Nafarroako Kontseilua.


- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa.

- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean (NOFL) ezarritakoari jarraikiz.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren organismo publikoen fundazio publikoek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa, bere araudi bereziari lotuta egonen dena, eta, modu osagarrian, aipatu foru legearen xedapenei.

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2024ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa, kontu orokorretako oroitidazkiaren arabera:



ERAKUNDE AUTONOMOAK

NFO Nafarroako Foru Ogasuna
NBI Nafarroako Berdintasunerako Institutua
E-ENI Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
NOPLOI Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
O-NOZ Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
NGI Nafarroako Gazteriaren Institutua
PAGNA Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia
NEZ Nafarroako Enplegu Zerbitzua
NKJFI Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua

Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

• Enpresa publikoak, “Foru sektore publikoaren mugaketa” dokumentuan jasotzen denez, 19 dira, Enpresa Korporazio Publikoa (aurrerantzean CPEN) barne. CPENen menpe dauden 18 sozietateak honela banatzen dira: zuzenean korporazioaren mendeko diren 15 sozietate, eta zeharka gehiengoz partaidetutako hiru. Hurrengo taulan ikus daiteke osaera hori:

Enpresa publikoa	CPENen %	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroa SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Nafarroako Inbertsio Institutua SL	100	Enpresei finantza baliabideak eskaintzea
Nafarbide El Camino de los Navarros SL	100	Bide-azpiegituren kontserbazioa eta mantentzea
Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisia eta kirola
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	100	Tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SA (POSUSA)	100	Ingurumen jarduerak eta industria sarearen berrosatzea
Nafarroaren Garapen Sozietatea SL (SODENA)	100	Enpresak garatzeko inbertsio eta finantzaketa jarduerak
Trabajos Catastrales SA (Tracasa) Tracasa Instrumental SL	100	Katastroa, kartografia
Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL	100	Osasun-garraioko zerbitzua
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta deribatuak ekoiztea eta merkaturatzea
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak sustatu eta bultzatzea

• NFKAren fundazio publikoak, kontuetako dokumentazioaren arabera, zortzi ziren 2024ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakapena:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioa sustatzea
Desgaitasuna duten Pertsonei Lagungarriak Helaraziteko Fundazioa	Desgaitasuna duten helduei laguntzeko neurriak
Miguel Indurain	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan
Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Fundazioa-Gizain	Gizarte-zerbitzu publikoak kudeatzea, eta zerbitzu horiek zuzenean eman eta gauzatzea
CENER	Ikerketa eta sustapena energia berriztagarrien sektorean
Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua (IDISNA)	Osasun ikerketa

Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen ekonomia- eta langile-datu nagusiak, 2024ko abenduaren 31n, kontu orokorren oroitidazkian zabalduta eta iruzkinduta, honako hauek dira:

• Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa

(milakotan, kopuru zehatza dela adieraztean salbu)

	Zenbatekoa
Eskubide onartuak	6.081.236
Betebehar onartuak	5.940.380
	Langile kopurua
Langile kopurua 2024ko abenduak 31n	33.133

• Sozietate publikoak

(milakotan, kopuru zehatza dela adieraztean salbu)

	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko langile kopurua
Bateratu gabeko datuak	18.898	32.119	55.336	1.089.836	1.695

• Fundazioak

(milakotan, kopuru zehatza dela adieraztean salbu)

Fundazioak	Emaitza guztira	Ondare garbia	Batez besteko langile kopurua
Zortzi fundazio publikoak guztira[4]	-373	39.864	785

[4]Kontuen Ganberak egindako informazioa, 2024ko ekainaren 26an onetsitako Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuan jasotako dokumentazioarekin. Zortzi fundazioetatik zazpiren urteko kontuak baino ez daude jasota; beraz, informazioa eskura dugun dokumentaziora mugatzen da.

- Beste entitate batzuk

(euroak, langile kopurua dela adieraztean salbu)

Entitatea	Eskubide onartuak	Betebehar onartuak	Foru Ogasunari itzulitako gelditakina	Langile kopurua 2024/12/31n
Nafarroako Parlamentua	16.390.819	13.702.416	2.810.897	73
Kontuen Ganbera	3.280.199	3.261.902	519.324	35
Arartekoa	1.118.300	972.213	151.909	10
Nafarroako Kontseilua	423.282	296.553	126.729	2
Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa	273.446	213.641	59.805	3
NUP	139.011.015	133.701.800	Ez da aplikatzekoa	2.074

2.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, AURREKONTU EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA

Kontabilitate nazionalari dagokionez (Europako Kontu Sistema 2010), 2024ko ekitaldian, honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoretzat:

- NFKA eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hiri Hondakin Tratamendurako Partzuergoa.
- Iruñerriko Abiadura Handiko Partzuergoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Nafarroako Kontseilua.
- Parterik handienean merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak edo ondasunak ematen edo sortzen dituzten Foru Komunitateko sozietate publikoak.

Zehazki, 2024ko ekitaldian, 18 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikoko sektoretzat: BIDEAN, CPEN, CNAI, CEIN, CAT, GAN, INTIA, INI, NICDO, NASERTIC, NILSA, NAFARBIDE, SODENA, TRACASA, TRACASA Instrumental, START UP, POSUSA, eta Lekunberriko Esnekari Institutua[5].

- Hurrengo fundazioak: Baluarte Fundazioa, Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Desgaitasuna duten Pertsonei Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioa, CENER Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioa, Nafarroako Osasun Ikerkuntzarako Institutua Fundazioa, Miguel Indurain Fundazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Unibertsitate-Sozietate Fundazioa, Julián Gayarre Fundazioa, Jorge Oteiza Museoa Fundazioa, Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioa eta Gizain-Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa.

[5] Lekunberriko Esnekari Institutua SA ez da NFKAren sozietate publiko bat, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluan jasotzen den definizioaren arabera, nahiz eta kontsolidazio perimetroaren barruan sartu Kontabilitate Nazionalaren ondorioetarako.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2022an NFKAri aplikatzekoa den arau-esparrua:

Europako araudia

• 549/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko maiatzaren 21ekoa, Europar Batasuneko kontu nazional eta eskualde-kontuen sistemari buruzkoa (Europako Kontu Sistema 2010).

Estatuko araudia

• 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

• 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

• 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei buruzkoa.

• 2015eko irailaren 9ko Ebazpena, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen zuhurtasun finantzarioaren printzipioa, finantza-aktiboak edo abal, berrabal nahiz bestelako berme publikoak edo aurrekontutik kanpoko laguntza neurriak xede dituzten finantza-eragiketei dagokienez.

• 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.

• Ebazpena, 2024ko ekainaren 7koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, beste ebazpen honen 1. eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, Autonomia erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa zaien finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena.

• EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Foru araudia

• 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

• Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

• 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.

• 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa.

• 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.

• 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

• 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako ondareari buruzkoa.

• 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

• 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.

• 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

• 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

• 31/2010 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, Barne-kontroleko Erregelamendua onesten duena.

• 944/2012 Foru Agindua, azaroaren 9koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, Fakturen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duena.

• 78/2024 Foru Agindua, abuztuaren 5ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez onesten baitira 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak eta Balantzeko Kontuak ixteari eta likidatzeari buruzko arauak, bai eta 2025eko ekitaldiaren irekiera ere.

4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

4.1 CAT-SAP SISTEMEN INTEGRAZIOA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ahaleginak egin dituen arren, oraindik ere arazoak daude, CATen informazio egokia falta delako SAPGE21ek diru-bilketa garbia egoki islatu ahal dezan kontabilitatean. Izan ere, ez ditu bereizten uneko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak. Gainera, CATeko datu horiek ez dute aukerarik ematen kobrantzen zenbatekoak printzipalaren, errekarguen eta interesen artean banatzeko.

Hori dela-eta, CATek ematen duen informazioarekin Hitzarmen Ekonomikoaren, Analisi Fiskalen eta Administrazioaren Zerbitzuak egiten duen txostenean uneko ekitaldiko kobrantzei dagokien zenbatekoa azaltzen da, baina ez da bereizten kobrantza horiek uneko urtean edo aurreko urteetan sortutako eskubideetatik datozen. Zifra hori erabiltzen du NFKAren Kontabilitateko atalak aurrekontuaren likidazioan islatutako zerga bakoitzaren bilketa garbia lortzeko.

Aurrekoaz gain, CAT sistemak ez du ematen nahikoa informaziorik zordunen gaineko kontabilitatea behar bezala jasotzeko aurrekontu-likidazioan eta egoeraren balantzean. Hala, eskuragarri dauden datuekin, ezin da bereizketarik egin ekitaldi arruntetako eta itxietako zordunen artean, eta ez da posible zorra geroratzea eman zaien zordunei dagozkien eskubide aitortuak deuseztatzea, indarreko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako irizpideen kontra.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ezta sorrarazi gabeko errekarguak eta interesak ere.

Era berean, adierazi nahi dugu CAT eta SAPGE21 sistemen artean informazioa eskualdatzeko arazoak, eragina izango lukeela diru-fluxuen egoera-orria egiteko lanetan; egoera-orri finantzarioa, lehen esan bezala, ez da aurkeztu.

4.2. ZERBITZU-PRESTAZIOA KONTRATU-EUSKARRI EGOKIRIK GABE

Ganbera honek 2018tik 2023rako kontu orokorrei buruz egindako txostenek salbuespen bat jasotzen zuten, indarraldia amaituta zeukaten kontratuetan oinarritutako prestazioekin lotutako aurrekontu-gastuak egiteari zegokiena.

Ekitaldi honetan egin dugun berrikuspena aurreko ekitaldietakoa baino zabalagoa izan da, Legebiltzarrak egindako eskaera honi erantzuteko: “*2014-2023 aldiko bilakaera eta bidegabeko aberastasun egoeran dauden kontratuen egungo egoera*”. Beraz, apartatu honetan adierazitakoaz gain, 5. gehigarriaren 5.6 apartatuan egin dugun azterketa zabalagoari lotzen gatzaizkio.

Egoera horren jarraipena egin dugu, departamentuek Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioarekin. Zehazki, eta informazio horren arabera, hauek dira kontratu-euskarri egokirik gabe ordaindutako prestazioekin lotutako datuak:

Departamentua	2024an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2024/12/31 arte metatutako gastua[6]	Kontratu kopurua	Kontratu-euskarri egokirik gabeko gastuaren hasiera-data (gutxienez)
Osasuna	75.358.316	407.352.730	56	2017/01/01
Lurralde Kohesioa	20.991.420	33.815.648	34	2014/03/07
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	15.073.278	47.845.945	10	2021/01/01
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	10.505.408	21.447.323	35	2021/02/14
Barne-gaiak, Funtzio Publikoa eta Justizia	4.635.172	4.667.842	43	2023/01/01
Hezkuntza	1.399.929	1.757.985	13	2023/09/01
Kultura, Kirola eta Turismoa	825.015	895.454	12	2022/01/01
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	313.526	949.680	3	2021/02/15
Lehendakaritza eta Berdintasuna	167.320	286.566	1	2023/02/01
Ekonomia eta Ogasuna	143.717	219.243	2	2023/01/01
Landa Garapena eta Ingurumena	103.924	0	1	2024/01/01
Guztira	129.517.024	519.342.340	210	

Bistan denez, egoera horretan dauden 210 prestazioren kontratua amaitu zenetik 2024ko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 519,34 milioi eurokoa da, eta horietatik 129,52 milioi 2024an ordaindu ziren.

Beheko taulak egoera horretan ordaindutako gastuaren eta hari dagozkion kontratuen kopuruaren bilakaera erakusten du 2023-2024 aldian:

Departamentua	Ordaindutako gastua			Kontratu kopurua		
	2024	2023	Aldakuntza (%) 2024/2023	2024	2023	Aldak. (%)
Osasuna	75.358.316	83.367.993	-10	56	60	-7
Lurralde Kohesioa	20.991.420	4.545.052	362	34	42	-19
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	15.073.278	14.161.655	6	10	13	-23
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	10.505.408	13.044.102	-19	35	41	-15
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	4.635.172	913.489	407	43	4	975
Hezkuntza	1.399.929	1.931.014	-28	13	9	44
Kultura, Kirola eta Turismoa	825.015	467.725	76	12	7	71
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	313.526	476.834	-34	3	2	50
Lehendakaritza eta Berdintasuna	167.320	901.319	-81	1	4	-75
Ekonomia eta Ogasuna	143.717	3.360.134	-96	2	2	0
Landa Garapena eta Ingurumena	103.924	0		1	0	
Guztira	129.517.024	123.169.317	5	210	184	14

2024an kontratu-euskarririk gabe ordaindutako gastuaren zifra ehuneko bost handitu da aurreko ekitaldikoarekin alderatuta, nahiz eta hainbat departamentuk 2023an baino gastu txikiagoa izan. Kontratu kopuruari dagokionez, % 14 areagotu dira.

[6] Luzapenak barne.

Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude jasota O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu-euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak. Kontzeptu horiei lotutako gastua 103,06 milioikoa izan zen 2024an. Datuak honako taula honetan daude:

2024	Farmazia	Gainerakoa	Guztira
Erosketak guztira	153.228.237	132.422.901	285.651.138
Lehiaketa bidezko erosketak	109.579.667	41.383.919	150.963.586
Materialaren balioa < 15.000 €+ BEZ	5.432.238	26.192.903	31.625.141
Kontratu-euskarri egokirik gabe	38.216.332	64.846.079	103.062.411

Gastu mota horiei buruz, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiko Finantza Kontrol Iraunkorreko Atalak auditoria operatibo bat egin zuen 2023an, eta, besteak beste, ohartarazi zuen 2022an protesietan egindako gastuaren % 26,29 eta osasun materialean egindako gastuaren % 11,61 baino ez zeudela lizitatuta.


Txostenean hainbat gomendio jaso ziren, eta, horien ondorioz, Osasun Departamentuak ekintza-plan bat argitaratu zuen O-NOZen gastuen finantza-kontrol iraunkorraren gainean. Jakin dugunez, plan hori 2025eko maiatzean eguneratu zen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta egoera horretan gastu gehiago egon daitezkeen aztertu gabe, 2024an kontratu-euskarririk gabe ordaindu zen gastua 232,58 milioikoa da, honela banakatuta:

	Zenbatekoa
Departamentuen gastua	129.517.024
O-NOZen gastua	103.062.411
Guztira	232.579.435

Gastu horiek 2018-2024 aldian izandako bilakaera honako taula eta grafiko hauetan islatzen da:

Gastua	BOG 2018	BOG 2019	BOG 2020	BOG 2021	BOG 2022	BOG 2023	BOG 2024	Aldak. (%) 24/18	Batez-beste-koa
Departamentuak	89,65	92,08	68,73	120,7	154,33	123,17	129,52	41	115
O-NOZen gastua	103,81	116,69	127,22	98,97	116,23	98,81	103,06	-12	110
NFKA Guztira	193,46	208,77	195,95	219,67	270,56	221,98	232,58	11	225



5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Era berean, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak jaso ditugu, NFKAren, haren erakunde autonomoen, haren sozietateen eta fundazio publikoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketa hobetzeko.

5.1 2024KO KONTU OROKORRAK

Indarrean dagoen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra[7] 2011n jarri zen indarrean, eta, besteak beste, urteko kontuak egoera-orri finantzario berriekin formulatu beharra ekarri zuen, aurreko kontabilitate-araudian ez zeudenak.

NFKAk eta haren erakunde autonomoek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 127. artikuluan ezarritako edukiarekin bat formulatzen dituzte kontuak (aurrerantzean NOPFL). Artikulu horretan jasotako egoera-orri finantzarioak ez dira egokitu Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrak eskatutakora.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu: *NOPFL aldatzea, kontabilitate publikoaren araudian eskatzen diren egoera-orri finantzarioen zerrenda egokitzeko*.

5.2 NAFARROAKO 2024KO AURREKONTU OROKORRAK

Nafarroako 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua 2024ko urtarrilaren 19an bidali zen Parlamentura, hau da, NOPFLn ezarritako 2023ko azaroaren 1eko epemuga baino beranduago.

Nafarroako Gobernuak, AEFILO legea betetze aldera, gastu ez-finantzarioaren sabaia[8] 4.684 milioitan ezarri zuen. 2024ko martxoaren 13an, urte horretarako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2/2024 Foru Legea onetsi zen, 6.355,41 milioiko gastua aurreikusita.

Aurrekontuko aldaketak

Gastuetarako hasierako kredituek % 12ko igoera garbia izan dute (311,46 milioi euro) aldaketen bitartez, eta kreditu bateratuak 6.666,87 milioiko zenbatekora iritsi dira.

Hona hemen 2024an onetsitako aldaketak:

(milakotan)

Aurrekontuko aldaketak	Diruzaintza-geldikinarekin finantzatuak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituta finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	232.514	42.628.797	63.024.483
Kreditu sorrerak	56.852.773	23.285.621	0
Kreditua sartzea	181.411.896	7.045.798	0
Aparteko kredituak	0	0	1.235.282
Guztira	238.497.183	72.960.216	64.259.765

Aurreko taulan ez dira jaso kreditu transferentziak (29,88 milioi guztira), eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezkotasun txostenak egin zituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz. Konklusioa da organo eskudunak onetsi zituela aldaketak, eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; tartean, finantzaketa-

[7] EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
[8] Behin Toki Ogasunen Funtsa eta Estatuari egindako ekarpena deskontatu ondoren.

iturrien bidezkotasunari dagokiona. Ganbera honek informatutako aldaketen guztizko zenbatekoa, transferentziak barne, 404,36 milioikoa izan zen.

Bestalde, aurreikusitako Kontingentzia Funtsa ez da erabili 2024an gastuak finantzatzeko. 2024ko abenduaren 31n ez dago jasota krediturik ez izatearen ondoriozko atxikipenik.

Aurrekontu-likidazioa

2024ko betebehar onartuek 5.940,38 milioiko balioa dute, eta exekuzio eta ordainketa portzentajeak % 89 eta % 98 izan dira, hurrenez hurren.

Eskubide onartu garbiek 6.081,24 milioiko balioa dute, eta betetze maila eta kobrantza maila % 91 eta % 99 izan dira, hurrenez hurren.

Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 2024an gastatutako 100 euro bakoitzeko, honela bideratu eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	% 2023	% 2024	Finantzaketa iturria	% 2023	% 2024
Langileak	30	31	Tributu bidezko diru-sarrerak	87	89
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	16	16	Transferentzia bidezko diru-sarrerak	9	7
Transferentzien ondoriozko gastuak	45	42	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3	3
Inbertsio errealak	4	4	Zorpetzea	1	1
Finantza-zama	5	5			
Aktibo finantzarioak	1	2			
Guztira	100	100		100	100


Ikus daitekeenez, 2024an, gastu-egiturak, oro har, ez du aldaketa esanguratsurik izan.

- 2024ko aurrekontu-gastua, xedearen edo funtzioaren arabera, honako hau izan zen:

(milakotan)

Gastu-politika	BOG 2023	BOG 2024	BOGekiko % Guztira 2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Oinarrizko zerbitzu publikoak	**192.340**	**205.101**	**3**	**7**
Justizia	38.624	42.160	1	9
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	130.346	137.992	2	6
Atzerri-politika	23.370	24.949	0	7
GASTU SOZIALA (A) + (B)	**3.281.231**	**3.473.318**	**58**	**6**
(A) Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	**861.337**	**914.688**	**15**	**6**
Pentsioak	138.417	146.492	2	6
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.957	3.050	0	3
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	540.582	584.679	10	8
Enplegu-sustapena	74.015	64.687	1	-13
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	105.366	115.779	2	10
(B) Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	**2.419.894**	**2.558.630**	**43**	**6**
Osasuna	1.407.489	1.485.934	25	6
Hezkuntza	935.766	992.052	17	6
Kultura	76.639	80.643	1	5
Jarduketa ekonomikoak	**554.687**	**593.138**	**10**	**7**
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	114.404	118.517	2	4
Industria eta energia	30.428	38.911	1	28
Merkataritza, turismoa eta ETEak	12.136	46.628	1	284
Garraiorako dirulaguntzak	56.587	53.694	1	-5
Azpiegiturak	239.039	245.616	4	3
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	82.381	72.405	1	-12
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	19.711	17.368	0	-12
Jarduketa orokorrak	**1.753.647**	**1.668.823**	**28**	**-5**
Goi zuzendaritza	23.093	22.235	0	-4
Zerbitzu orokorrak	174.250	150.095	3	-14
Finantza- eta tributu-administrazioa	28.738	29.953	1	4
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	911.820	832.373	14	-9
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	2.850	2.850	0	0
Toki administrazioentzako transferentziak	349.975	355.046	6	1
Zor publikoa	262.921	276.271	5	**5**
Guztira	5.781.904	5.940.380		3

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken, oinarrizko zerbitzu publikoen, gizarte-gastuen (gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko ondasunen ekoizpena), jarduera ekonomikoen eta jarduera orokorren arabera taldekatzen baditugu, hau da gastuaren banaketa 2024an:



2024an, honako hauek izan ziren gastu-politika esanguratsuenak:

(milakotan)

Gastu-politika	BOG 2024	BOGekiko % Guztira 2024
Osasuna	1.485.934	25
Hezkuntza	992.052	17
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	832.373	14
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	584.679	10

Ehuneko horiek aurreko ekitaldikoen antzekoak dira.

Aurrekontu-likidazioaren adierazleak

Taulak honek 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako gastuen eta diru-sarreren aurrekontu-likidazioarekin lotutako zenbait adierazleren konparazioa dakar:

(milakotan)

Adierazlea	2023	2024	Aldakuntza
Gastua guztira	5.781.904	5.940.380	3
Gastu arruntak (1etik 4ra bitarteko kapituluak)	5.015.609	5.154.766	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	4.973.473	5.110.608	3
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	509.211	517.286	2
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	257.084	268.328	4
Diru-sarrerak guztira	5.925.483	6.081.236	3
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era bitarteko kapituluak)	5.661.013	5.839.423	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak)	5.162.063	5.418.150	5
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	91	93	2
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa*	5.104.566	5.433.597	6
Tributu bidezko diru-bilketa likidoaren portzentajea BPGarekiko**	20,86	21,12	1
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	192.813	169.253	-12
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	71.654	72.560	1

* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.
** 2024ko BPGaren zifra Nafarroarako: 25.717 milioi.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

• 2024an, gastu totalak % 3 handitu dira (158,48 milioi) 2023. urtearen aldean.

• Beren izaerari erreparatuta, gastu arruntak guztizkoaren % 87 dira, eta % 3 handitu dira; finantza eragiketei dagozkienak % 5 dira, eta % 4 handitu dira 2023arekin alderatuta. Bestalde, kapital-gastuek gainerako % 9a hartzen dute, eta zortzi milioi handiagoak izan dira, hau da, % 2 hazi dira.

• 2024ko diru-sarrerak 6.081,24 milioi eurokoak izan dira, eta % 3 igo dira (155,75 milioi) 2023koen aldean.

Gehien handitu diren diru-sarrerak arruntak dira, % 3 igo baitira (178,41 milioi), batez ere zerga bidezko sarrerengatik, 256,09 milioi handitu baitira (% 5). Kapital bidezko diru-sarrerak % 12 gutxitu dira (23,56 milioi).

• Tributu bidezko diru-bilketa likidoa 5.433,60 milioikoa izan zen 2024an, 2022koa baino % 6 (329,03 milioi) handiagoa.

Diru-bilketa hori 25.717 milioi euroan zenbatetsitako Nafarroako BPGren % 21,12 da, hau da, 2023an baino % 1 gehiago.

Aurrekontuaren bilakaera (2015-2024)

Hurrengo taulan, gastu horrek 2015-2024 aldian izandako bilakaera laburbiltzen da:

(milioitan, ehunekoa dela adieraztean salbu)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2015 Nominala	Aldakuntza (%) 2024/2015 Erreala*
Gauzatutako gastua	3.914	3.967	3.984	4.180	4.396	4.587	5.064	5.601	5.782	5.940	52	22
Populazioa	636.402	637.486	640.337	643.866	649.946	656.509	657.654	664.299	672.155	678.333	7	
Gastua biztanleko	6.140	6.195	6.188	6.431	6.696	6.975	7.623	8.337	8.524	8.690	42	14

* Erreala: Igoera termino errealetan inflazioaren eragina deskontatu ondoren. 2015-2024 aldiko inflazioa % 25,1ekoa izan zen. Datuak: *Nafarroako Kontsumoko Prezioen Indize Orokorraren (2021 oinarria) 2015-2024ko aldakuntza metatua (Iturria: Nastat).

Zehaztu beharra dago, 2020ko ekitalditik, Next Generation funtsekin finantzatutako gastuak gastu osoaren zifren barruan sartzen direla. Hala ere, zenbatekoa hori ez da esanguratsua Nafarroako aurrekontu orokorretan[9].

Aurrekontu-programak

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, arau fiskalak eta horiek betetzeko derrigortasuna ezartzeaz gain, honokoa hau adierazten du baliabideen kudeaketaren gainean: *"eraginkortasuna, efizientzia, ekonomia eta kalitatea izango ditu ardatz, eta, horretarako, gastua arrazionalizatzeko eta sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko politikak aplikatuko dira*".

Bestalde, NOPFLk honako hau ezartzen du hitzaurrean: "*programa bakoitzeko helburu-sistema bat eskatuko da, aurrekontu-kudeaketaren eraginkortasun maila 'a posteriori' neurtzeko aukera emango duena*". Lege horren 30. artikuluak programen araberako aurrekontuak arautzen ditu NFKAn. Aurrekontu-programa bat osatzen dute unitate organikoen eskura dauden eta helburuak lortzera bideratuta dauden baliabideen multzoak[10].

[9] 2023an % 1,97 zen, eta, 2024an, % 4.

[10] Batez ere Zuzendaritza Nagusi, Zerbitzu Zuzendaritza eta erakunde autonomo mailan.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, departamentu bakoitzak egiten dituen programen araberako memoriak txertatzen dira[11] . Programa bakoitzaren eta egin beharreko jardueren deskribapena jasotzen dute, eta adierazleen bidez neurtu beharreko helburu jakinak definitzen dituzte.

NOPFLren 51. artikuluak honako hau ezartzen du:

1. *Aurrekontu-programen ardura duten organoek, programa horiek prestatzearekin batera, beren jardun-eremuan bete beharreko helburu-sistema bat formulatuko dute, jarduera arloaren izaerari eta ezaugarriei egokitua.*

2. *Gastu publikoak kudeatzeko eta kontrolatzeko sistemak programen azken helburuak betetzen direla ziurtatzera bideratu beharko dira.*

Ondorioz, NOPFLren 127. artikuluak ezartzen du aurrekontu programen kudeatzaileek emaitzen balantze bat eta kudeaketa txosten bat egin behar dituztela, dagokion arduradunak eginak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituen aurrekontu-programen gainean.

Agindu hori betez, urtero onesten da, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren foru agindu bidez, informatu beharreko programen zerrenda. Zehazki, 2024ko ekitaldirako, apirilaren 7ko 35/2025 Foru Aginduaren bidez, 68 programetatik 67 identifikatu ziren. Sartu ez zen programa bakarra 160. programa da. Estatuarekiko hitzarmena.

Lehen aipatutako 127. artikuluan aurreikusitakoaren aurkezpen formala aurrekontu-programen egitura berarekin egiten da, hau da, programaziorako diseinatutako 0 fitxa erabilita. Aurreikuspen eta gauzatze datuekin aurkezten da, adierazleen alde positiboak edo negatiboak zehaztuz.

Sistema horrek balio beharko luke Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, gastuak kudeatzen dituzten zentroekin lankidetzan, honako hauek egiteko:

- Identifikatzea urteko aurrekontu-esleipenetan hutsuneak edo eraginkortasunik ezak eragin ditzaketen desbideratzeak.
- Bultzatzea eta koordinatzea gastu-politiken ebaluazio jarraitua, ziurtatzeko lortzen direla bai haien helburu estrategikoak bai haien aplikazioarekin lortu nahi den eragin sozioekonomikoa.

Ekitaldi honetan egin dugun berrikuspenean, aurreko ekitaldiko gure txostenean agerian jarritako akats berberak ikusten ditugu.

Horregatik guztiagatik, aurreko txosteneko gomendioak mantentzeaz gain, honako gomendio hauek ere egiten ditugu:

- *Helburuen eta adierazleen definizioa hobetzea, eta 'ex post' kontrol-sistema bat sortzea, programa bakoitzaren benetako inpaktua ebaluatzeko eta gastu publikoaren esleipenetan lehentasunak berrikusteko, kontuan hartuta, besteak beste, aurreko ekitaldietako helburuen betetze maila kontuan hartuta.*

- *Baliabideak esleitzean aurrekontu-programekin izan beharreko lotura identifikatzea.*

Genero eraginaren ebaluazio txostenak aurrekontu orokorretan

Genero eraginaren txostenen berrikuspena egin dugu Nafarroako aurrekontu orokorretan.

Berrikuspen hori autonomia erkidego guztien fiskalizazio horizontalaren testuinguruan kokatzen da. Fiskalizazio hori Kontuen Auzitegiarekin eta autonomia erkidegoetako kanpo kontroleko gainerako organoekin lankidetzan egin da, genero ikuspegidun aurrekontuen gainean.

Lan hori egiteko, autonomia erkidego guztiek galdetegi homogeneo batzuk bete dituzte. Ganbera honetatik Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusira bidali ziren, eta, ondoren, Nafarroako Berdintasun Institutuak (NBI) bete zituen.

NBIko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen du genero ikuspegia duen aurrekontu-proiektuaren marko kontzeptual eta metodologikoa. Era berean, NBIk gaiari buruzko aholkularitza ematen du,

[11] 0 fitxak

eta 0 fitxako helburuen eta ekintzen jarraipena egiteko tresna bat ere exekutatzen du, aurrerapenak monitorizatzea eta prozesu osoan genero ikuspegia txertatzen dela ziurtatzea ahalbidetzen duena.

Honako hauek dira egindako azterketaren **konklusioak**:

- Esparru juridikoa eta politikoa

Genero ikuspegidun aurrekontu bat egitea berariaz aurreikusten da 2019ko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean. Gainera, aurrekontuak egiteko arauek adierazten dute genero eraginaren ebaluazio prozesuan sortutako informazioa, aurrekontuei buruzko foru-lege proiektuarekin batera joango dela.

Bestalde, Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoak (2022-2027) aurrekontuan genero ikuspegia aplikatzeari buruzko aurreikuspenak ere jasotzen ditu.

- Testuinguru instituzionala

2017-2022 aldian baterako lidergo bat ezarri zen Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren eta NBIren artean, baina 2023az geroztik genero ikuspegia duten aurrekontuen prozesua NBIk gidatzen du.

- Marko metodologikoa eta behar bezala inplementatzeko hartutako neurriak

Azken urteotan, tresna metodologiko propio batzuk aplikatu dira, iraunkorrak izateko bokazioarekin eta urteroko euskarri metodologikoekin, gehienak aurrekontu-araurako berariaz diseinatuak.

Marko metodologiko hori ez da aplikatu 2025eko aurrekontuak egitean, NFKA hausnarketa metodologikoko prozesu batean murgilduta dagoelako. Prozesu hori 2025ean amaitu da, barne sistematika berrikusiz eta jarraibide berri bat eginez.

- Genero eraginaren txostenak, auditoretzak eta *ex post* ebaluatzeko beste jarduera batzuk

2017ko aurrekontuetatik, NFKAk, aurrekontuekin batera, genero eraginaren txosten ere bat egiten du, NBIk egiten duena; egindako azkena 2024ko aurrekontuetakoa da.

Nabarmentzen dugu 2025eko genero eraginaren txostenak izaera berezia duela aurreko txostenekin alderatuta, 2024an genero ikuspegidun aurrekontuen ereduari eta helburuei buruzko hausnarketa metodologikoa egin delako, lehen aipatu dugun bezala.

Lehen aipatutako apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen du aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren amaieran, generoari buruzko auditoriak egitea sustatuko dela, departamentuen eta erakunde autonomoen memorietan ezarritako helburuak betetzeari dagokionez. 2024ko ekitaldian eta aurrekoetan ez dago jasota auditoria horiek egin direnik, ezta organo independenteek bestelako ebaluazio edo kontrolik egin dutenik ere *ex post*.

Beste jarraipen jarduera batzuei dagokienez, nahiz eta ez aurrekontu araudian ez berdintasun planetan ez dagoen aurreikuspen espezifikorik eremu horretan barne jarraipena egiteari buruz, adierazten da genero ikuspegidun aurrekontuen proiektua birdefinitzearen helburuetako bat, hain justu, barne jarraipen hori egitea dela.

- Gardentasuna

Maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeri eta Gobernu Onari buruzkoak, 22. artikuluan berariaz ezartzen du nahitaez argitaratu behar dela aurrekontuen lege-proiektuarekin batera doan dokumentazio osagarria, Genero Eraginaren Txostena barne. Beraz, legezko aurreikuspen hori betetzen da.

5.3 NFKAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2024KO ABENDUAREN 31N

Hurrengo taulan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2023. eta 2024. urteetan:

(milakotan)

Adierazleak	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	329.006	336.624	2
Aurrekontu-emaitza doitua	96.473	124.080	29
Aurrezki gordina	687.540	728.815	6
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	266.351	278.687	5
Aurrezki garbia	421.189	450.128	7
Finantza-zorra *	2.695.268	2.505.855	-7
Zorraren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean	48	43	-10
Diruzaintza-geldikina gastu orokorretarako	196.463	412.373	110
Eratutako abalak (saldo bizia)	43.836	63.708	45
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	3.720.465	3.681.286	-1

*Kostu amortizatukoa.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

• Doitutako aurrekontu-emaitza % 29 handitu da (27,61 milioi), batez ere ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketaren desbideratze positiboen kontabilitate-efektuak eraginda.

• 2024ko aurrezki gordina % 6 handitu zen, eta finantza karga % 5 handitu zen. Ondorioz, aurrezki garbia % 7 hazi zen, 29 milioi.

• Finantza-zorrak 189,41 milioiko murrizketa izan du, hau da, % 7ko aldakuntza negatiboa. Diru-sarrera arrunten % 43 da, eta aurreko ekitaldian % 48.

• Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinak gehikuntza nabarmena izan zuen, % 110ekoa, 216 milioi handitu baitzen, batez ere ekitaldiaren itxieran diruzaintzan izandako gehikuntzari esker (62,63 milioi) eta finantzaketaren desbideratze positiboen kontabilitate-efektuak eraginda.

• Zorraren aldakuntzaren aurrekontu-bilakaera (hitzartutako zorra ken amortizatutako zorra), honako hau izan da 2015-2024 bitartean, milioitan:

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Hitzartutako zorra	446,94	579,70	498,01	208,06	214,46	648,37	149,44	406,19	50	50
Amortizatutako zorra	307,23	416,08	293,93	373,15	336,99	289,94	606,62	381,43	224,21	234,53
Zorraren aldakuntza	139,71	163,62	204,08	-165,09	-122,53	358,43	-457,18	24,76	-174,21	-184,55

Azken batean, NFKA eta haren erakunde autonomoen ekonomia eta finantza egoerak hobera egiten jarraitzen du adierazle esanguratsuetan.

• Bestalde, etorkizuneko ekitaldietarako hitzemandako aurrekontu-gastuak 3.681,29 milioi eurokoak dira, eta horietatik % 73 zorraren finantza-zamari dagozkio. 2023ko datuekin alderatuta, gastu horiek % 4 egin dute behera.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(milakotan)

Kapitulua	2025	2026	2027	Gainerako urteak	Guztira	Guzt. gain. %
1. Langileen gastuak	2.732	-	-	-	2.732	0
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	260.878	67.056	48.212	12.643	388.789	11
3. Finantza-gastuak	29.388	27.382	25.283	131.607	213.659	6
4. Transferentzia arruntak	77.678	8.237	2.511	1.724	90.150	2
6. Inbertsio errealak	142.573	66.893	48.798	2.600	260.863	7
7. Kapital-transferentziak	160.870	56.158	18.637	5.547	241.212	7
8. Finantza-aktiboak	2.350	1.350	-	-	3.700	0
9. Finantza-pasiboak	261.340	213.760	232.420	1.772.660	2.480.180	67
Etorkizuneko ekitaldietako gastuak guztira	937.808	440.836	375.861	1.926.780	3.681.286	100
Ehunekoa/urtea	25	12	10	52		100

Iturria: Kontu Orokorren Memoria.

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebehar aktuarialak, ez itzaleko bidesarietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien munta zein den ezin delako jakin. Honako hauek dira:

(milakotan)

Azpiegitura	2025	2026	2027	Gaine-	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	19.736	20.280	20.838	197.261	258.115
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	16.085	17.742	18.185	375.083	427.095
Donejakue Bideko autobia	62.535	65.981	69.977	221.415	419.908
Pirinioetako autobia	23.100	26.802	27.813	403.438	481.153
Guztira	121.456	130.805	136.813	1.197.197	1.586.271

Iturria: Kontu Orokorren Memoria.

5.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEKO PRINTZIPIOAK

2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan zehar bertan behera utzi ziren Espainiako arau fiskalak, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, ezen hark erabaki zuen Egonkortasun eta Hazkunderako Ituneko babes-klausula orokorra aplikatzea, hasieran COVID-19aren ondoriozko pandemiak eta ostean Ukrainako gerrak eragindako efektuak samurtze aldera.

Europako Batzordeak 2023ko martxoaren 8an Kontseiluari egindako Komunikazioan, 2023aren amaieratik aurrera babes-klausula orokorra kentzea ezarri zen. Ondorioz, Espainiako Administrazio Publikoei aplikatu beharreko arau fiskalak 2024an berraktibatuta geratu ziren, eta erakundeak arau horiek betetzera behartuta geratu ziren.

Ministro Kontseiluaren 2023ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, aurrekontu-egonkortasunarekin eta zorrarekin lotutako helburuak finkatu ziren. Helburu horiek Diputatuen Kongresuak onetsi zituen 2024ko urtarrilaren 10ean, baina Senatuak baztertu egin zituen 2024ko otsailaren 7an.

Ondoren, Ministroen Kontseiluak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 15.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, helburuak ezartzeko bigarren akordio bat hartu zuen 2024ko otsailaren 13an, aurrekoarekin bat datorrena, eta Diputatuen Kongresuak berriro berretsi zuen 2024ko otsailaren 29an, eta Senatuak atzera bota 2024ko martxoaren 6an.

Autonomia erkidego guztientzat Egonkortasun Programan[12] agertzen zen helburua oreka lortzearena zen (BPGren % 0ko finantzazio ahalmeneko edo beharreko saldoa). Autonomia erkidego bakoitzarentzat defizit helburu indibidualizaturik ezarri ez zenez, Ogasun Ministerioak 2025eko ekainean egindako aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuen betetze mailari buruzko txostenak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak aurreikusitakoaren arabera, datuak kuantifikatzen ditu, baina ez du iritzirik ematen bakoitzak helburuak bete dituen edo ez.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorea, kontabilitate nazionalaren terminoetan mugatua (Europako Kontu Sistema 2010), 2024an Foru Komunitatearen eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean adostutako arau fiskalak betetzearen mende zegoen, 2025eko otsailaren 13an bildutako Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bidez, zeinaren bidez 2024tik 2027ra bitarteko aldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak adostu ziren. Honako hauek dira:

- Nafarroako Foru Komunitatearen BPGren % 13ko zor publikoaren gehieneko muga.

- Nafarroako Foru Komunitatearen BPGren % 0,3ko gehieneko defizita.

Batzorde horrek adostutakoa alde batera utzita, honako arau hauek ere bete behar dira:

- Gastuaren arauaren kasuan, gastu konputagarriaren aldaketak ezingo du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko barne produktu gordinaren hazkundearen erreferentziazko tasa gainditu. Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak, 2024rako, Espainiako ekonomiaren epe ertaineko barne produktu gordinaren hazkundearen erreferentziazko tasa % 2,6 izatea ezarri zuen.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasuna. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketetarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa da.

- Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa, honako honetan gauzatzen dena:

a) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren ebazpeneei jarraituz.

b) Abalak, berrabalak edo bestelako berme publikoak. Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira Europako Kontu Sistemaren arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen baitute gainditu Nafarroaren BPGren % 1,5; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen baitu gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGren % 0,1eko muga.

c) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2023an helburu hori bete zuenez, betebehar hori ezin zaio aplikatu 2024ko ekitaldiari.

Ondoren, arau horien betetze maila aztertuko dugu, NFKAk oroitidazkian emandako informazioaren arabera:

[12] 2023-2026 aldiko Egonkortasun Programaren eguneratzea, 2023ko apirilaren 28koa.

Aurrekontu-egonkortasuna

Finantzaketa-gaitasuna

Nafarroako Gobernuak kalkulatutako finantzaketa ahalmena (superabita) NFKAren BPGren % 1,01ekoa da, eta Ogasun Ministerioak 2025eko ekainean kalkulatutako datu indibidualizatuek, berriz, gaitasun hori % 0,97koa izan zela adierazten dute.

Datu horien arabera, Nafarroako Foru Komunitateak gainditu egin zuen Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2025eko otsailaren 13an Hitzarmenaren Koordinazio Batzordean adostutako defizitaren muga, zeinak Nafarroako Foru Komunitatearen BPGren % 0,3ko gehieneko defizita ahalbidetzen zuen.

Gastuaren araua

Kontuen memorian jasotako datuen arabera, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak ez zuen gastuaren araua bete; izan ere, 2024an, gastu konputagarria % 9,3 igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hazkunde-tasa % 2,7an ezarri zenean.

NFKAk kalkulatutako datua, gainera, Estatukoak kalkulatutakoa baino 0,8 ehuneko txikiagoa da, Estatuak % 10,1ekoa dela baitio. Nolanahi ere, datu horiek behin-behinekotzat jo behar dira, Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiak Sektore Publikoaren Kontu Ekonomikoak egin arte.

Finantza-iraunkortasuna

a) Zor publikoaren iraunkortasuna eta zuhurtasun finantzarioa

Zor publikoaren 2024rako helburua, gehiegizko defizitaren prozeduraren metodologiaren arabera kalkulatuta, % 13an hitzartu zuten Estatuak eta Foru Komunitateak.

Gehiegizko defizitaren prozeduraren arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebehar gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazioen eta bonoen, maileguen eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatuak, ez merkataritza-kredituak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2024ko abenduaren 31n, Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 2.744 milioikoa zen, Nafarroako BPGren % 10,3, hau da, finkatutako zor helburua bete zen. Autonomia Erkidegoen azpisektorean, Nafarroako Foru Erkidegoa izan zen 2024an zor mailarik txikieneko autonomia erkidegoa.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasuna

Helburu hori bete egiten da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiak ez duenean gainditzen araudian aurreikusitako berankortasuneko gehieneko epea. Epe hori, orokorrean, 30 egunekoa da. Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du Administrazio Publikoaren Sektorearen ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen balioa.

Hurrengo taulak, 2024ko hilez hileko ordainketaren batez besteko aldia erakusten du:

	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan)
Urtarrila	24,36
Otsaila	27,21
Martxoa	25,65
Apirila	28,38
Maiatza	27,67
Ekaina	26,61
Uztaila	29,71
Abuztua	33,47
Iraila	30,84
Urria	28,46
Azaroa	26,93
Abendua	25,40

Iturria: Nafarroako Gobernua.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak merkataritza-zorraren iraunkortasunaren printzipioa bete zuen 2024an, eta, hamar hilabetetan, ez zuen araudian ezarritako epea gainditu.

c) Zuhurtzia abaletan eta beste berme batzuetan

Ondorio horietarako, NFKAk, 2024ko abenduaren 31n, 134,51 milioiko abalen eta bestelako bermeen bolumena aurkeztu zuen, betiere Europako Kontu Sistemaren (2010) arabera Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten pertsona fisiko eta/edo juridikoez bestelako pertsona juridikoei emandakoak. Bestalde, Nafarroako 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak, abaletan 66 milioi ematea aurreikusten du.

Horrenbestez, 2024an eman diren eta 2025erako aurreikusten diren abalen zenbatekoa 164 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGren % 0,64 egiten du; portzentaje hori legeriak aipatzen duen % 1,5eko mugatik behera dago; horrenbestez, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGren % 0,1eko mugatik gora.

Azken batean, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2024ko ekitaldian gastuaren araua bete ez badu ere, finantzaketa beharren bolumenarekin eta finantza-iraunkortasunarekin lotutako helburuak bete ditu.

5.5 LANGILEEN GASTUAK

2024an, langileen gastuak 1.849,52 milioi eurokoak izan dira, gastu guztien % 31, hain zuzen. Langileen gastuen % 43 Osasun Departamentuari dagozkio; % 32, Hezkuntza Departamentuari; eta % 16, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari.

Hauxe da aurrekontuko artikuluen araberako banaketa:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	2023ko betebehar onartu garbiak	2024ko betebehar onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
Goi kargudunak	5.069	5.555	10
Behin-behineko langileak	3.535	4.121	17
Lanpostuko ordainsariak	1.025.742	1.076.597	5
Langileen ordainsariak	166.883	180.711	8
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	407.266	433.240	6
Ordainsari aldakorrak	99.399	109.857	11
Beste ordainsari batzuk	26.387	39.439	49
Guztira	1.734.281	1.849.520	7

2023. urtearekin alderatuta, langileen gastuak % 8 (115,24 milioi) igo ziren. Hauek dira alde horren arrazoi nagusiak:

- 2024an % 2ko soldata igoera aplikatu zen Gainera, 2022-2024 aldirako Administraziorako Esparru Akordioaren arabera, % 0,5eko igoera gehigarri eta finkagarri baterako aukera ezarri zen, urte bakoitzeko KPI harmonizatuaren datuaren aldakuntzaren baturak urte horretan aplikatutako ordainsari igoera gainditzen bazuen.

2024an, % 3,3ko KPI datua argitaratzean, 2023ko soldaten gaineko % 0,5eko igoera hori berretsi zen, baina 2024ko aurrekontuari egotzita. Era berean, 2025ean % 2,8ko KPI datua argitaratu da, 2024ko soldatekiko % 0,5eko igoera gehigarria berresten duena, baina, hori bai, 2025eko aurrekontuan jasota.

Beraz, 2024ko aurrekontuan jasotako soldata igoera % 2,5ekoa da; % 2ko igoera 2024ari dagokio, % 0,5ekoa 2023ari.

- “Lanpostuaren ordainsariak” artikuluaren informazioa bereizten badugu, aurrekontu-kontzeptuaren arabera, honako informazio hau lortuko dugu:

(milakotan)

	BOG 2023	BOG 2024	Aldea	Aldakuntza (%)
Langile finkoen ordainsariak	568.721	629.900	61.179	11
Lanpostu erreserbatuetarako kontratatutako langileen ordainsariak	49.797	56.173	6.376	13
Lanpostu hutsak betetzeko kontrataturiko langileen ordainsariak	127.521	96.709	-30.813	-24
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	174.115	176.580	2.465	1
Kanpainetarako kontrataturiko langileen ordainsariak	23.933	26.114	2.181	9
Ordezko lanak egiteko kontratatutako langileen ordainsariak	81.654	91.122	9.468	12
	1.025.742	1.076.598	50.856	5

Ikusten da langile finkoen ordainsariak % 11 igo direla. Soldata-igoeraren ondorio da % 2,5. Gainerakoa, batez ere, langile finkoak urte batetik bestera gehitzearen ondorio da; langile baliokideei dagokienez, % 9koa izan da.

- Erreserbatutako lanpostuetan kontratatutako langileen ordainsariak % 13 igo dira, lanpostu kopurua 348 plazatan handitu baita (% 9,5 gehiago aurreko ekitaldiarekin alderatuta). Igoera batez ere Hezkuntzan (3,15 milioi) eta Osasunean (2, 22 milioi) kontzentratzen da.

● Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak nabarmen jaitsi dira, 2023ko joerari jarraipena emanez, orduan ere behera egin baitzuten. Kontzeptu horretako gastua 134,4 milioira arte igo zen 2022an, egonkortze prozesuan sortutako eta oraindik langile finkoekin bete gabeko plantilla organikoko lanpostu berriak bertan egotzi baitziren. Plaza horiek betetzeak, behin prozesu horiek amaitzean, kontzeptu horretako gastua murriztea eragin du, bai eta gastua langile finkoen ordainsarietara aldatzea.

● Ordezkapenak egiteko kontratatutako langileen ordainsariak % 12 igo dira, eta igoera Hezkuntza (6,2 milioi) eta Osasun (3,1 milioi) departamentuetan kontzentratu da berriro. Datua ordezkapena eragin duten arrazoiekin lotuz gero, ikusiko dugu guztizko igoeraren % 53 aldi baterako ezintasunagatiko ordezkapenek eragin dutela, % 27 oporrengatiko eta norberaren gauzengatiko ordezkapenek, eta % 14 enplegua banatzeagatiko baimenek (Hezkuntzaren esparruan kontzentratuta).

● Aldi baterako ezintasunari dagokionez, deigarria da bost milioiko igoeratik 3,7 Hezkuntzan kontzentratzen direla.

● Lanbide karreraren ordainsarietan izandako aldaketak Osasun Departamentuko C eta D mailetako langileek jasotako lanbide karreraren aitorpenaren ondorio dira, irailaren 30eko 12/2024 Foru Legea onestearekin batera eman zena[13]. Osagarri hori 2024an ordaindu zen, eta bilakaera hau izan du:

(milakotan)

	BOG 2023	BOG 2024	Aldea	Aldakuntza (%)
Lanbide karreraren ordainsariak	21.159	28824*	7.666	36

* Ekitaldiko bertako ordainsariak, 2024an ordaindutako baina aurreko ekitaldiei dagozkien atzerapenak sartu gabe.

● Aurreko ekitaldietako ordainsariak bost milioi euro igo dira, eta bilakaera hau islatzen dute:

(milakotan)

	BOG 2023	BOG 2024	Aldea	Aldakuntza (%)
Aurreko ekitaldietako ordainsariak	24.092	29.074*	4.981	21

* Aurreko ekitaldiei dagokien erregularizazioa egoztea.

Eremuaren araberako aldakuntzen banakapenak 11,3 milioiko jaitsiera erakusten du Erroan, eta 1,4 milioiko igoera Hezkuntzan eta 14,9 milioikoa Osasunean. Erroan emandako jaitsiera horren arrazoia da 2023an, 227/2023 Foru Dekretua aplikatuta, Foruzaingoaren ordainsariak erregularizatu zirela 2019tik. Osasunaren igoera aldi baterako langile sanitarioentzako lanbide karreraren aitorpenak azaltzen du, 2023ko aurrekontuetan onetsi zena lau urteko atzeraeraginarekin. Hori bai, ez zen 2024ra arte ordaintzen hasi.

● Produktibitate-osagarria % 22 handitu da, hurrengo taula honetan adierazten den bezala:

(milakotan)

14. aurrekontuko artikulua	BOG 2023	BOG 2024	Aldea	Aldakuntza (%)
Produktibitate-osagarria	31.258	38.265	7.007	22

Ikus daitekeenez, igoeraren % 86 O-NOZen gertatzen da. Esparru horretan zentratzen bagara, ikusten da igoera batez ere bi arrazoirengatik izan dela: ordainsari igoeraren ordainsari finkoa eta itxaron-zerrenden ondoriozko produktibitatea.

[13] Irailaren 30eko 12/2024 Foru Legea, zeinaren bidez ezartzen baita Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuena eta osasun arloko diplomadunena.

Azpikontzeptu horiei dagokienez, 7 milioiko igoeratik, 3,8 milioi ordainsari finkoaren igoerari dagozkio –hileko 400 eurotik 408 eurora igaro da–, eta 1,3 miloi itxaron-zerrenden kudeaketarekin lotutako produktibitateei.

• Epaiak betearaztegatiko ordainsariak eta bestelako kalte-ordain batzuekin lotutakoak 8,07 milioi igo dira (% 353). Datuak honako taula honetan daude:

	2023		2024	
	Langileen gastua	Langile kopurua	Langileen gastua	Langile kopurua
Guztira	2.289.696	892	10.365.053	1.232

2024an ordaindutako zenbatekotik, kopuru esanguratsuenak nabarmentzen ditugu:

a) Egonkortzeagatiko konpentsazioa: 880 langileri ordaindu zaie (5,21 milioi), eta egonkortze bidez bete diren lanpostuak betetzen ari ziren langileen kaleratzeengatiko kalte-ordainak jasotzen ditu.

b) Epaiak betearaztea: 1,83 milioi. Kontzeptu horregatik, aurreko ekitaldian baino 1,6 milioi gehiago ordaindu dira.

Plantilla organikoa

NFKAn eta haren erakunde autonomoetan 2024ko abenduaren 31n izendapen askeko zuzendaritza-karguak betetzen dituzten langile finkoen eta behin-behinekoen zerrenda eta plantilla organikoa, 2025eko azaroaren 17an argitaratu da[14]. Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz egin duen moduan, nabarmentzen du informazio hori atzerapenez argitaratu zela.

Hala ere, adierazi nahi dugu, plantilla organikoa onetsi gabe zegoenez, lana Funtzio Publikoak landa lana exekutatu bitartean eman zigun informazioarekin egin zela. Une horretan, 2024ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 26.778 ziren[15], 2023ean baino 677 plaza gehiago.

Banaketa honako hau da:

	2023	2024
Funtzionarioak	24.785	25.468
Lan-arlokoak	1.159	1.151
Behin-behinekoak	157	159
Guztira	**26.101**	**26.778**

Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazioa Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024
Beteta	4.700	5.160	6.475	6.866	7.310	8.107	18.485	20.133
Hutsik	2.518	2.154	2.396	2.307	2.702	2.184	7.616	6.645
Plazak guztira	7.218	7.314	8.871	9.173	10.012	10.291	26.101	26.778

Lanpostuen % 38 O-NOZi dagozkio; % 34 Hezkuntzari, eta gainerako % 28a Administrazio Erroari. Plaza guztietatik % 75 beteta daude eta gainerako % 25a hutsik.

[14] 230. NAO, berezia, 2025eko azaroaren 17koa.
[15] 230. NAO berezian onetsitako plantilla organikoan, 26.777 plaza daude.

2023an eta 2024an honako hau izan zen betetako lanpostuen banaketa tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota		2023	2024
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak	154	157
	Burutzak	1.561	1.675
Oinarrizko lanpostuak		16.770	18.301
Betetako lanpostuak guztira		18.845	20.133

2024an, guztira, 20.133 plaza bete ziren, 2023an baino % 7 gehiago (1.288 plaza). 2023arekin alderatuta, aldakuntza handiena oinarrizko plazetan izan zen, % 9 gehitu baitziren (1.531 plaza).

Hutsik dauden lanpostuen egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2023	2024
Plazak guztira	26.101	26.778
Hutsik	7.616	6.645
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	29	25
Betetako lanpostu hutsak	4.567	3.820
Betetako lanpostu hutsak lanpostu huts guztien gainean (%)	60	57

2024an, lanpostu guztien % 25 hutsik zeuden, eta, horien barruan, % 57 beteta zeuden. Ehuneko horiek 2023koak baino txikiagoak dira.

Egiaztatu dugu Funtzio Publikoak emandako plantilla organikoaren dokumentuan oinarri gisa erabiltzen diren datuak eta kontu orokorren memorian horri buruz emandako informazioa bat datozela.

Gobernuak 11 foru dekreturen bidez plantillan zenbait aldaketa onetsi zituen, eta NAOn argitaratu ziren. Aldaketa horiez gain, NAOn[16] argitaratu behar ez diren beste batzuk ere onesten dira. Horiek horrela, plazen behin betiko egoera honako taula honetan islatzen dena da:

Kontzeptua	Plazak
Plantilla organikoko plazak 2022an	26.101
Plazak sortzea foru dekretu bidez eta NAOn argitaratuz	668
Plazak amortizatzea foru dekretu bidez eta NAOn argitaratuz	-30
NAOn argitaratu beharrik gabe baliogabetuak	-48
NAOn argitaratu beharrik gabe sortuak	87
Plantilla organikoko plazak 2024an	26.778

Benetan sortu diren eta amortizatu diren plaza berriei erreparatzen badiegu –11 foru dekretuen bidez sortu eta NAOn argitaratutakoak–, honako hau da egoera eta banaketa arloen artean:

Kontzeptua	Amortizazioa	Sorrera
Hezkuntza	6	312
Erroa	24	97
O-NOZ		259
Guztira	30	668

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak plantilla organikoan jaso direla.

[16] Burutzak sortzea edo kentzea, egitura aldatzea, etab.

Ordezte-tasaren azterketa

2024ko ekitaldian ez ziren Estatuko Aurrekontu Orokorrak onetsi, eta, beraz, 2024koak luzatu ziren; ondorioz, ordezte-tasa arautzen duen araudia Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/22 Legearen 20. artikulua da oraindik ere. Bertan, aurreko urteetan bezala arautzen da ordezte-tasaren kalkulua, ekitaldian zehar izandako langile finkoen alten eta bajen arabera.

Berrikuntza gisa, 2023an, artikulu horretan, zehazki Bi.4 puntuan, honako hau sartu zen:

"Administrazio bakoitzak, aparteko izaeraz, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako helburua betetzeko beharrezkoa den tasa espezifiko bat baimendu ahal izanen du, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna ez dadin izan bere eremu bakoitzeko egiturazko plazen % 8 baino handiagoa, betiere, izan beharko duen urte anitzeko plangintza-tresnaren arabera justifikatuta badago".

Erregulazio horren ondorioz, ohiko ordezte-tasa bat definitu da, 756 plazatan kuantifikatu dena eta lan eskaintza partzialei buruzko foru dekretu hauetan arautu:

- Administrazio Errorako 115/2024 Foru Dekretua: 294 plaza.
- Hezkuntzarako 116/2024 Foru Dekretua: 279 plaza.
- Osasunerako 117/2024 Foru Dekretua: 183 plaza.

Gainera, eremu bakoitzarentzat ordezte-tasa espezifiko bat ere definitu da, 668 plazatan kuantifikatu dena eta lan eskaintza partzialei buruzko foru dekretu hauetan arautu:

- Administrazio Errorako 118/2024 Foru Dekretua: 175 plaza.
- Hezkuntzarako 119/2024 Foru Dekretua: 250 plaza.
- Osasunerako 120/2024 Foru Dekretua: 243 plaza.

Beraz, 2024ko egoera, koadro honetan biltzen dena da:

LEP	Administrazio erroa	Hezkuntza	Osasuna	Guztira
Ohiko ordezte-tasa	294	279	183	756
Ordezte-tasa espezifikoa	175	250	243	668
Guztira	469	529	426	1.424

Taulan ikus daitekeenez, plazen % 37 Hezkuntzari dagozkio, % 33 Administrazio Erroari eta gainerako % 30a O-NOZi.

- Aztertu dugu legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten dagozkion plazak ohiko ordezte-tasan sartzeko, eta emaitza zuzena da.

- Ordezte-tasa espezifikoaren aplikazioari dagokionez, tasa horri buruzko enplegu-eskaintza partzialak onesten dituzten dekretuen hitzaurrean adierazten da lanpostuen proposamena plantillaren azterketa egin eta NFKAko funtzionarioen eta estatutupeko langileen negoziazio-mahai orokorrarekin negoziatu ondoren egiten dela. Gainera, lanpostu huts gisa ageri dira horiek guztiak plantilla organikoan, eta horiek betetzeko aurrekontu-zuzkidura nahikoa dute.

Foru dekretuetan, ordezte-tasa espezifikoko LEPeko plazak definitzeko egindako prozesua azaltzen da. Foru dekretuen arabera, ordezte-tasa espezifikoko LEPeko plazak definitzeko, sartzen dira deialdi berririk ez duten lanpostuetan hutsik dauden plaza guztiak edo plantillan duten ordezkaritza handia dela-eta laster finkatzea beharrezkotzat jotzen direnak.

Tasa hori aukerakoa da, eta beharrezkoen jotzen diren plazetarako deialdia egiteko aukera ematen du, erabakia berariaz tasatutako baldintzak betetzearen mende egon gabe, ohiko ordezte-tasaren kasuan bezala.

Horren guztiaren emaitza 668 plazako LEP bat da: 175 lanpostu Administrazio Erroan, 243 lanpostu Osasunean eta 281 lanpostu Hezkuntzan.

Ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako LEPen egoera, eremuz eremu, honako taula hauetan laburbiltzen da:

Administrazio Erroa	2023an deitzeke zeuden plazak	2024an eskainitako plazak	2024an deitu eta oraindik ebatzi gabe dauden plazak	Aldaketak*	2024an deitzeke zeuden plazak
2021eko LEPa	57	-	43	-14	-
2022ko ordezte LEPa	136	-	45	-1	90
2023ko ordezte LEPa	306	-	81	-1	224
2023ko ordezte espezifikoko LEPa	601	-	21	-2	578
2024ko ohiko ordezteko LEPa	-	294	-	-	294
2024ko ordezte espezifikoko LEPa	-	175	1	-3	171
Guztira	1.100	469	191	-21	1.357

* LEPen kudeaketatik eratorriak, adibidez eszedentzian dauden langileak lanean hastea.

Osasuna	2023an deitzeke zeuden plazak	2024an eskainitako plazak	2024an deitu eta oraindik ebatzi gabe dauden plazak	Aldaketak*	2024an deitzeke zeuden plazak
2022 arteko LEPak	246	-	192	-19	35
2023ko LEPa	484	-	461	1	24
2024ko LEPa	-	426	36	-4	386
Guztira	730	426	689	-22	445

* LEPen kudeaketatik eratorriak, adibidez eszedentzian dauden langileak lanean hastea.

Hezkuntza	2023an deitzeke zeuden plazak	2024an eskainitako plazak	2024an deitu eta oraindik ebatzi gabe dauden plazak	2024an deitzeke zeuden plazak
2022ko ordezte LEPa	93	-	93	-
2023ko ordezte LEPa	281	-	226	64
2023ko ordezte espezifikoko LEPa	290	-	154	127
2024ko ordezte LEPa	-	279	-	279
2024ko ordezte espezifikoko LEPa	-	250	-	250
Guztira	664	529	473	720

Horiek horrela, hona hemen LEPen egoeraren laburpena, jarduketa-eremuaren arabera:

LEP	2023an oraindik deitu gabe	2024ko LEPa	2024an deituak	Erregularizazioa	2024an oraindik deitu gabe
Erroa	1.100	469	191	21	1.357
Osasuna	730	426	689	22	445
Hezkuntza	664	529	473	0	720
Guztira	2.494	1.424	1.353	43	2.522

Administrazio Erroak du oraindik ere deitu gabe dauden plazen kopuru handiena.

Jarraian, eskainitako lanpostuen eta plantilla organikoan dauden lanpostu hutsen arteko konparazioa aztertuko dugu. Honako hauek dira datuak:

Plazak	Kopurua
Plantilla organikoko plazak 2024an	26.778
Justizia Administrazioko plazak	575
Plantilla organikoko plazak Justizia Administrazioa kontuan hartu gabe*	26.203
Hutsik ez dauden plazak	19.786
Deitu daitezkeen hutsik dauden lanpostuak	6.417

*Plaza horien behin-behinekotasuna murrizteko gaitasuna ez du NFKAk, Justizia Ministerioak baizik.

Horrek esan nahi du 6.417 plaza hutsik daudela betetzeko, plantilla organikoko lanpostuen % 24.

Hau da hutsik dauden lanpostuen egoera, argitaratutako LEPen arabera:

Esleitutako LEPik gabeko lanpostu hutsak		1.885
Esleitutako LEPa duten lanpostu hutsak		4.532
	Deialdia egiteko zain	2.522
	Aribidean	1.991
	Beste batzuk	19
Plantilla organikoko lanpostu hutsak guztira, Justizia Administrazioa kontuan hartu gabe		6.417

Hau da, plantillan hutsik dauden plazen % 71, arestian aipatutako prozesuren batean murgilduta daude, eta horrek esan nahi du gainerako % 29a (1.885 plaza) etorkizuneko LEPetan sartzeko moduan daudela.

Behin egonkortze prozesuak amaitu ondoren, behin-behinekotasun datua egiaztatu dugu. Prozesu horien helburua zen 2024ko abenduaren 31n % 8ra murriztea egiturazko behin-behinekotasuna, hau da, aldi baterako langileek betetzen dituzten egiturazko lanpostuak. Emaitza honako hau izan da:

Egonkortze-prozesua	2021	2022	2023	2024
Egiturazko behin-behinekotasun tasa	% 27	% 27	% 20	% 16

NFKAk ahalegin esanguratsua egin du, eta, hala, behin-behinekotasun tasa % 27tik % 16ra murriztu du.

Nahiz eta ez duen bete % 8an kokatzeko legezko aurreikuspena, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko 2021eko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak ezarri bezala, beharrezkoa da kontuan hartzea 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/22 Legearen 20. artikulua, aurretik ere aipatu duguna eta ezohiko izaeraz tasa espezifiko bat gaitu zuena helburu honekin: "*enplegu publikoko behin-behinekotasuna ez dadin izan egiturazko lanpostuen % 8 baino handiagoa bere eremuetako bakoitzean*". Lehen aipatu dugun bezala, NFKAk neurriak hartu ditu 2023an eta 2024an, eskatutako behin-behinekotasun tasa lortzen saiatzeko.

Dena den, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

a) Landa-lanean ikusi da egonkortze-prozesuek azkenean hutsik geratu diren adjudikazioak eragin dituztela, besteak beste, titularra lanpostu bat baino gehiagoren adjudikaziodun izan delako, edo aldi baterako kontratua zuen aurreko lanpostura itzuli delako. Mugimendu horiek agerian uzten dute egonkortze-prozesuen zailtasuna; izan ere, hutsik ez dauden lanpostuak diren arren, behin-behinekotasuna baitago oraindik titularrak ez duelako bere lanpostuan jarduten.

Era berean, zenbait kasutan, lanpostu hutsak beste plaza baten titular ziren pertsonek bete dituzte, eta horrek beste lanpostu huts bat ekarri du. Horrek esan nahi du lanpostu huts bat

betetzeak beste lanpostu huts bat sortzen duela, etorkizuneko LEPetan argitaratu arte, aldi baterako langileekin bete beharko dena.

b) Gerora, horrelako egoerak mugatzeko, 2025eko maiatzean, maiatzaren 7ko 1/2025 Foru Lege Dekretua onetsi da[17], zeinak, besteak beste, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 26. artikulua aldatzea xedatzen baitu[18], eta, hala, ezartzen du nahitaezkoa dela lanpostuaz jabetzen denetik gutxienez bi urtez zerbitzu aktiboan egotea borondatezko eszedentzia eskatu aurretik.

NFKAko langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa

2020-2024 aldiko langile finkoen alten eta bajen kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazioko behin betiko bajak), eta honako hauek dira emaitzak:

	2020	2021	2022	2023	2024	Guztira
Altak:	620	387	892	1.273	914	4.086
Hezkuntza	502	110	576	754	278	2.220
Osasuna	44	139	242	287	329	1.041
Administrazio Erroa	74	138	74	232	307	825
Bajak:	621	657	686	673	686	3.323
Hezkuntza	246	321	244	332	238	1.381
Osasuna	234	200	244	174	276	1.128
Administrazio Erroa	141	136	198	167	172	814
Aldakuntza garbia (altak – bajak)	-1	-270	206	600	228	763

Ikusten da, aldakuntza garbi positiboa dagoela 2020-2024 aldian, 763 pertsonarena; kontuan izan behar da joera negatiboa aldatu egiten dela 2022tik aurrera. 2022koa izan zen altek bajak gainditu zituzten lehen ekitaldia, eta joera hori nabarmen igo zen 2023an, ondoren 2024an moteldu egin zen arren.

Halaber, lortu dugu 2020-2024 bitarteko urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langile finkoen eta aldi baterako langileen datua, NFKA osoan data horretan izandako behin-behinekotasunaren indizea[19] kalkulatzeko. Honako hauek dira emaitzak:

	2020	2021	2022	2023	2024
Egiazko langileak	31.743	32.130	31.869	32.540	33.133
Langile finkoak	14.683	14.957	15.728	17.212	18.614
Aldi baterako langileak	17.060	17.173	16.141	15.328	14.519
Langile finkoak/egiazko langileak (%a)	46	47	49	53	56
Aldi baterako langileak/egiazko langileak (%a)	54	53	51	47	44

Ikus daitekeenez, 2024an langile finkoen indizeak gora egin zuen aurreko ekitaldiekin alderatuta, behin-behinekotasun-indizearen kaltetan. Halaber, adierazi beharra dago 2020ko eta 2021eko ekitaldietako balioetan balitekeela eragina izatea COVID-19aren ondorioz egindako aldi baterako kontratazioek.

[17] 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituena.
[18] 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
[19] Behin-behinekotasun honek barruan hartzen du premia iraunkorren eta unekoen ondoriozkoa.

Aurreko informazioari dagokionez, abenduaren 31n lanean ari ziren baina 2022-2024 aldira mugatuta zeuden NFKAren eremuko langileen sailkapena honako hau da:

	Langile finkoak			Aldi baterako langileak			Langileak guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Erroa	5.935	6.253	6.658	6.028	6.176	5.888	11.963	12.429	12.546	% 50	% 50	% 47
Hezkuntza	5.460	6.506	7.236	7.872	6.911	6.463	13.332	13.417	13.699	% 59	% 52	% 47
O-NOZ	4.333	4.453	4.720	2.241	2.241	2.168	6.574	6.694	6.888	% 34	% 33	% 31
	15.728	17.212	18.614	16.141	15.328	14.519	31.869	32.540	33.133	% 51	% 47	% 44

Ikusten da 2022ko ekitalditik pixkanaka behera egiten ari dela hiru jarduketa-eremuetan.

Aurreko taulako informazioari dagokionez (Justizia Administrazioko langileak kenduta, lanpostu horietan jardutea Justizia Ministerioari baitagokio), pertsona horiek lanean ari diren plaza motei buruzko informazioa sartu dugu, plantillakoak diren edo plantillatik kanpokoak diren kontuan hartuta.

Langileak	Finkoak	Aldi baterakoak	Guztira	Finkoen %	Aldi baterakoen %	Guztira
Plantilla organikoko plazak	16.649	7.451	24.100	91	53	74
Plantilla organikotik kanpoko plazak	1.632	6.720	8.352	9	47	26
Guztira	18.281	14.171	32.452	100	100	100

Hau da, 32.452 pertsona daude lanean 2024ko abenduaren 31n. Denborazkotasun-irizpideari jarraiki, langile finkoen % 91 plantilla organikoko plazetan daude, eta % 9 plantilletatik kanpoko plazetan. Aurreko ekitaldian, datu horiek % 93 eta %7koak ziren.

Alde baterako langileen % 53 plantillako plazetan daude, eta gainerako % 47a plantilletatik kanpoko plazetan.

Langile guztiak aintzat hartuta, % 74 plantillako lanpostuetan ari dira lanean, eta % 26 plantillatik kanpoko lanpostuetan.

Azterketa honen alderdi garrantzitsuenak honako hauek dira:

- 8.352 pertsona, hau da, langileen % 26, plantillatik kanpoko lanpostuetan ari dira lanean.
- Pertsona horietatik, % 48 irakasle-plazei dagozkie, eta % 14 O-NOZi.

Osasun eta hezkuntza arloetako aldi baterako kontratazioari dagokionez, nabarmendu behar da funtsezkoa dela hezkuntza eta osasun sistemaren beharrei erantzuteko. Hezkuntza sistemaren funtzionamenduaren berezko dinamismoak, bai eta langileak nahitaez ordezkatu behar diren egoerek ere, hezkuntza eremuan zein osasun eremuan, langile premien zati handi baten aldakortasuna dakar.

Bestetik, 2020-2024 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte bakoitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

Adina	2020		2021		2022		2023		2024	
	Langileak	Guztizkoarekiko %	Langileak	Guztizkoarekiko %	Langileak	Guztizkoarekiko ehunekoa	Langileak	Guztizkoarekiko %	Langileak	Guztizkoarekiko %
30 urte baino gutxiago	194	% 1	226	2	324	2	290	2	381	2
31 eta 40 artean	1.511	% 10	1.617	11	2.001	13	2.428	14	2.676	14
41 eta 50 artean	4.661	% 32	4.755	32	4.901	31	5.416	31	5.730	31
51 eta 55 artean	3.090	% 21	2.981	20	3.020	19	3.199	19	3.474	19
55 urtetik gorakoak	5.227	% 36	5.378	36	5.482	35	5.879	34	6.353	34
Langile finkoak guztira	14.683	% 100	14.957	100	15.728	100	17.212	100	18.614	100
Batez besteko adina	50		50		50		49		49	

Azpimarratzekoa da 55 urtetik gorako langileak % 35 inguru direla aztertutako aldian. 2023koa da batez besteko adina 50 urtetik behera jaisten den lehen ekitaldia.

Azken batean, NFKAk dauden lanpostu hutsak betetzeko beharrezko neurriak hartzen jarraitu behar du, ahal den neurrian enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murriztuz egiturazko plazetan.

Langileen gastuaren egiaztapenak

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (bertan egiten dira nominak) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE21 sisteman erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gainera, automatikoki egiaztatu dira NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langileen 1. kapituluari egotzitako 2024an sortutako nomina gastuak, kostu soziala izan ezik, 2025ean ekainera arte ordaindutako 2024ko atzeraeraginak barne.

Horretarako, gastu horiei dagokienez, kontzeptu eta enplegatuen aukeraketa bat aztertu da, zehazki, nominari buruzko 32 kontzeptu[20], 36.528 pertsonari dagozkienak, 853 milioiko zenbatekoarekin guztira eta gastu horien zenbateko osoaren % 61,74 direnak. Egiaztatu dugu kobrantza zuzena dela eta langilearen lanpostuari dagokiola, gorabehera nagusi hauengatik izan ezik, esanguratsuak ez direnak baina minimizatu beharreko arriskuak adierazten dituztela uste dugunak:

- Langileen lanpostuei edo unitateei arrisku-osagarria esleitzean egindako aldaketetan, ez da beti dagokion ordainsaria birkalkulatzen.

- Sistemak aukera ematen du langile bati zenbait plaza aldi berean esleitzeko, bai eta bi plazaren osagarriak kobratzekoa.

Egindako probetan antzeman ditugun desberdintasun ez esanguratsuak, Funtzio Publikoari jakinarazi dizkiogu, eta, ondoren, ukitutako langileen nominetan zuzendu dira.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

[20] Berrikusitako kontzeptuek lanpostuari lotutako osagarri gehienak hartzen dituzte, batez ere: soldata, maila, lanpostua, esklusibotasuna, bateraezintasuna, zuzendaritza-postua, zuzendari irakaslea, irakasle espezifikoa, destinoa, espezifikoa, fakultatiboen produktibitate finkoa, arriskua, txandakotasuna eta lanaldiaren luzapena. Halaber, gradua eta antzinatasuna aztertu dira.

● *Ahal den neurrian, lanpostuei edo unitateei lotutako arrisku-osagarrian aldaketak egiteko atzeraeraginezko aplikazioa automatizatzea enplegatuarengan.*

● *Langileak bere plazarekin dituen lotura moten gaineko kontrola ezartzea (finkoa, aldi baterakoa, erreserba, irakasle kargua eta beste), aldi berean onargarriak badira.*

Langileen absentziak

Apartatu honetan egin dugun azterketa honako premisa hauetan oinarrituta dago:

● Langileen datuak langile baliokideei dagozkie: urte osoan zerbitzuak % 100ean eman dituzten langileen ordu teorikoak, nahiz eta hainbat pertsonaren okupazio partzialen baturatik lortu.

● Tableu plataformatik lortu da informazioa (datuen ustiapen masiboak egiteko aukera ematen duen emaitzak aztertzeko plataforma).

● Azterketan, aintzat hartu dira soilik osasun-arrazoien (lan-istripua/lanbide-gaixotasuna eta lanerako ezintasuna) eta beste zenbait arrazoi jakinen ondoriozko langileen absentziak[21] . Ez dira aintzat hartu oporren edo norberaren gauzen ondoriozko absentziak; izan ere, irakasleen eta justiziako langileen absentzia horiek ez dira erregistratzen SAPRRHH tresnan, eta, beraz, informazioaren tratamendua ez zen homogeneoa izanen, eta informazioa desitxuratu eginen zen.

Hurrengo taula honetan, 2024ko okupazio, absentzia eta absentzia-tasa datuak jaso ditugu:

Estamentua	Okupazioa	Absentzia			Tasa		
		Ezintasun/gaixotasun profesionala	Beste batzuk	Absentzia guztira	Ezintasuna/Gaixotasuna	Beste batzuk	Absentzia guztira
Aldi baterakoak	157,29	0,68	0,42	1,10	0,43	0,26	0,70
Administrazioa	7.535,91	487,63	166,82	654,44	6,47	2,21	8,68
Sanitarioak	10.388,77	673,72	365,18	1.038,90	6,49	3,52	10,00
Irakasleak	10.346,08	592,83	328,15	920,99	5,73	3,17	8,90
Poliziak	1.155,04	69,01	48,15	117,16	5,97	4,17	10,14
Suhiltzaileak	583,51	15,37	9,02	24,39	2,63	1,55	4,18
Justizia	630,39	35,85	11,58	47,43	5,69	1,84	7,52
Guztira	30.796,98	1.875,10	929,32	2.804,42	6,09	3,02	9,11

2024an absentziak (oporren eta norberaren gauzen ondoriozkoak kontuan hartu gabe) 2.804,42 pertsona baliokidekoak izan ziren. Arrazoi medikoen ondorioz izan ziren % 67 (1.875,10), eta % 33 (929,32) beste arrazoi batzuen ondorioz. Emaitza % 9,11ko absentzia-tasa totala da, hau da, 2024an, kontratatutako 100 pertsonako 9,11k lanera huts egin zuten absentzien ondorioz. Tasa banakatuta, 6,09 osasun-arrazoiekin lotuta izan ziren, eta 3,02 beste arrazoi batzuekin.

Estamentuka, poliziak eta osasun-langileak dira absentzia-tasa handiena dutenak. Bestalde, absentzia-tasa txikiena aldi baterako langileek eta suhiltzaileek dute.

2024an datuak testuinguruan kokatzeko, 2019-2024 aldiko datuak aztertu ditugu. Hurrengo taulan 2019tik 2024ra bitartean egon den aldakuntza islatzen dugu:

[21] Amatasuna/aitatasuna, beste absentzia batzuk, ordaindu gabeko baimena, familia-arrazoiak, guardiagatiko/proba fisikoengatiko librantza, ezkontzagatiko lizentzia, enplegua banatzeko baimena, baimen sindikala, greba eta konpentsazioak.

	2019	2024	Aldakuntza (%) 2024/2019
Okupazioa	26.929,60	30.796,98	14,36
Ezgaitasun/gaixotasun profesionalen ondoriozko absentziak	1.458,51	1.875,09	28,56
Beste arrazoi batzuen ondoriozko absentziak	834,93	929,32	11,31
Absentziak guztira	2.293,44	2.804,41	22,28
Ezgaitasun/gaixotasun profesionalen ondoriozko absentzia-tasa	% 5,42	% 6,09	12,42
Beste arrazoi batzuen ondoriozko absentzia-tasa	% 3,10	% 3,02	-2,67

Ondorio hauek ateratzen dira analisi horretatik:

- Enplegatutako pertsona baliokideak % 14,36 hazi ziren 2019-2024 aldian. Enplegatuen hazkunde handiena izan zuten estamentuak irakasleak eta aldi baterakoak izan ziren.

- 2019 eta 2024 artean, langileen absentziak % 28,56 handitu ziren arrazoi medikoengatik, eta % 11,31 beste arrazoi batzuengatik.

- 2019an, enplegatutako pertsonen % 8,52k huts egin zuten lanera, eta 2024an, berriz, % 9,11k –arrazoi medikoengatik % 6,09k eta beste arrazoi batzuengatik % 3,02k , hau da, % 6,92 gehiagok–.

5.5 KONTRATAZIO PUBLIKOA

Plangintza

Argi dago kontratu-jarduera gauzatzeak plangintza egoki batetik abiatu beharra dakarrela. Horren garrantziaren froga da plangintza gure ordenamendu juridikora eraman dela, legez eska daitekeen betebehar gisa. Zehazki, Kontratu Publikoei buruzko 2018ko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak berak (aurrerantzean KPFL), 2. artikuluan, berariaz ezartzen du honako hau:

"Foru lege honen mendeko entitateek programatu eginen dute kontratazio publikoaren jarduera, zeina aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko epeetan garatuko baitute, eta aldez aurretik jakinaraziko dute beren kontratazio-plana, beren aurrekontuen onespenarekin batera, eta hori, alde batera utzirik aurretiazko informazioaren iragarkia, 90. artikuluan aurreikusia".

2024rako aurrekontuen memoria 13 ataletan egituratzen da, eta, hain zuzen ere, azkenak jasotzen du "Kontratuen plangintza" informazioa, lehen aipatutako KPFLren 2.5 artikulua betez. Egindako berrikuspenetik egiaztatu dugu dokumentazioa aurretiazko informazioaren iragarkien zerrenda batean oinarritzen dela, eta unitate kudeatzaileek Kontrataziorен Atarian argitaratu dutela.

Informazio hori KPFLk eskatutako plangintzaren adierazgarria den egiaztatzeko, Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman 2024an eta aurreko bi ekitaldietan argitaratutako lizitazioekin alderatu dugu. Emaitzak hurrengo atal hauetan laburbiltzen dira:

- Espediente-kopuruaren arabera, honako hau da emaitza:

2022			2023			2024			2022-2024 aldia		
P	L	%	P	L	%	P	L	%	P	L	%
85	421	% 20	61	464	% 13	121	472	% 26	267	1.357	% 20

P: Plangintza Memorian.
L: Lizitazioak Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman.

Taulan ikusten denez, 2024ko ekitaldian, lizitatutako kontratuen % 26an baino ez da agertzen "Kontratuen plangintza" informazioa, hau da, KPFLn eskatzen den dokumentua. 2022-2024 aldian, % 20an bakarrik.

Nabarmendu nahi dugu honako departamentu hauek ez dutela aurkeztu kontratuak planifikatzeko inolako dokumentaziorik:

- Lurralde Kohesiorako Departamentua
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
- Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua

• Espedienteen balio zenbatetsiaren arabera, honako hau da emaitza:

2022			2023			2024			2022-2024 aldia		
P	L	%	P	L	%	P	L	%	P	L	%
691,69	1.025,36	% 67	43,54	923,31	% 5	266,98	735,10	% 36	1.002,21	2.683,77	% 37

P: Plangintza Memorian.
L: Lizitazioak Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman.

Aurreko taulatik ondorioztatzen denez, 2024ko ekitaldian, hasitako lizitazioen balio zenbatetsiaren % 36 planifikatu da, eta, aztertutako aldian, % 37. Datu horrek, espediente-kopuruak ez bezala, alde handiagoak agertzen ditu.

Kontratazio publikoa behar bezala planifikatzeak ondorio positiboak sortzen ditu funtsezko alderdietan, hala nola gardentasunaren berme handiagoa, kontratazio publikoaren erabilera estrategikoa eta kontratazio-prozeduren erabilera egokia. Halaber, kudeaketaren arloan, baliozko adierazleen ezarpena eta kontratu-jardueraren betetze maila neur dezake, bai eta gertatutako desbideratzeak aztertu ere, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, lege-aurreikuspenak modu zabalagoan betetzeaz gain, kontratazio publikoaren kudeaketa etengabe hobetzea ahalbidetuko duen plangintza egitea gomendatzen da.

Gardentasuna

Nafarroako Kontratazioren Atarian aztertu da kontratazioaren gardentasunaren betetze maila, KPFLren 88. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 23. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ikuspegi zabalagoa eskaintzeko, 2021-2024 ekitaldiak aztertu ditugu, eta, lanaren dimentsioagatik, azterketa egin ahal izateko, funtsezko premisa honako hau izan da: kontratazio-espedienteei lotutako datuak masiboki deskargatzeko prozesuak egitea, bai Nafarroako Kontratazioren Atarian argitaratzen direnak, bai kudeatzaileen datu baseetan argitaratzen direnak. Behin datuak lortu ondoren, tratamendu eta prozesamendu bateratua egin da.

Horretarako, aipatutako aldian luzatutako, aldatutako eta amaitutako kontratuei buruzko informazioa eskatu zitzaien departamentuei eta erakunde autonomoei, Nafarroako Kontratazioren Atarian argitaratutako informazioarekin alderatzeko. Nafarroako Kontratazioren Atariari dagokionez, gure “Kontratazio publikoaren arriskuen analisia (2019-2023)” txostenean[22], ahultasun esanguratsuak utzi genituen agerian bai informazioaren esportagarritasunari dagokionez, bai eta Nafarroako Kontratazioren Atarian nahitaez argitaratu beharreko informazioaren osotasunari dagokionez ere. Ildo horretan, Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du Kontratazioren Atari berri bat lantzen ari direla, eta 2027ko lehen seihilekoan ezartzea aurreikusten dela.

NFKAk espedienteak kudeatzeko tresna bat du, Extr@ izenekoa, eta bertan kontratazio-espedienteak kudea ditzake. Extr@ tresnan kudeatutako kontratazio-espedienteen kasuan, NFKAk berak, Erabiltzaileen Arreta Zentroaren laguntzarekin, txantiloi estandar bat egin zuen eskatutako datuekin, eta horri esker, aipatutako espediente-kudeatzailea erabiltzen zuten departamentu guztietarako erreplikatu ahal izan zen.

Extr@ tresnan kudeatzen ez diren gainerako kontratazio-espedienteen kasuan, eskatutako datuei buruzko informazioa eskatu zitzaien departamentuei, eta Excel formatuan bidali zizkiguten.

[22] 2024ko azaroaren 14ko txostena.

Informazio-iturri guztiak berrikusteko prozesuan, honako muga esanguratsu hauek aurkitu ditugu:

a) Departamentu guztiek ez dute Extr@ erabiltzen, eta, tresna hori erabiltzen duten departamentuen barruan ere, ez dute kontratu guztietarako erabiltzen.

b) Extr@ tresnan kudeatutako kontratazio-espedienteen barruan, "kontratuak aldatzeko" edo "luzatzeko" izapideak, batzuetan, eskuz egiten dira tresna horretatik kanpo, eta horrek informazioa Nafarroako Kontratazioren Atariarekin kontrastatzea eragozten du.

c) Extr@ tresnak oraindik ez du ezarrita kontratu bat amaitu dela zehazteko fluxua, eta, beraz, ezin izan dugu datu hori lortu.

d) Departamentuetatik jaso dugun informazioa osatugabea eta oso heterogeneoa izan da, eta, ondorioz, ezin izan dugu informazioa multzokatu, ezinezkoa baitzen datuen multzokatzean arrazoizko ziurtasuna lortzea.

Ganbera honek nabarmendu nahi du, espediente elektronikoa aurrerapen handia bada ere kontratazioaren kudeaketan, oraindik ez dela lortu organo kudeatzaileei zein organo fiskalizatzaileei informazio agregatua eta egituratua ematea ahalbidetuko duen datuen esportazio maila nahikora iristea.

Horregatik guztiagatik, modu masiboan esportatutako datuak aztertzeko teknikatik abiatuta, ezin izan dugu kuantifikatu luzatutako, aldatutako eta amaitutako kontratuei buruzko informazio guztia Nafarroako Kontratazioren Atarian argitaratzeko legezko betebeharraren betetze maila.

Aurreko guztiagatik, honako hau gomendatzen da: *Extr@ tresna, espedienteen kudeatzaile gisa, NFKA osoan nahitaez ezartzea aztertzea, Nafarroako Kontratazioren Atarian nahitaez argitaratu behar den informazioa modu automatizatuan sortu ahal izateko*.

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

"Salbuespenei buruzko informazio osagarria" 4. gehigarriaren 4.2 apartatuan zehaztu den bezala, fiskalizazio honetan egin dugun azterketa zabaldu egin da lehen aipatutako eskaera parlamentarioari erantzuteko, eta egin dugun berrikuspenaren konklusioak honako hauek dira:

- Arrazoiak

Kontratuetan –2024an ordaindutako gastuaren % 77, 2024ko ekitaldia ixtean metatutako gastu osoaren % 85 eta kontratuen gastuaren % 61 dagozkie–, ez da zehazten kontratu-euskarririk ez izatearen arrazoia. Kontratu kopuruari dagokionez, % 11 ez dira izapidetu langile faltagatik.

Lurralde Kohesiorako Departamentu, Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentua eta Osasun Departamentua dira egoera horren arrazoiei buruzko informazio gutxien eman dutenak.

- Egoeraren hasierako data

Kontratuak noiz amaitu diren kontuan hartuta, egoera honako hau da:

Hasierako urtea	2024ko gastua	Metatutako gastua	Kontratu kopurua	2024ko gastuaren %	Metatutako gastuaren %	Kontratu kopuruaren %
2014	1.906.129	11.389.464	14	1	2	7
2015	330.443	2.713.601	3	0	1	1
2016	32.224	237.782	2	0	0	1
2017	48.213.127	313.119.748	9	37	60	4
2018	4.103.260	25.631.578	1	3	5	0
2019	7.438.104	38.756.926	4	6	7	2
2021	13.982.588	49.425.883	14	11	10	7
2022	10.213.515	27.270.029	13	8	5	6
2023	28.020.430	35.549.422	45	22	7	21
2024	15.257.764	15.228.466	104	12	3	50
Ez dago jasota	19.441	19.441	1	0	0	0
Guztira	129.517.024	519.342.340	210	100	100	100

Taulan ikus daitekeenez, kontratuen % 71ren indarraldia azterketa-urtean edo aurrekoan amaitu zen, eta, iraungitako kontratuen % 7, egoera horretan 2014tik dago.

Zenbatekoei dagokienez, 2024ko gastuaren % 37 eta 2024ko abenduaren 31ra arteko gastu metatuaren % 60, 2017an iraungi ziren kontratuei dagozkie. Hona hemen kontratu horien zerrenda:

Kontratuaren izena	2024ko gastua	Metatutako gastua	Lizitazio aurreikuspena
Goizueta-Hernani emakida (NA-30)	51.907	368.242	2026/03/01
Etxeko dialisiko zerbitzuak	2.285.206	15.299.238	2025
Iruñeko, Lizarra-Tafallako eta Baztan-Bidasoa-Altsasuko osasun garraioa.	17.197.301	101.772.128	Enpresa publikoa
San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak.	27.939.525	188.104.688	Hitzarmen berezia
3. taldeko hondakinen kudeaketarako kontratua (AST)	22.210	137.876	Ez da zehaztu
3. taldeko hondakinen kudeaketarako kontratua (AST)	49.875	444.815	Ez da zehaztu
Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren mendeko zentroetan sortutako 3. taldeko hondakin sanitarioak kudeatzeko zerbitzua	79.556	2.624.214	Ez da zehaztu
Ubarmingo bidaiarien garraio-zerbitzua (Garraio Zerbitzuaren esku utzi da)	253.141	1.489.482	Ez da zehaztu
3. taldeko hondakinen kudeaketarako kontratua	334.407	2.879.065	Ez da zehaztu
Guztira	48.213.127	313.119.748	

Lehenengo kontratua Lurralde Kohesioari dagokio, gainerakoak Osasunari.

Adierazi behar da San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuei dagokien gastua, kuantitatiboki garrantzitsuena dena, Osasunaren eta Gizarte-zerbitzuen arloetako Itun Sozialak arautzen dituen azaroaren 16ko 13/2017 Foru Legeak eraentzen duela. Nabarmendu behar da itunak KPFLren aplikaziotik kanpo dauden negozio juridikoak direla (7.1. j artikulua). Aipatu 13/2017 Foru Legearekin bat, ituna azkendu ondoren, entitate, organo edo erakunde eskudunak bermatu behar du itunaren xede izandako zerbitzua ematen jarraituko dela.

- Lizitazio berriaren aurreikuspena

Departamentuek jakinarazi duten informazioaren arabera, egoera horiek erregularizatzeko aurreikuspenak honako hauek dira:

Erregularizazio aurreikuspenak	2024an ordaindutako gastua	2024/12/31 arte metatutako gastua	Kontratu kopurua
Berrikuspenaren datan esleitua	65.925.493	192.400.106	110
	% 51	% 37	% 49
Lizitazioa 2025erako aurreikusita	24.421.421	91.868.510	54
	% 19	% 18	% 25
Lizitazioa 2026rako aurreikusita	655.416	6.867.561	15
	% 1	% 1	% 7
Ez da lizitatuko	31.666.038	202.372.512	13
	% 24	% 38	% 6
Ez dago aurreikuspenik	6.848.657	32.889.271	34
	% 5	% 6	% 14
Kontratu-euskarririk gabe ordaindutako gastua guztira	129.517.024	526.397.960	226

Josefina Arregui Zentro Psikogeriatrikoari eta San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuei dagokienez, hitzarmen berezi bat izapidetzeko aukera aztertzen ari da, osasun arloko eta arlo soziosanitarioko lotura hitzarmen bereziak arautzen dituen 2022ko urtarrilaren 26ko 3/2022 Foru Dekretuarekin bat etorriz.

Azkenik, inolako aurreikuspenik adierazten ez den 23 kontratu daude –kontratuen % 10, 2024ko gastuaren % 5 eta gastu metatuaren % 5 osatzen dute–. Nabarmentzekoak dira Osasun Departamentuaren 13 kontratuak, horiengandik 6,54 milioi ordaindu baitira 2024an.

• Kontratu-euskarririk gabe jarraitzen duten kontratuak

Emandako informazioaren arabera, 89 kontratuk 2023ko egoera irregular berean jarraitzen dute, eta 2024ko abenduaren 31ra arte kontzeptu horregatik metatutako gastuaren % 93 osatzen dute.

Osasun Departamentua da 2024ra arte metatutako gastuaren % 82ren arduraduna. Zenbateko handienekoak honako hauek:

2024	Hasierako data	2024an ordaindutakoa	2024an metatutakoa
Josefina Arregui Zentro Psikogeriatrikoa	2019/01/01	1.986.081	10.475.424
Kogenerazio plantaren obra publikoaren emakida	2022/06/01	4.465.612	14.344.916
Etxeko dialisiko zerbitzuak	2017/01/01	2.285.206	15.299.238
Etxez etxeko arnas terapien zerbitzua	2018/01/01	4.103.260	25.631.578
San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak	2017/01/01	27.939.525	188.104.688
Tutera-Zangozako osasun-garraioa	2019/01/01	5.416.965	28.038.087
Iruñeko, Lizarra-Tafallako eta Baztan-Bidasoa-Altsasuko osasun garraioa.	2017/01/01	17.197.301	101.772.128
		63.393.950	383.666.059

Lehen esan bezala, San Juan de Dios Ospitaleko eta Josefina Arregi Zentroko zerbitzuetan hitzarmen berezi bat izapidetzeko aukera aztertzen ari dira. Garraio sanitarioaren prestazioak Bidean enpresa publikoari enkargatu zitzaizkion 2025ean. Planta kosortzailearen emakida kontratuan ez da adierazten noiz aurreikusten den lizitazioa, eta gainerako bietan lizitazio aurreikuspena 2025ean kokatuta dago.

• KPFLren 45.3. artikuluaren aldaketa

KPFLren 45.3 artikulua aldatu egin zen, eta, 2023ko urtarriletik aurrera, baldin eta epemuga heltzean kontratu berria formalizatu ez bada, aurreko kontratuaren legezko luzapena aurreikusten da prestazioaren jarraipena bermatzeko. Hala ere, kontratu baten azkentzea eta beste baten formalizazioa bat ez datozen kasuetan:

a) Kontratazio-organoak aurreikusterik ez zituen gertaerak egon behar dira tartean, adjudikazio-prozeduran jazotakoak.

b) Interes publikoko arrazoiak egon behar dira prestazioa ez eteteko.

c) Eta, hori guztia, bederatzi hilabeteko legezko luzapenarekin, kontratuaren baldintzak aldatu gabe, eta betiere kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizkoa amaitu baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

Bada, aipatutakoa aintzat hartuta, departamentuek emandako datuetan ez dago KPFLren 45.3 artikuluan aurreikusitako salbuespenaren aplikazioa justifikatzeko moduko informaziorik.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

• *Kontratazio beharrak garaiz eta behar bezala planifikatzea.*

• *Kontratazioari buruzko araudian legez aurreikusitako lizitazio eta esleipen prozedurak aplikatzea.*

- *Kontratazioa kudeatzen duten unitateei giza baliabide eta bitarteko nahikoak ematea, beren eginkizunak behar bezala egin ahal izateko.*

Erakunde instrumentalei egindako enkarguen araubidea

2023ko Kontu Orokorren gure txostenean, sozietate publikoetako zein fundazio publikoetako langile kopuruaren hazkundea agerian utzi genuen. Informazio horretatik abiatuta, txosten honetan berrikusi egin da NFKAk egiten dituen enkarguen araubidearen eta sektore publiko instituzionaleko langileen bilakaeraren eta egiten ari den kontrolaren arteko lotura.

Enkarguen araubidearen esparru juridikoa honako hauetan ezartzen da: KPFLren 8. artikulua; 23/2014 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko erakunde instrumentalei egin beharreko enkarguak arautzen dituena; eta Nafarroako Gobernuaren 2008ko apirilaren 14ko Erabakia, ezartzen dituena NFKAko eta haren erakunde autonomoetako organoek egiten dituzten espedienteen edukia eta egiten dituzten mandatuen kontrol araubidea.

Gure iritzia 2024koa dela alde batera utzi gabe, azterketa testuinguruan kokatu dugu, aurreko ekitaldietako informazioa sartuta. Lan teknika gisa, datuen tratamendu agregatura jo da, Nafarroako Kontratazioren Atariko datuak esportatuz eta datu horiek gurutzatuz CPENi eskatutako informazioarekin, departamentuei eskatutakoarekin (Extr@ tresnakoa edo Ganberak bidalitako galdetegiaren arabera landutakoa) eta aurrekontuko datuekin.

Hona hemen aurkitu ditugun mugak:

- Aurrekontua: Aurrekontuan ezin da modu fidagarrian identifikatu enkarguen aurrekontu gastua, partida generikoetan egozten diren enkarguak baitaude. Hori Nafarroako Aurrekontu Orokorrak egiten jarraibide ekonomiko eta teknikoen kontrakoa da, enkarguen partidek, izenean bertan, "enkargu" hitza eta dagokion enpresaren izena jasotzea exijitzen baitute[23].

- Extr@: Kontratazioren arloan esan dugun bezala, departamentu guztiek ez dute tresna hau erabiltzen. Era berean, departamentu bakoitzean, enkargu guztiak ez dira Extr@ tresnatik izapidetzen, eta, beraz, aztertutako informazioa ez da osoa.

- Departamentuek bidalitako galdetegiari erantzunez landu duten informazioa osatugabea eta oso heterogeneoa izan da, eta, ondorioz, ezin izan dugu informazioa multzokatu, ezinezkoa baitzen datuen multzokatzean arrazoizko ziurtasuna lortzea.

- Nafarroako Kontratazioren Ataria: Kontratuen eta enkarguen publizitaterako tresnak muga esanguratsuak ditu datuak kontsultatzeari eta ateratzeari dagokionez, "Kontratazio publikoaren arriskuen analisia (2019-2023)" txostenean adierazi genuen bezala. Enkargu kopuruari eta zenbatekoari buruzko informazioa lortzeko aukera gorabehera, ezin dira zenbait funtsezko datu atera, hala nola "Enkarguaren izena" eta enkarguaren formalizatze data. Bestalde, enkargu guztiak ez dira atari horretan argitaratzen.

Era berean, erakunde instrumentalen identifikazioa diskrezionala da, eta horrek erakunde berak izen desberdinak izatea dakar[24]. Gainera, enkarguen argitalpenetan bikoizketak gertatzen dira, eta ez dago irizpide zehatzik aurreko enkarguen luzapenak eta aldaketak argitaratzean. Horren ondorioz, datuaren kalitateak ez du ahalbidetu Nafarroako Kontratazioren Atariaren, NFKAren eta CPENen informazioa behar bezala gurutzatzea, eta, beraz, ezin gara azterketa biribil batera iritsi. Gardentasuna ez da soilik argitaratzea, bilaketa eta esportazioa erraztea ere bada, bai eta informazioa osoa, zehatza, baliozkoa eta bakarra dela ziurtatzea ere.

Muga horiek eragotzi egin digute enkargu kopuru zehatza eta dagokion gastua zehaztea.

[23] Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren azaroaren 24ko 82/2023 Foru Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak prestatzeko egutegia nahiz jarraibide ekonomiko eta teknikoak.

[24] Adibidez, GAN (Gestión Ambiental de Navarra SA) sozietate publikoaren kasuan, 39 izendapen desberdin aurkitu ditugu: akronimoa, izen osoa, letra larriz, azentuz, azenturik gabe, euskaraz...

● Erakunde instrumentalaren izaera aitortzea, lehen adierazi den bezala, KPFLren 8. artikuluan ezartzen da, eta haren erregelamendu bidezko garapena, gaur egun indarrean dagoena, otsailaren 19ko 23/2014 Foru Dekretuan.

Foru dekretu horretan ezartzen da erakunde instrumentalaren izaeraren aitorpenak lau urteko indarraldia izango duela. Epe hori beste aldi batzuetarako berritu daiteke, edo, inguruabarrak aldatzen badira, ezeztatu. Sozietate publiko gehienek erakunde instrumental gisa zuten azken aitorpena 2020an amaitu zen, eta data horretan berritu behar ziren, edo, bestela, erakunde instrumental gisa zuten izaera ezeztatu behar zen.

Bestalde, kontuan hartu behar da 1/2020 Foru Lege Dekretua, martxoaren 18koa, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko premiazko neurriak onesten dituena, Hirugarren Xedapen Gehigarrian honako hau ezartzen baitzuen:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentalen deklarazioen indarra.

Luzatu egiten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentalen deklarazioen indarra, deklarazio horien epemuga arrunta hurrengo hilabetetan gertatzekoa den kasuetan, harik eta onesten den arte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentalak arautzeko foru dekretua, zeina egun izapidetzen ari baita.[25]

Bost urte igaro dira aipatutako foru lege dekretutik, pandemiak eragindako neurrien salbuespenezko izaera desagertu egin da jada, eta txosten hau egin den egunean, ez da foru dekretu berria onetsi.

● KPFLren 8. artikuluak exijitzen du enkarguaren hartzailea den erakundearen jardueren % 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek berek kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Jarduketa baldintzaren egiazko betetzea[26] enkargua jaso duen erakundearen urteko kontuen parte den memorian jaso beharko da, eta, horrenbestez, urteko kontuen gaineko auditorian egiaztatu beharko da.

Informazio hori CPENek kontratatutako auditoretza-enpresak berrikusi du, eta egiaztatu da erakunde instrumental izateko baldintzak betetzen dituztela aitorpen hori duten sozietate publikoek.

● Enkarguen araubidera jotzeko sozietate jakin batzuen arrazoia, neurri handi batean, NFKAk sortzen du, eskura dituzten giza baliabideak ez baitira nahikoa izaera desberdineko jarduerak egiteko (laguntza teknikoko zerbitzuak, proiektuak gauzatzea, laguntzak kudeatzeko laguntza eta beste).

Sozietate eta fundazio publikoetako langileen araubideari dagokionez, kontuan hartu behar da legeria bikoitza dagoela:

a) Lan-arloko legeria. Langileen estatutua, 2021eko lan erreformaren ondoren. Lan-kontratua denbora mugagaberako itundutzat jotzen da, baina kasu tasatuetan aldi baterako kontratatzeko aukerak daude.

b) Legeria administratiboa: Estatuko Aurrekontu Orokorren urteko legeetan ezarritako ordezte-tasen eta ordezte-tasa espezifikoen xedapenak. Gaur egun, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoak daude indarrean, gehigarri honen 5.5 apartatuan adierazi dugun bezala.

Zehaztu nahi dugu tasa espezifikoa baimentzeko Nafarroako Gobernuaren baimena behar dela[27], baina ez ohiko ordezte-tasetan oinarritutako gainerako aldi baterako kontratazioetarako edo kontratazio mugagabeetarako. Estatuko Administrazio Orokorrean, sozietate publikoetan langileak kontratatzeko aldez aurreko baimena eskatzen da, ordezte-tasa edo egonkortze-tasa edozein dela ere, bai eta prozesuan Funtzio Publikoko eta Aurrekontuetako arduradunek esku hartzea.

[25] Xedapen hau azken xedapenetako hirugarrenak mantentzen du indarrean.
[26] Aurreko hiru ekitaldiei dagokien informazioa sartu behar da.
[27] Baldintza betetzen dela egiaztatu dugu.

Sozietate publikoen jarduera handitu egin da, eta, CPENen iritziz, horrek egoera zailean jarri ditu bi legeriak betetzeko orduan. Era berean, adierazi du, aintzat hartuta Europako enkargu eta proiektuen igoera eta, oro har, sozietateetan gertatzen ari den lan hazkunde esponentziala, behar diren kontratazio berriak askoz handiagoak direla gertatzen diren pertsonen irteerak baino.

CPENen datuen arabera, 2024ko abenduaren 31n, sozietate publikoetako behin-behinekotasun indizea % 22,89koa zen plantilla osoan. Hurrengo bi urteetako behin-behinekotasun ehunekoak, Europako enkargu eta proiektu berriei erantzuteko langile berriak kontuan hartu gabe kalkulatzen dira. CPENek ondorioztatzen duenez, "*deskribatutako egoera legegileak berekin dakar sozietate publikoen esparruan gogoeta egin beharra lan legeria bere osotasunean aplikatzeari buruz, kontratuak desegitea barne, eta Nafarroako Gobernuak, enpresetako zuzendaritzek eta sozietateetako langile guztiek barneratu beharko dute egoera hori*".

Erakunde instrumentaletako langileek administrazio-prozedurak izapidetzen laguntzeko zereginetan parte hartzeari dagokionez (inoiz ez zehapen-prozeduretan), jurisprudentzian aldaketa esanguratsua egon da aurretik izandako posizio murriztailearekin alderatuta. Auzitegi Gorenaren 1613/2023 epaiaren ondorioz gertatu da: "*Lankidetza lan tekniko edo material zehatz eta espezifikoak egiteko ez ezik, esleitutako prozeduren kudeaketan eta izapidetzean laguntzeko ere balia daiteke, eta administrazio organoak beretzat gorde ditzake prozedura amaitzeko kontrola eta erabakia*".

Hala ere, epai horrek berak aukera hori zedarritzen du: "*Ezohiko egoera jakin batzuetan, eta esleitu zaizkion eskumenak betetzeko baliabide material edo tekniko egokirik ez duenean administrazio batek, eraginkortasun-arrazoiengatik, beste erakunde batzuekiko lankidetzara jo dezake, zehazki, Administrazioaren berezko bitartekotzat hartzen den Estatuko merkataritza-sozietate batekiko lankidetzara*".

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Onartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentalen gaineko foru dekretu berri bat.*

- *Aztertzea Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak eta Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak aldez aurreko kontrolak egiteko aukera, enpresa eta fundazio publikoetako langileen hazkunde onargarria kontrolatzeko, Estatuan egiten den antzeko baldintzetan.*

- *Enkargu guztiak berariaz identifikatzea aurrekontuan.*

- *Berrikustea Nafarroako Kontratazioren Atariko datuen esportazioa, bermatzeko informazio fidagarria eta segurua lortzea, bai eta informazioaren trazabilitatea segurua eta osoa izatea ere.*

5.7 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntetan egindako gastua 2.302,41 milioikoa izan zen 2024an, eta betebehar onartu guztien % 40 izan ziren. Gastu horiek % 1 egin zuten behera 2023koekin alderatuta (29,19 milioi), ondoren erakusten dugun bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	2023ko betebehar onartu garbiak	2024ko betebehar onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
Estatuko Administrazioari	911.730	832.269	-9
Fundazioei	13.409	16.320	22
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	120.961	128.882	7
Toki entitateei	421.542	429.907	2
Enpresa pribatuei	152.853	140.345	-8
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	711.148	754.652	6
Kanpora	54	35	-36
Guztira	2.331.696	2.302.409	-1

Ez dago aldaketa esanguratsurik termino absolutuetan. Murrizketa nabarmenena Estatuko Administrazioari egindako transferentzietan dago, Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako ekarpenarekin bat datorrena, eta horrek 79,46 milioiko murrizketa ekarri du.

Bestalde, enpresa pribatuei egindako transferentziak % 8 murriztu dira, batez ere Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan “Erregaien kontsumorako hobariagatiko” laguntzak pixkanaka murriztu direlako.

Familientzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako transferentziak % 6 igo dira, batez ere errenta bermatuaren eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren igoeragatik, 24,07 eta 7,47 milioi igo baitira, hurrenez hurren.

- 2023ko irailean, Ganbera honek txosten bat egin zuen “*Dirulaguntza izendunak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan (2019-2022)*” gaiari buruz. Txosten horretan, besteak beste, agerian geratu zen nabarmen handitu zela dirulaguntzen partida izendunak Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzea.

Kontu-hartzailetza delegatuak etengabeko kexak agertu dituenez, 2023ko eta 2024ko ekitaldietan izandako bilakaera aztertu du Ganbera honek, betiere 2024ko Kontu Orokorren testuinguruan.

Datuak honako taula honetan daude:

Jatorriaren arabera	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza 24/19	% 24/19
Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuaren proiektuan sartutako partiden kopurua	103	117	158	175	177	199	96	% 93
Nafarroako Aurrekontu Orokorretan talde parlamentarioen zuzenketen ondorioz sartutako partiden kopurua	55	121	152	241	262	291	236	% 429
GUZTIRA	158	238	310	416	439	490	332	% 210

Zenbatekoa aintzat hartuta, taula honetan ikus daitezke datuak:

(milakotan)

Zenbatekoa	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2019
Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan sartutako partiden kopurua	15.966	20.659	23.209	26.452	36.929	34.731	% 118
Nafarroako Aurrekontu Orokorretan talde parlamentarioen zuzenketen bidez sartutako partidak	14.044	9.261	12.725	14.717	16.087	17.507	% 25
GUZTIRA	30.009	29.920	35.934	41.170	53.015	52.237	% 74

Nafarroako Gobernuaren transferentziengatiko gastu totala aintzat hartuta, partida horien zenbatekoa % 2koa dela adierazi nahi dugu.

Bestalde, komenigarria litzateke zuzenketa parlamentario eskaerei aurrekontu-izapidea eman behar dieten departamentuek, norgehiagoka-araubideko deialdiak daudela jakinaraziko balute talde parlamentarioek eskatutako dirulaguntzaren helburuarekin bat datozenean.

Dirulaguntzen plan estrategikoak

Dirulaguntzen plan estrategikoek honako exijentzia honi erantzute diete: gastu publikoak efizientzia eta ekonomia printzipioei erantzutea, dirulaguntza guztiak helburu publiko bat lortzeko eman daitezen, dirulaguntza eta laguntza publikoak izanik administrazioek beren politika publikoak sustatzeko erabiltzen dituzten tresna garrantzitsuenetako bat.

2024ko ekainaren 19an egindako bileran, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 2024-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa berrikustea eta eguneratzea onetsi zuen.

2023ko kontu orokorrei buruzko txostenean, dirulaguntzen plan estrategikoei buruzko ohar jakin batzuk egin ziren jada, eta horiei lotzen gatzaizkie.

Dirulaguntzen plan estrategikoei dagokienez, adierazten dugu Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak uste duela dirulaguntzen plan estrategikoa ez dela benetako plan estrategikoa, ez baititu betetzen ebaluagarria izateko beharrezkoak diren egokitasun, garrantzi eta koherentzia irizpideak, eta, nolanahi ere, kasuan kasuko plan sektorialak ebaluatu daitezkeela, horietan kokatzen baitira dirulaguntzen plan estrategikoak zehazten dituen dirulaguntzak.

Horregatik guztiagatik, X. apartatuan jasotzen diren gomendioez gain, honako hau gomendatzen dugu:

Dirulaguntzen plan estrategikoak benetako plan estrategiko bihurtzea, ondoren ebaluazio xede izango dena.

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza eta tributu jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago. Hitzarmenak harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Estatuak Foru Komunitateari oraindik transferitu ez dizkiolako bere gain hartzen dituen zerbitzuen eta funtzioen truke Nafarroak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere, eta tributu-bilketaren doikuntzak egitekoa ere. Ekarpen hori bost urteko epeetarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

2024ko hitzarmenetik eratorritako aurrekontu-datuak eta 2023ko ekitaldiarekiko alderaketa taula honetan ikus daitezke:

(milakotan)

Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2023	2024
Estatuari egindako behin-behineko ekarpena	771.286	777.947
Aurreko ekitaldiko ekarpenaren behin betiko likidazioa	140.444	54.323
Hitzarmeneko gastuen partidak guztira	911.730	832.270
PFEZeko lanaren eta kapitalaren etekinen atxikipenengatiko doikuntza	146.576	133.626
BEZarengatiko doikuntzak	1.137.116	1.303.548
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-29.473	-349.599
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	6.273	5.963
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	14.881	13.521
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	89.373	73.197
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	-	-
Berrerabili ezin diren plastikozko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	6.394	13.437
Gas fluordunen gaineko zerga bereziagatiko doikuntza fiskala	867	860
Aldi baterako karga energetikoagatiko doikuntza fiskala	26.312	18.622
Kreditu erakundeen aldi baterako kargagatiko doikuntza fiskala	20.226	28.602
PFEZeko atxikipenen, BEZaren, zerga berezien eta gainerakoen ondoriozko doikuntzen guztizko partziala	*1.418.544*	*1.556.776*
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren diru-sarreretan	119	147
Hitzarmeneko diru-sarreren partidak guztira	1.418.663	1.556.923

Hurrengo taulan, Hitzarmenetik eratorritako finantza-fluxuak eta 2024ko azken saldoa jaso ditugu:

Doikuntza fiskalak		Zenbatekoa
Kobratzeke dauden doikuntzen saldoa		**1.375.926.771**
Beste diru-sarrera batzuk		146.744
Diru-ekarpena 2024	**A+B**	**564.938.665**
Ekarpen likidoa		832.269.330
Lanaren eta kapitalaren atxikipenengatiko doikuntzak		133.625.670
Ekarpen garbia 2024	**A**	**698.643.660**
Ordainketa-konpentsazioa		
SAAD		-25.793.998
Foruzaingoaren erretiro aurreratua		-3.650.683
2024. IMV		-57.036.538
Energia-kargaren aldi baterako partaidetza		-18.621.830
Kreditu-erakundeen aldi baterako partaidetza		-28.601.946
Guztira	**B**	**-133.704.995**
2024ko Nafarroa-Estatua finantza-fluxuen guztizko saldoa		811.134.850
Nafarroaren aldeko saldo garbia 2024an		677.429.856

Kapital-transferentziak

2024ko betebehar onartuek 300,21 euro egiten dute. Ekitaldiko betebehar onartu guztien % 5 egiten dute, eta % 16ko igoera (41,36 milioikoa) izan zuten 2023koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	2023ko betebehar onartu garbiak	2024ko betebehar onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
Fundazioei	3.282	4.059	% 24
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	21.811	35.119	% 61
Toki entitateei	83.929	69.405	-% 17
Enpresa pribatuei	68.596	79.527	% 16
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	81.040	111.899	% 38
Guztira	258.658	300.021	16

Termino absolutuetan, nabarmentzekoa da familientzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako transferentziak 30,86 milioi gehiago izan direla (% 38), batez ere etxebizitzak birgaitzeko jarduketen finantzaketa handitzearen ondorioz.

Bestalde, murrizketa bakarra tokiko erakundeei egindako transferentzietan ikusten da, batez ere inbertsio lokalen programak, zoladurak (sareekin), hornidura-sareak eta MRR funtsen ondoriozko mugikortasun jasangarriko jarduketak gutxiago gauzatzeagatik.

5.8. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Zergak

2024ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubideak 5.401,51 milioikoak dira, eta eskubideen guztizkoaren % 89 egiten dute. Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu zerga-figura bakoitzerako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	2023ko eskubide onartu garbiak	2024ko eskubide onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
PFEZ	2.091.120	2.310.067	10,5
Sozietateak	531.796	490.553	-7,8
Egoiliar ez direnen errenta	12.804	18.331	43,2
Ondarea	35.053	43.764	24,9
Oinordetzak eta dohaintzak	59.587	75.976	27,5
Banku-gordailuak	6.465	6.482	0,3
Energia-ekoizpenaren balioa	1.036	20.618	1889,7
Saltoki handiak	2.063	2.337	13,3
Loterietako eta apustuetako sariak	1.278	2.140	67,4
1. Zuzeneko zergak	**2.741.203**	**2.970.268**	**8**
BEZa	1.755.606	1.708.965	-3
Zerga bereziak	524.669	585.957	12
Aseguru primen gaineko zerga	32.952	36.950	12
Ondare eskualdaketak	58.253	67.790	16
Egintza juridiko dokumentatuak	17.618	16.559	-6
Joko-jarduerak	3.377	3.256	-4
Berotegi-efektuko gas fluordunak	1.571	1.500	-5
Finantza-transakzioak	3.214	315	-90
Zerbitzu digital jakin batzuk	7.441	3.416	-54
Zabortegiak ezabatzeko zergak	-	6.534	
2. Zeharkako zergak	**2.404.700**	**2.431.246**	**1**
	5.145.903	5.401.514	5

Azterketa egin ondoren, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Zergen bidez aitortutako eskubideak % 5 igo dira 2023aren aldean, 5.145,90 milioitik 5.401,51 milioira igaro baitira, eta horrek 255,61 milioiko hazkundea ekarri baitu. Zerga gehienetan egon da igoera neurri handiagoan edo txikiagoan, eta igoera garrantzitsuena PFEZarena izan da, 218,95 milioi (% 10,5). Aldiz, sozietateen gaineko zergak eta BEZak murrizketak izan dituzte, 41,24 milioi eta 46,41 milioi, hurrenez hurren.

- BEZari dagokionez, kontuan hartu behar da zerga horrengatik aitortutako eskubideak Nafarroaren zuzeneko kudeaketatik datozen edo Estatutik datozen, Hitzarmen Ekonomikoan zerga-figura horri buruz ezarritako doikuntzak direla-eta. Hona diru-sarrera horien jatorria banakatuta:

(milakotan)

Aitortutako BEZa	2022		2023		2024	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	253.031	16	618.490	35	405.417	24
Hitzarmeneko doikuntza	1.363.868	84	1.137.116	65	1.303.547	76
BEZa guztira	1.616.899	100	1.755.606	100	1.708.964	100

Hitzarmenean aplikatu beharreko metodologiaren arabera, urtetik urterako aldakuntzak gorabehera, ikusten da 2024an, besten behin ere, eskubide onartu gehienak Hitzarmenaren doikuntzen ondorioz sortzen direla.

• CAT sistematik kudeatutako eta globalki aurrekontu-likidaziora aldatutako itzulketak 1.820 milioi eurokoak izan dira; zenbateko hori % 0,6 handiagoa da 2023koa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien % 18 beste zor batzuekiko konpentsazioaren bidez egin dira.

Hurrengo taulan, 2024ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldian izandakoekin alderatuta:

(milakotan)

Zergen itzulketa[28]	2023	2024
BEZa (zuzeneko kudeaketa)	1.378.939	1.385.158
PFEZa	281.169	263.739
Sozietateak	130.608	149.509
Guztira	**1.790.716**	**1.798.406**

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketen bolumen handiena sortzen duena. 2024an guztizkoaren % 76 hartu du.

• Aurrekontu arruntean edo itxitako ekitaldietako aurrekontuan baliogabetutako edo ezeztatutako eskubideei buruzko informaziorik ez da jaso aurrekontuen exekuzioko memorian. Borondatezko aldian nahiz betearazpen aldian eskatutako zerga-itzulketei, geroratzeei edo zatikatzeei buruzko informaziorik ere ez da ematen.

Era berean, memorian ez da zerga garrantzitsuenetan izandako aldaketen arrazoiei buruzko nahikoa informazio jaso.


• 2015-2024 aldian metatutako inflazioa % 25,1ekoa izan da, gehigarri honen 5.2 apartatuan islatu dugun bezala. Zergaren tarifak zergadunen diru-sarrerak termino nominaletan zergapetzen dituenez, termino errealetan egin beharrean, prozesu inflazionista batek subjektu pasiboaren tributazio handiagoa eragiten du, bai errentak zergaren tarifaren tarte berean jarduten duenean, bai jauzi bat dagoenean PFEZaren tarifa progresiboaren goiko tarteetan.

NFKAk lau aldiz deflaktatu du PFEZa, 2020an, 2021ean, 2023an eta 2024an, lehen adierazitako prozesutik eratorritako zerga kargaren igoera zuzentzeko. Zerga deflaktatu arren, PFEZaren diru-sarrerek igoera nabarmena izaten jarraitzen dute, baita zerga guztien proportzioan ere, ondorengo taulan islatzen den bezala:

(milioitan)

Eskubide onartu garbiak	2.015	2.016	2.017	2.018	2.019	2.020	2.021	2.022	2.023	2.024	24/15 (%)
PFEZ	1.107	1.180	1.283	1.364	1.552	1.539	1.644	2.143	2.091	2.310	% 109
PFEZaren pisua zerga guztien proportzioan	% 36	% 37	% 35	% 38	% 39	% 42	% 39	% 44	% 41	% 43	% 20

[28] Diru-bilketa Zerbitzuaren txosten batean jasotako informazioa.



Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

• *Aurrekontua betetzeari buruzko memorian behar den informazioa jasotzea zerga-bilketaren prozesuan eragiten duten egoera guztiei buruz.*

• *Aurrekontuen exekuzioko memorian zerga esanguratsuenen (PFEZ, SZ eta BEZa) bilakaera azaltzeko beharrezkoa sartzea.*

Kontu orokorren memoriak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz. Honako hau da laburpena:

(milakotan)

Zergak	2024ko zerga-onuren aurrekontua	Emaitzak 2024	Gauzatze ehunekoa
PFEZa	439.307	496.374	113
Sozietateak	164.736	179.594	109
Ondarea	26.898	29.758	111
Egoiliar ez direnen errenta	3.028	5.201	172
Oinordetzak eta dohaintzak	10.404	13.402	129
1. Zuzeneko zergak	644.373	724.329	112
BEZa	1043848	1.021.157	98
Zerga bereziak	69719	70.167	101
Aseguru primen gaineko zerga	13120	13.663	104
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	8016	8.418	105
2. Zeharkako zergak	1.134.703	1.113.405	98
Onura fiskalak, guztira	1.779.076	1.837.734	103

2024ko zerga-onurak, memorian jasotako informazioaren arabera, 1.837,73 milioikoak dira, aurreikusitakoa baino % 3 handiagoak.

Zerga-onura bat honela defini daiteke: politika sozial eta ekonomikoko helburu jakin batzuk lortzera bideratutako pizgarri fiskalak egotea. Zerga-onurek hainbat modalitate izan ditzakete,

batez ere zerga-oinarriaren murrizketak, kuota-kenkariak, salbuespenak, zerga-tasa murriztuak, gutxieneko salbuetsiak eta beste.

Memorian ez da daturik ematen zerga-onura politika bakoitzarekin lortu nahi diren helburuei buruz, ezta horien lorpenari buruz ere, zergadunei aplikatzen zaizkien zerga-onuren zenbatekoaren datuaz harago.

Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Foru Ogasunak Ganbera honi emandako informazioaren arabera, 2011tik 2024ra bitartean zerga iruzurraren aurkako borrokak diru-sarrera hauek sortu ditu:

(milakotan)

Ekitaldia	Tributuen kudeaketa	Ikuskapena	Bestelako zerga-jardueak*	Zenbatekoa guztira	Aurkibidea
2011	52.045	38.808	-	90.853	100
2012	58.648	69.499	-	128.147	141
2013	57.358	37.826	-	95.184	105
2014	56.137	28.681	-	84.818	93
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	115
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	137
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	164
2018	88.961	53.993	27.154	170.108	187
2019	93.514	38.536	23.487	155.537	171
2020	56.782	27.154	74.380	158.316	174
2021	55.447	53.375	11.480	120.302	132
2022	69.864	33.098	74.394	177.356	195
2023	157.898	78.407	23.175	259.480	286
2024	50.490	30.637	31.044	112.171	123

* 2015ean hasi zen bestelako tributu jarduketen kontaketa.

Zerga iruzurraren aurkako borrokak sortutako diru-sarrerek gorabehera nabarmenak izan dituzte, eta 2014an izan zuten balio txikiena. Hala ere, data horretatik gora egin dute, nahiz eta 2024an lehen aldiz jaitsi den azken urteetan ikusitako goranzko joera.

Hurrengo tauletan, xehetasun handiagoz alderatu ditugu 2023ko eta 2024ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduerak, Diru-bilketa Zerbitzuak egin eta Iruzur Fiskalaren Aurkako Batzordean aurkeztutako txostenean jasotako informazioan oinarrituta.

(milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2023		2024	
Ikuskapena	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	3.709	13.747	3.502	17.475
Zehapen espedienteak	1.255	6.207	1.156	6.976
Erantzukizun zibila, delituengatik	3	54.324	4	2.389
Ikuskapenak eragindako erregularizazioak	21	2.585	32	1.101
Kreditu fiskalak deuseztatzea	57	1.544	70	2.696
Ikuskapena guztira	**5.045**	**78.407**	**4.764**	**30.637**

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2023		2024	
Zergen kudeaketa	Likidazioen kopurua	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	4.485	110.438	3.215	9.897
PFEZa	4.037	4.500	1.752	2.474
Sozietateak	1.286	7.224	1.082	2.674
Gainerako zergak	1.868	5.727	2.227	10.843
Zehapenak	3.962	3.904	3.360	2.616
Garaiz kanpoko aitorpenen errekarguak	6.164	2.406	4.454	1.529
Errekerimenduak	7.475	2.321	8.013	3.260
Kudeaketak eragindako diru-sarrerak	10.361	21.378	6.746	17.647
Kudeaketa guztira	**39.648**	**157.898**	**30.849**	**50.490**
Beste tributu-jarduketa batzuk	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa
Guztira	32	23.175	20	31.044

2024an, ikuskapen-jarduketak % 61 murriztu dira 2023arekin alderatuta (47,77 milioi). Aurrekoari buruz adierazi behar dugu urtero jarduketa plan bat ezberdin bat egiten dela eta lortutako sortzapenek ez dutela zertan joera baten araberakoak izan.

Bereziki esanguratsua da zerga-kudeaketaren arloko 107,41 milioiko murrizketa (% 68), batez ere BEZaren 100,54 milioiko murrizketak eraginda. 2023ko ekitaldiarekiko murrizketa horren arrazoia da ekitaldi horretan tributazio zifra erlatiboa erregularizatzeko 110,44 milioiko espediente bat egin zela Nafarroako Foru Ogasunean, eta espediente horrek 2022ko eta 2024ko ekitaldiekiko konparazioa desitxuratu zuela.

Diru-sarrera horiek sortu izanak ez du esan nahi zenbateko horiek kobratu direnik. Arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketarako eta kontabilitaterako erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla-eta, ezin dugu identifikatu zerga iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 168,96 milioi eurokoak izan ziren 2024. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien % 3 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2023ko eskubide onartu garbiak	2024ko eskubide onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
Tasak	16.160	16.636	3
Prezio publikoak	70.695	73.683	4
Ondasunak saltzea	2.798	2.619	-6
Eragiketen itzulketak	21.448	29.307	37
Beste diru-sarrera batzuk	44.173	46.718	6
Guztira	155.275	168.963	9

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerei dagokie; 73,68 milioikoak izan baitziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira gizarte-zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak (59,10 milioi) eta beste erakunde batzuekin asistentzia medikoagatik egindako itunak (11,31 milioi).

Honako hauek dira “Beste diru-sarrerak batzuk” izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: premiamendu-errekarguak, 10,12 milioi; zehapenak, 9,52 milioi; eta berandutze-interesak, 5,94 milioi.

5.9. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Ondare bidezko diru-sarrerak

(milakotan)

Ondare bidezko diru-sarrerak	2023ko eskubide onartu garbiak	2024ko eskubide onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/2023
Emandako aurrerakin eta maileguen interesak	5	4	-20
Gordailuen eta atzerapenen interesak	23.776	33.741	42
Ondasun higiezinetako errentak	647	590	-9
Emakida produktuak	648	380	-41
Guztira	25.076	34.714	38

Gordailuen 33,74 milioiko interesetatik 5,2 milioi 2023ko ekitaldian sortutako eta 2024aren hasieran kobratutako interesei dagozkie. Hori kontuan hartuko bagenu, aldakuntza ez zatekeen oso esanguratsua izango. 2024ko ekitaldian, horrelako eragiketa guztietarako eskubideak onartzeko irizpide bakar bat hartu da, itxiera balio dataren arabera zenbatetsiz, kobratzeko unea edozein dela ere.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 234,23 eta 163,32 milioikoak izan ziren hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	2023ko eskubide onartu garbiak	2024ko eskubide onartu garbiak	Aldakuntza (%) 2024/23
Estatuko Administrazioaren transferentzia arruntak	312.836	215.488	-31
Fundazioen transferentzia arruntak	429	321	-25
Enpresa publikoen eta beste erakunde publiko batzuen transferentzia arruntak	165	159	-4
Toki entitateen transferentzia arruntak	2.013	2.003	-1
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	170	133	-22
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	6	6	2
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	19.139	16.120	-16
Transferentzia arruntak guztira	334.759	234.232	-30
Estatuko Administrazioaren kapital-transferentziak	158.537	81.251	-49
Fundazioen kapital-transferentziak	-	139	
Toki entitateen kapital-transferentziak	3.250	709	-78
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen kapital-transferentziak	-	1.226	
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	27.813	80.989	191
Kapital-transferentziak guztira	189.600	163.315	-13

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerek % 30 murriztu dira (100,53 milioi) 2023koekin alderatuta, eta arrazoi nagusia da Estatutik jasotako transferentzien diru-sarreretan % 31ko beherakada izan dela (97,35 milioi).

Murrizketa horren arrazoi nagusia da Estatuak 98,55 milioi gutxiago jaso dituela erregaiaren kontsumoaren hobariagatik, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren markoan.

Bestalde, aipagarria da kreditu eta energia erakundeen aldi baterako kargan izandako partaidetza, 28,60 eta 18,62 milioirekin, hurrenez hurren. Finantzaketa hori berrikuntza bat da, 2024an indarrean sartutako abenduaren 27ko 38/2022 Legearen ondoriozkoa, ordenamendu juridikoan, besteak beste, aldi baterako bi karga berri sartzen dituena: aldi baterako karga energetikoa eta kreditu-erakundeen eta kredituko finantza-establezimenduen aldi baterako karga.

Nafarroak zerga-figura horietan duen parte-hartzea Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan gauzatzen da, eta gehigarri honetako 5.7 apartatuan dago jasota horren xehetasuna.

Kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak % 13 murriztu ziren (26,29 milioi), batez ere jatorria Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan duten diru-sarrera txikiagoak (68,27 milioi) jaso direlako Estatutik.

Bestalde, kanpoko transferentzien bidezko diru-sarrerak % 191 handitu ziren (53,18 milioi), batez ere REACT funtsen ondorioz, 43,99 milioi areagotu direnak.

5.10 EPE LABURREKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Zordunak

2024ko abenduaren 31n, zordunen saldoa 507,03 milioi eurokoa zen, eta honako datu hauei zegokien:

(milakotan)

Zordunak	2023/12/31	2024/12/31	Aldakuntza (%) 2024/2023
Aurrekontu-zordunak	955.893	947.184	-1
Aurrekontukoak ez diren zordunak	110.447	148.093	34
Beste erakunde publiko batzuen baliabideetako zordunak	3.260	6.754	107
Bestelako zordunak	5.998	6.364	6
Kaudimengabezietarako hornidura	(624.869)	(601.364)	-4
Zordunak guztira	450.729	507.031	12

2024ko abenduaren 31n, zordunen saldoaren % 63, kaudimengabeziaetarako hornidurari zegokion (601 milioi euro). Hornidura horri buruz, zehaztu urteko kalkulua historikoki egiten dela ekitaldiaren itxieran saldoari aplikatzen zaizkion portzentaje konstante batzuk aplikatuz, eta portzentaje horiek saldoaren izaeraren arabera aldatzen direla.

Honako hau da aurrekontuko zordunen osaera:

(milakotan)

Aurrekontu-zordunak	2023/12/31	2024/12/31	Aldakuntza (%) 2024/2023
Departamentuetako zordunak	28.187	24.316	-14
Kudeaketa arrunteko zordunak	182.593	191.415	5
Luzapena eman zaien zordunak	75.889	74.839	-1
Premiamendu bideko zordunak	650.591	628.288	-3
Egoera berezietako zordunak	23.517	33.816	44
Erosketak itzultzeagatiko zordunak	548	678	24
Zordunak guztira	**961.335**	**953.353**	-1
Sortu ez diren korrituak eta errekarguak	-5.442	-6.169	13
Aurrekontuko zordunak guztira	955.893	947.184	-1

Aurrekontuko zordunen 2024ko saldo orokorra aurreko ekitaldikoa baino % 1 txikiagoa da (8,7 milioi). Nolanahi ere, kontzeptu garrantzitsuena premiamendu bideko zordunena da, 628,3 milioi egiten baitu, hau da, zordunen guztizko zifraren % 66.

Bestalde, luzapena eman zaien zordunen saldoak epe luzeko 22 milioi biltzen ditu, eta horregatik birsailkatu egin beharko litzateke eta epe laburreko zatitik bereizi.

“Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), 5,13 milioiko saldoa baitu, osorik hornitua. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duenez, zenbateko hori ez dago behar bezala oinarrituta.

“Aurrekontukoak ez diren zordunak” epigrafean, “Diru-laguntzen aurrerakinengatiko zordunak” kontua sartu da; kontu horren saldoa 148,05 milioikoa zen 2024ko abenduaren 31n.

Kontu horretan daude jasota araudi aplikagarriaren arabera aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen dirulaguntzak. Saldoa ezeztatu egin behar da dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gastua emaitzen kontuari.

Kontu hau kontabilizatzeko prozedura zehaztu bat badago ere, eta zenbait erregularizazio egin diren arren, ezin izan dugu egiaztatu kasu guztietan bertako saldoa murriztu ote den justifikatutako zenbatekoan edo justifikatu gabeko zatian. Hortaz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den. Akats hori jada agerian jarri zen Ganbera honek 2021eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz egin zuen txostenean.

Hartzekodunak

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri batzuei dagozkienak jaso gabe, 388,64 milioi eurokoa da 2024ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagokie:

(milakotan)

Epe laburreko hartzekodunak	2023/12/31	2024/12/31	Aldakuntza (%) 2024/2023
Aurrekontuko hartzekodunak	338.446	237.723	-30
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	10.414	8.938	-14
Administrazio publikoak	5.388	5.726	6
Bestelako hartzekodunak	91.101	127.984	40
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	7.279	8.266	14
Guztira	452.628	388.636	-14

Hartzekodun horiek % 14 (63,99 milioi) egin dute behera. Osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren % 61 baitira eta % 30 jaitsi baitira (100,72 milioi) 2023koekin alderatuta.

413 kontuari dagokionez, saldoaren konposizio 2024ko ekitaldiari dagokio zati handienean, baina 2024a baino lehenagoko saldoak garbitzen jarraitu beharko litzateke.

Ekitaldi guztietan behin eta berriro adierazi izan dugun bezala, CAT eta SAPGE21 sistemen arteko loturak bi aplikazioen arteko informazio trukea egokia ez izatea eragiten du. Hori dela-eta, doikuntza bat erregistratu behar da eskuz zergen itzulketagatiko aurrekontuko hartzekodunen eta beste hartzekodun batzuen epigrafean, CAT sisteman zordunei eta hartzekodunei buruz dagoen zerga-informaziotik lortzen dena.

Aurreko ekitaldietan doikuntza hori kontabilitatetik kanpokoa zen, eta 2024an, berriz, SAPGE21 sisteman kontabilizatu da. Doikuntza globala 179 milioikoa izan da. Hala ere, arazoak bere horretan jarraitzen du.

5.11 DIRUZAINTZA

2024ko abenduaren 31ko diruzaintza 842,86 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

(milakotan)

Kontzeptua	Saldoa 2023/12/31n	Saldoa 2024/12/31n	Aldakuntza (%) 2024/2023
Diru-sarreren kontu bereziak	19.259	23.380	21
Diru-bilketako kontu murriztuak	19.809	20.599	4
Kontu korronte operatiboak	741.159	798.879	8
Guztira	780.228	842.858	8

Diruzaintzako saldoak % 8 igo dira (62,63 milioi), funtsean, kontu operatiboen saldoa % 8 handitu delako (57,72 milioi).

Egindako banku zirkularizazioa aztertu dugu, eta ondorioztatu ahal dugu saldoak justifikatuta daudela eta sinadura baimenduak zuzenak direla, oro har.

5.12. ZORPETZEA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Zorpetzea

2024ko ekitaldian, maiatzaren 31n Zor Publikoaren jaulkipen bat egon zen, maiatzaren 22ko 59/2024 Foru Aginduaren arabera 2031ko maiatzaren 31n duena epemuga; 50 milioiko balio nominala du eta 49,98 milioiko jaulkipen balioa. Ez da epe luzeko zorpetzerik hitzartu finantza-erakundeekin.

NFKA eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 2.505,86 milioi eurokoa zen 2024ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

(milakotan)

Zorra	2023/12/31	2024/12/31	Aldakuntza (%) 2024/2023
Nafarroako zor publikoa	956.718	1.006.858	5,24
Epe luzeko maileguak finantza-erakundeekin	1.471.100	1.209.840	-17,76
Epe luzeko maileguak sektore publikoarekin	9.690	9.420	-2,79
Epe luzeko zorpetzea (A)	**2.437.508**	***2.226.118***	**-8,67**
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	103.796	-	-100,00
Epe laburreko maileguak finantza-erakundeekin	130.400	261.260	100,35
Epe laburreko zorrak sektore publikoarekin	329	80	-75,74
Zor publikoaren epe laburreko interesak	13.457	10.713	-20,39
Maileguen epe laburreko interesak	9.778	7.685	-21,41
Epe laburreko zorpetzea (B)	***257.760***	***279.738***	**8,53**
Zorpetzea guztira (A+B)	2.695.268	2.505.855	-7

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Zorpetze-bolumena % 7 jaitsi da, hau da, 189,41 milioi gutxiago.

- 2024an, zor publikoak zorpetze osoaren % 41 hartzen du; ez da ia aldaketarik izan 2023arekin alderatuta. Bestalde, finantza-erakundeekiko maileguak (Europako Inbertsioa Bankua barne) % 59 dira; kasu honetan ere, ez da ia aldaketarik aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

- Finantza-erakundeekiko epe luzeko maileguak murriztu dira, % 5 hain zuzen ere, 2023an 1.471,10 milioi izatetik 2024an 1.209,84 milioi izatera igarota (261,26 milioi gutxiago).

- Itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera, batez besteko interesa ondoren erakusten duguna izan zen 2024an:

(milakotan)

Zorpetze modalitatea	2024ko itundutako zorpetzea	2024o batez besteko interes tasa	Zorpetzea guztira 2024/12/31n	Batez besteko interes tasa
Nafarroako Zor Publikoa	50.000	% 3,14	1.006.858	% 1,57
Finantza-erakundeen maileguak	-	-	1.211.100	% 1,33
Europako Inbertsio Bankuaren maileguak	-	-	260.000	% 0,76
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.131	-
Beste sektore publiko baten maileguak	-	-	369	% 0,61
Zorpetzea guztira	50.000	% 3,14	2.487.457	% 1,36

Zorraren batez besteko interes tasa globala % 1,36koa izan zen 2024an; hamarren bat igo zen aurreko ekitaldiko % 1,36ko tasarekin alderatuta.

NFKAren zorraren guztizkotik heldutako finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak), hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Finantza-zama (milioiak)	469,45	412,05	355,57	681,37	425,11	266,35	278,69
Indizea	100	88	76	145	91	57	68
Diru-sarrera arrunten gainean (%)	12	10	9	14	8	5	5

Finantza-zama % 32 murriztu da aztertutako aldian, eta diru-sarrera arruntetan duen pisu erlatiboa % 12tik % 5era pasatu da aztertutako aldi osoan.

Hala ere, azpimarratu behar da urteko finantza-zama hainbat faktoreren mendeko aldagaia dela, amortizazio aurreratuak egiteko aukeraren mende dagoela neurri handian (horrelako amortizazio bat egin zen 2021ean eta 2022an), eta interes tasaren aldaketek ere eragiten diotela. Ondorioz gorabehera esanguratsuak izan ditzake, eta ez diote beti erantzuten portaera lineal bati.

Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko aurreikuspenak:

(milakotan)

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa guztira	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2025	235.080	9,5	9,5
2026	199.962	8,1	17,6
2027	232.000	9,4	26,9
2028	285.230	11,5	38,4
2029	228.000	9,2	47,6
2030	243.100	9,8	57,4
2031	239.579	9,7	67,1
2032	139.000	5,6	72,7
2033	104.989	4,2	77,0
2034	54.000	2,2	79,1
2035	159.882	6,5	85,6
2036	-	0,0	85,6
2037	65.730	2,7	88,2
2038	43.000	1,7	90,0
2039	-	0,0	90,0
2040	74.643	3,0	93,0
2041	-	0,0	93,0
2042	124.302	5,0	98,0
2043	-	0,0	98,0
2044	49.540	2,0	100,0
Guztira*	2.478.037	100	

* Egutegian ez da sartzen ez Gizarte Segurantzaren zorra (9,13 milioi), ez Europako Gizarte Funtsaren dirulaguntzen aurrerakinak (0,29 milioi).

Ikusten denez, zorraren ia erdia (% 48), 2029 baino lehen amortizatu behar da.

Zor publikoa jaulkiz egindako zorpetze-eragiketa fiskalizatu dugu, eta gure berrikuspenaren emaitza zuzentzat jo behar dugu.

Rating agentzia baten kreditu kalifikazioak (rating), “AA, perspektiba egonkorrarekin” maila esleitu zion Nafarroako epe luzeko zorrari azken eguneratzearen ondoren. Hala, aurreko ekitaldiko kalifikazioa hobetu da.

Emandako abalak

Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 63,71 milioikoa zen 2024ko abenduaren 31n, honako sailkapen honekin bat etorriz:

(milakotan)

Emandako abalak	Saldoa 2023/12/31n	Saldoa 2024/12/31n	Aldakuntza (%) 2024/2023
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	648	498	-23
Club Atlético Osasuna	5.766	3.118	-46
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	13.830	-	
Nasuvinsa-Europako Inbertsio Bankua	23.592	23.592	-
Nilsa	-	36.500	
Guztira	43.836	63.708	45

Guztizko saldo bizia 19,87 milioi handitu da, hau da, % 45eko hazkundea izan du. Igoera, batez ere, Nilsaren abal berriaren eraketari zor zaio (36,50 milioi). Gainerako saldoak murriztu egin dira.

5.13. SOZIETATE PUBLIKOAK ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

Sozietate publikoak

Ondoren, NFKAko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren memorian bildutako informazioaren arabera:

(milakotan, kopuru zehatza dela adieraztean salbu)

Sozietatea	Ekitaldiaren emaitza	Foru Administrazioaren dirulaguntza (3)	Ekarpena (CPEN)	Epe luzeko zorpetzea (2)	Ondare garbia	Batez besteko langile kopurua
Bidean	-	645		-	142	4
Nafarbide	-	271		-	2	1
CEIN	63	1.817		28	1.580	68
CNAI	-16	-		-	176	61
CAT	-1.826	6		78	57.791	4
GAN	66	369		2	3.995	122
INI	220	-	9.000	-	27.481	2
Intia	54	7.554	354	23	3.422	193
Nasertic	1.023	6.566		-	18.062	151
Nasuvinsa	3.846	8.685	1.000	55.049	275.158	174
NICDO	-6.029	4.471	3.800	-	34.659	77
Nilsa	-	-		3.500	902	57
Potasas de Subiza	4.690	800		-	9.812	-
Salinas de Navarra	6.757	-		-	25.208	82
Sodena	430	915	7.000	148	92.231	27
Start Up Capital Navarra	1.331	-		-	734	-
Tracasa	831	-		-	11.926	58
Tracasa Instrumental	777	11		-	24.411	599
CPEN	6.682	8		8	502.146	16
Guztira (1)	18.898	32.119	21.154	58.836	1.089.836	1.695

(1) Bateratu gabeko datuak.
(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.
(3) Datuen iturria (CPEN): Kontu bateratuak eta kudeaketa txosten bateratua.

Hurrengo taula honetan, langile kopuruaren eta sozietate publikoen kopuruaren bilakaerak jaso ditugu:

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2015
Batez besteko langile kop.	1.061	1.115	1.106	1.106	1.241	1.284	1.361	1.496	1.604	1.695	60
Sozietate kopurua	16	17[29]	17	17	16[30]	16	16	17	19	19	19

2015-2024 aldian, batez besteko langile kopurua % 60 igo da, eta, sozietateen kopurua, berriz, % 19. Hala ere, ohar bat egin beharra dugu datu horien inguruan: Bideaneko plantilla, ondoren egindako azterketan jakin genuenez, 453 langiletan handituko da 2025ean.

Aurreikuspen horien arabera, 2025ean, sozietate publikoetako plantilla 2.142 langile ingurukoa izango litzateke, eta, 2015arekin alderatuta, % 101eko igoera izango luke; hau da, 10 urtean sektore publikoko enpresen langile kopurua bikoiztu egingo da.

Azpimarratzekoa da langile kopuruaren hazkundea aldi berean NFKAn izandakoa baino handiagoa izan dela, taula honetan ikus daitekeenez:

	2015	2024	Aldakuntza (%) 2024/2015
PO lanpostuak	22.494	26.778	19
Egiazko langileak	23.055	33.133	44

Honako hauek dira Nafarroako sektore publikoko enpresen 2024ko adierazle nagusiak, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

(milakotan)

CPEN Taldearen adierazleak (bateratuta)	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Ondare garbia	694.866	734.557	6
Epe luzerako zorrak	4.861	58.836	1.110
Pasibo korrontea	149.375	85.791	-43
Maniobra-funtsa	268.987	310.795	16
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	65.754	82.956	26
Negozio-zifraren zenbateko garbia	230.862	253.138	10
Negozio-zifraren ehunekoa, NFKArekin batera egindakoa	35	40	14
NFKAtik jasotako kapital-dirulaguntzak (1)	21.467	14.572	-32
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	19.423	22.373	15
Langileen gastuak	86.049	93.203	8
Ustiapeneko emaitza	14.680	28.114	92
Ekitaldiko emaitza bateratua	-4.035	21.751	639
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	-5.512	19.710	458
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (2)	48.037	51.581	7
CEPNeko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	7	5	-30
CEPNeko goi zuzendaritzako ordainsariak	99	102,357	3
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	20	25	25

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.
(2) Menpeko enpresei soilik dagokie, baterakuntzan intregrazio globalagatik sartutakoak.

[29] Tracasa sozietatea Tracasa Instrumental SL eta Tracasa sozietateetan bereizi zen.
[30] Nature Climate Systems SA sozietatea desagertu egin zen. Nolanahi ere, ez zegoen langile konputagarririk.

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

● Epe luzeko zorrak % 1.110 handiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino. Nasuvinsak du ia zor osoa. Hala ere, adierazi behar dugu, 2023an, bere epe laburreko zorra 51,99 milioi eurokoa zela, Europako Inbertsioa Bankuaren maileguengatik. 2023ko itxieran, Nasuvinsak mailegu kontratuetan zeuden zenbait ratio ez zituen betetzen. Eta ez-betetze horien ondorioa zen Europako Inbertsioa Bankuak zorra eska zezakeela; horrenbestez, epe laburreko gisa sailkatu zen. 2024ko urtarrilean, epe luzeko gisa sailkatu zen berriro ere, Europako Inbertsioa Bankuak emandako *waiver* edo baimenaren ondoren.

● Ekitaldiko emaitza bateratua eta sozietate nagusiari egotzitakoa negatiboak izatetik positiboak izatera igaro dira, eta nabarmen handitu dira.

● CPENen enpresa taldearen osaera honako hau da kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

CPEN Taldearen osaera	2023	2024
Menpekoak-Sozietate publikoak	18	19
Elkartuak eta taldeaniztunak	11	11
Parte hartutako beste batzuk	58	57

Sozietate publikoen auditoretzak

Sozietate publikoek urteko kontuei eta legeria betetzeari buruz kanpoan egindako auditoretzak aurkezten dituzte, auditoretzako enpresa pribatuek eginak, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratuta.

Urteko kontuei buruzko auditoretza guztietan, aldeko iritzia jaso da.

Ikusi oin-oharra [31]

Legeria betetzeari buruzko auditoretzen helburua izan da honako alderdi hauek egiaztatzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze eta abal eragiketei dagokienez; obrei, hornidurari, zerbitzuei eta obra publikoen eta zerbitzuen emakidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea; egin diren kontraprestaziorik gabeko diru-emateei eta babesletza-kontratuei buruzko araudia betetzea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean jasotako bestelako legezko betekizunak betetzea; eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetzea. Auditoretza horien emaitzak[32] honako hauek dira:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

b) Kontratazio publikoei dagokienez, 136 kontratuko lagin batean, ondorioztatzen da, oro har, berrikusitako espedienteetan aplikatu beharreko araudia betetzen dela. Hori bai, bederatzi sozietatetan hamasei gorabehera daudela agerian jarri da, horietako gehienak esleipena Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean edo Kontratazioren Atarian argitaratzeko epeak ez betetzeari buruzkoak, salbu lizitazio-prozeduran izandako salbuespen bat, bermearekin lotutako bi eta sortatan banatuta egotearen justifikazioaren falta bat.

c) Langileen kontratazioen eta ordainsari-sistemen berrikuspenetik ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela. Hori bai, salbuespenak agerian geratu dira bost sozietateetan, zehazki, zuzendarien eta langileen ordainsariekin lotutako ez-betetzeekin lotuta.

31 CPENek aurkeztutako alegazioaren ondorioz ezabatutako paragrafoa.

32 Erakusten diren emaitzak Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak jada gainbegiratutako auditoria txostenetan jasotakoak dira. Aipatu Zuzendaritza Nagusiaren behin-behineko txostena 2026ko urtarrilaren 20an eman zen.

Gainera, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren gainbegiratze-lanek egiaztatu dute sei sozietate publikotan Estatuko araudian adierazitakoa baino ordainsari-igoerak handiagoak izan direla, auditoretza-enpresa pribatuek egindako txostenek salbuespenik adierazi gabe. Gorabehera horiek, aztertutako laginean eragindako espedienteen kopurua aintzat hartuta, eragin berezia dute Tracasan eta Tracasa Instrumentalen.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei buruzko araudia betetzeari dagokionez, ondorioztatu da aplikatzekoa den legeria bete dela. Hala ere, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak egindako gainbegiratze-lanek nabarmendu dutenez, babesletza eragiketen kopurua eta bolumena areagotu egin da.

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatu da aplikatzekoa den araudia bete dela.

Fundazio publikoak

Ekitaldi honetan egin dugun berrikuspenean, honako konklusio hauek atera ditugu:

• CENER Fundazioa, 2023ko ekitaldia baino lehen, Estatuko sektore publikoari atxikita zegoen. 2023ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuak 1.000 euroko aldaketa egin zuen fundazio ondarean, eta honela geratu zen osatuta osaera ekitaldi horretatik aurrera:

CENER	2023	2024
Nafarroako Gobernua	% 49,41	% 49,41
Estatuko Administrazio Orokorra	% 48,60	% 48,60
Naitec (CETENA Fundazioa)	% 1,99	% 1,99

NOPFL, NFKAren sektore publikoaren eremu subjektiboa konfiguratzean, eta fundazioei dagokienez, lotzen da NFKAri eta haren sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakora. Foru lege horrek honela definitzen ditu fundazio publikoak: fundazioa sortzeko unean, fundazioaren ondarea gehienbat fundatzailearen ekarpen zuzenek edo zeharkakoek osatzen dutenak.

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2022ko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeak aipatutako NOPFLren 2. artikulua aldatu zuen, eta kendu egin zuen fundazio bat publikotzat jotzeko aukera, baldin eta fundazioaren ondarearen osaera nagusia gerora sortutako arrazoiengatik gertatzen bada. Horrek esan nahi du, gaur egungo idazketarekin, fundazio publikotzat soilik jotzen direla fundazioa sortu zen unean fundazioaren ondarean fundatzaileek gehiengoa dutenak; egoera hori ez da CENER Fundazioan gertatzen. Beraz, fundazio hori ezin da NFKAren sektore publikoaren parte izan.

• IDISNA Fundazioari dagokionez, oraindik ez dago informaziorik NFKAren sektore publikoan sartzeko arrazoiei buruz. Era berean, ez dago dokumentaziorik IDISNA Fundazioaren egoera egiaztatzeko aukera eman digunik, eta muga horrek eragotzi egiten digu alderdi horri buruzko ondoriorik ateratzeko.

• Aurreko gogoetak alde batera utzi gabe, gure txostenean jasotzen dugun informazioa eta egiten ditugun analisiak, kontuetan agertzen diren datuekin egiten da.

Hala ere, adierazi nahi dugu, aurreko ekitaldian gertatu bezala, zortzi fundazioetatik zazpiren auditoretza txostenak baino ez daudela jasota[33], kontu orokorren memoriako “Foru sektore publikoaren mugaketa” dokumentuan jasotakoak.

[33]Ez dago jasota Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa Fundazioaren urteko kontuen auditoretza txostena.

Gure azterketa, lehen aipatutako arrazoiengatik, informazio ez-homogeneoa kontrastatzen egiten da (2023ko ekitaldiko bost fundazio eta 2024ko ekitaldiko zazpi fundazio). Datuak honako taula honetan daude:

Fundazioen adierazleak	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Ondare garbia	4.726	39.864	743
Epe luzeko zorra	4.876	23.207	376
Jarduera propioaren ondoriozko diru-sarrerak	28.465	50.244	77
Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzak	11.387	13.398	18
Langileen gastuak	20.593	38.506	87
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	11.706	24.807	112
Maniobra-funtsa	6.979	28.588	310
Emaitza guztira	15	-373	-2.536
Goi kargudunen kopurua (A)	7	17	143
Gainerako langileen batez besteko kopurua (B)	454	684	51
Langileen kopuru osoa (A+B)	461	785	70

Informazio horri buruz, emaitza osoaren zenbatekoan eta langileen gehikuntzan bilakaera benetan esanguratsua dagoela azpimarratu behar da.

Guztizko emaitzari dagokionez, adierazi behar da fundazioetan kontzeptu hori ez dela sozietateetako emaitzaren baliokidea. Fundazioen kasuan, emaitza kontabilitate-egoera bakarra da, ekitaldiko soberakinari eta ondare garbiaren aldaketei buruzko informazioa bateratzen duena.

Hurrengo taula honetan, fundazioetako langileen bilakaera eta kopurua jaso ditugu:

Fundazioak	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2015
Batez besteko langile kop.	78	84	154	161	221	272	275	331	461	785	906
Fundazio kopurua	4	4	5[34]	5	6[35]	6	6	6	8[36]	8	100

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da CENER Fundazioaren plantilla 242 langilekoa dela 2024ko abenduaren 31n, eta IDISNA Fundazioarena, berriz, 52 langilekoa. NFKAren sektore publikoan behin betiko adskribatuz gero, fundazioetako langileen egiturazko gehikuntza 785 langiletan finkatuko litzateke.

Langile gehienak Miguel Servet, Gizain, CENER eta IDISNA fundazioetakoak dira, langile guztien % 88 baitira. CENER eta IDISNA fundazioko datuak kontuan hartzen ez badira (langile berri gisa), Gizain izan da langile hazkunde handiena izan duena, 2019ko ekitaldian (eratu zen urtean) 52 langile izatetik, 2024ko itxieran 276 izatera igaro baita.

Bost fundazioen urteko kontuei auditoretzak egin zaizkie, eta horietan guztietan aldeko iritzia lortu da.

Hala ere, azpimarratzekoa da bi enfasi-paragrafo sartu direla honako fundazio hauei dagozkien auditoretza txostenetan:

a) Baluarte Fundazioa, ondare garbi eta maniobra-funts negatiboak aurkezten dituelako, 656.000 eta 781.000 eurokoak hurrenez hurren, nahiz eta zehazten den Nafarroako Gobernuak berariaz adierazi duela finantza-laguntza emango duela ordainketa konpromisoak eta betebeharrak bete ahal izateko eta jardunean jarraituko dutela ziurtatzeko. Egoera hori bera agerian jarri zen 2022ko eta 2023ko ekitaldietako gure kontu orokorren txostenetan ere.

[34] Miguel Indurain Fundazioa gehitu da.
[35] Gizain Fundazioa sortu da.
[36] CENER eta IDISNA fundazioak gehitu dira.

b) Gizain Fundazioa: langileek eta haien ordezkariek fundazioaren aurka hasitako auziekin lotutako kontingentzia bat deskribatu da.

Enpresa publikoekin egin den bezala, 2024an eman ziren legeria betetzeari buruzko 2024ko auditoretza txostenak, enpresa publikoentzat deskribatuta dauden helburu berberekin.

Kontu-hartzailetzaren Zuzendaritza Nagusiak jaso dituen bost auditoretzen[37] emaitzak honako hauek dira:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

b) Kontratazio publikoei dagokienez, 70 kontratuko lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela. Hori bai, hamasei salbuespen adierazi dira lau fundazioetan; horietako bederatzi Gizain Fundazioarekin lotuta daude.

Salbuespenak honako hauetan oinarritzen dira: munta txikiko kontratuaren figura bidegabe erabiltzea, lizitazio-iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean ez argitaratzea kontratu baten kasuan, hiru kontraturen adjudikazioa Kontratazioaren Atarian argitaratzeko epean atzeratzea, kontratazio-mahairik ez egotea, eta lotetan ez zatitzearen justifikaziorik ez egotea.

Salbuespen garrantzitsuenak lizitazio-prozeduraren erabilera desegokiari buruzkoak dira, zehazki, KPFLren 81. artikuluan ezarritako zenbateko txikiko kontratuarekin lotuta. Intzidentzia hori Gizain Fundazioan aztertutako hamar prozeduretatik zortzitan adierazi da; Baluarte Fundazioan eta Miguel Indurain Fundazioan ere intzidentzia bana izan dira.

c) Langileen kontratazioen eta ordainsari-sistemen berrikuspenetik ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela. Hori bai, hiru salbuespen aipatzen dira hiru fundaziotan, indarrean ez zeuden kontratazio-zerrendetara jotzearekin eta kontratazio-zerrenden informazioaren trazabilitate faltarekin lotutakoak.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei buruzko araudia betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da, oro har, aplikatzekoa den araudia bete dela, nahiz eta aipatu behar den fundazio baten webguneek ez dutela jasotzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen zenbait artikulutan ezarritako informazio guztia.

Amaitzeko, adierazi behar dugu 2025eko urtarrilean eman eta argitaratu dela[38] 2023ko ekitaldiko emaitzei buruzko laburpen txostena, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritzak onesten duena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sozietate eta fundazio publikoek legeria betetzeari buruz erabakitako prozedurei eta urteko kontuen auditoretzei dagokie.

Berrikuspen-prozesu horretatik, adostutako prozeduren auditoriei dagokienez, ondorioztatu zen auditore pribatuek adierazitakoak baino ez-betetze gehiago zeudela.

Sektore Publiko Instituzionalaren gaineko eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea

NFKAri eta haren Sektore Publiko Instituzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen helburuak dira, besteak beste, NFKAko sektore publikoa osatzen duten erakundeen orain arteko araubidea sistematizatzea eta hobetzea, eta, sektore publiko instituzionalari dagokionez, berau osatzen duten erakunde guztien eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea indartzea. Hala, NFKAko sektore publikoa osatzen duten erakundeen gaineko derrigorrezko bi kontrol mota ezartzen dira:

[37] Erakusten diren emaitzak Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak jada gainbegiratutako auditoria txostenetan jasotakoak dira. Aipatu Zuzendaritza Nagusiaren behin-behineko txostena 2026ko urtarrilaren 20an eman zen.
[38] https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/urteko-kontuen-auditoretzak-eta-sozietate-eta-fundazio-publikoen-legezkotasuna

a) Eraginkortasun-kontrola, erakundearen jardueraren helburu propioak betetzea ardatz izanik. Erakundea zein departamenturi dagoen adskribatuta, departamentu horrek egingo du kontrola urtero, horretarako gaitutako langileen eskutik eta NFKAko Kontu-hartzailetzako Zuzendaritzak egindako kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kudeaketaren gaineko kontrolari kalterik egin gabe[39].

b) Etengabeko gainbegiratzea, sortzen direnetik azkentzen diren arte. Horretaz Ogasunaren arloan eskumena duen departamentua arduratuko da, horretarako gaitutako langileen eskutik, foru legean aurreikusitako betekizunak betetzen direla zainduko dutenak.

11/2019 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, ez dago jasota eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea bermatzeko derrigorrezko kontrolak egin direnik, ez eta gaitutako langileen gaineko erregelamendua garatu denik, eta horrek foru lege horretan eskatutakoa ez betetzea dakar.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu: *Legez eskatzen diren eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea bermatzeko derrigorrezko kontrolak egitea, sektore publiko instituzionalaren dimentsioa, beharra eta bilakaera behar bezala kontrolatzeko*.

[39] IV. KAPITULUA NOPFLren auditoria publikoa.

6. GEHIGARRIA. SOZIETATE PUBLIKOEN ANALISIA

Nafarbide el camino de los navarros, sozietate mugatua

CPENek "Nafarbide, el camino de los navarros SL (Nafarbide)" elkartea eratu zuen 2024ko otsailean, Lurralde Kohesiorako Departamentuari adskribatuta dagoena, eta Nafarroako Gobernuak 2023an baimendu zuena.

Sozietatea abian jartzeko, 2024an, besteak beste, honako jarduera hauek egin dira:

- CPENek 150.000 euroko mailegua eman zuen martxoan, sozietatearen jarduera aldi baterako finantzatzeko.

- Zuzendari kudeatzailea apirilean hasi zen lanean, eta administrari bat irailean, biak izaera mugagabeko kontratuekin.

- Abenduan lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen sozietateak Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin, eta, horren bidez, Departamentuak 359.547 euro transferitu zituen sozietatera, eratu zenetik sozietatearen gastuak ordaintzeko. Kontu-hartzaile delegatuak egindako errekerimenduen ondoren, txostena egin den egunean, hitzarmen horren likidazioa eginda dago, sei hilabeteko atzerapenarekin. Egindako likidazioren harira, Nafarbidek 106.459 euro itzuli behar dizkio departamentuari.

2024ko irailean, Europako Batzordeak aldeko txostena egin zuen Nafarroako Foru Komunitateko azpiegiturengatiko tasen araubide berriaren gainean, zeinak aukera ematen baitu uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legearen bidez onetsitako Nafarroako errepideak erabiltzeko kanona aplikatzeko.

2024ko ekitaldia ixtean, lehen adierazitako bi pertsonek bakarrik osatzen zuten sozietateko plantilla, eta egoera horrek bere horretan jarraitzen zuen landa lana amaitzeko datan.

Nafarroako Gobernuaren 2025eko uztailaren 23ko erabakiaren bidez, Nafarbide Nafarroako Gobernuaren erakunde instrumental izendatu zen. Enkarguaren irismena jakin arte, dituen giza baliabideak sozietatea abian jartzeko beharrezkoak diren gutxienekoak dira.

2024an, Nafarbidek kanpo aholkularitza bat kontratatu zuen "A-1ean bidesariak eta dagokion kontrol sistema" eta "bidesarien arkuak" ezartzeko baldintza-agiriak idazteko.

Sozietate horren sorrerari buruz, 2023ko Nafarroako kontu orokorrei buruzko gure txostenean adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL

Osasun Departamentuari adskribatutako "Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL" sozietatea 2023ko uztailean eratu zuen CPENek, Nafarroako Gobernuak 2023ko apirilaren 5eko erabaki baten bidez baimena eman ondoren. Sozietate horren sorrerari buruz, ekitaldi horretako Nafarroako kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazio txostenean adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

2024ko abuztuan, O-NOZeko zuzendari kudeatzaileak 1.200.000 euroko transferentzia baimendu zuen, 2024ko ekitaldian egin beharreko gastuak eta inbertsioak finantzatzeko. Ebazpen horrekin batera, Osasuneko kontseilariak eta Bidean erakundeko gerenteak sinatutako akordio bat dago, departamentuak transferentzia horren bidez finantzatu beharreko inbertsioak eta gastuak kontrolatzea xede duena.

2024ko abenduan, sozietatearen administrazio kontseiluak 2025-2028 aldirako plan ekonomiko-finantzarioa onetsi zuen, eta, bertan adierazten denez, sektore pribatuak kontratu-euskarri egokirik gabe zerbitzua luze emateak honakoa ekarri du: "*sektore pribatuak inolako pizgarririk ez izatea kostuen eta zerbitzuen arrazionalizazioari ekiteko, igoera horiek automatikoki jasanarazi ahal izan baitizkio Osasun Departamenturi*", bidegabeko aberastearen figuraren bidez. Horrek honakoa ere ekarri du: "*eraginkortasunik eza, kudeaketaren zaharkitzea, inbertsio txikia eta Osasun Departamentuaren gaineko mendekotasun finantzarioa, korapiloa desegiteko irtenbide bakarra BIDEAN enpresa publikoa sortzea bihurtzeraino*".

Aurten berrikusi dugun dokumentazioak adierazten du departamentuaren analisien abiapuntua dela zerbitzu hori emateko sozietate publiko bat sortzeko konpromiso politikoa, “2019-2023 legegintzaldiko programan” adostu zena.

2024an onetsitako 2025-2028 plan ekonomiko-finantzarioak kostuen igoera nabarmena dakar, 2023ko PAIFen aurreikuspenekin alderatuta, hurrengo taula honetan erakusten den bezala:

	2023ko PAIF	2025-2028 aldiko plana	Aldea	Aldakuntza (%)
Subrogatu beharreko anbulantzietako langileak	321	392	71	22
Anbulantzietako langile berriak	-	50	50	5.000
Erakundearen egitura	1	11	10	1.000
Langileak guztira	322	453	131	41
Anbulantzia kopurua	89	108	19	21
Kostuen zenbatespena	21.484.410	25.675.955	4.191.545	20

Zehazki, aurreikusitako kostu osoa 25,7 milioikoa da, hau da, PAIFen aurreikuspenekiko % 20ko igoera. 2025-2028 planean zerbitzua emateko beharrezkotzat jotzen diren langile eta anbulantzia kopurua, hurrenez hurren, PAIFen aurreikusitakoak baino % 41 eta % 21 handiagoak dira.

Horri dagokionez, adierazi genuen Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak, 2023ko PAIFari buruzko txostenean, ohartarazi zuela zenbait hutsune zeudela, 2023ko Nafarroako kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazio txostenean aipatu genituenak; besteak beste, datuen falta edo zehaztugabetasuna, kudeaketa eredu berriaren kostuaren balorazioa mugatzen zuena, eta, ziurrenik, aurreikuspenekiko igoera ekonomiko nabarmena ekarriko zuena.

Hori guztia dela-eta, hau *gomendatzen* dugu:

Sozietate publikoak sortzean, jarduketa planak behar besteko analisi eta zehaztapenekin egitea, Nafarroako Gobernuak txosten errealistak izan ditzan sozietate publikoak sortzeko baimena eman aurretik, kudeaketa modalitate posibleen kostuei, eraginkortasunari eta efizientziari buruz.

Nasuvinsa

Agoitzen eraiki beharreko instalazio batzuen errentamendu kontratua, erosteko aukerarekin, Ensambla Madera SL enpresarekin

Nafarroako Gobernuak, 2024ko otsailean, baimena eman zion Nasuvinsari Agoitzen industria nabe bat eraikitzeko eta partzela batzuk urbanizatzeko obra batzuk kontratatzeko, sozietate publiko horrek Madergia Taldeko Ensambla Madera SL enpresarekin hitzartutako kontratu bat betetzeko. Kontratu hori Nasuvinsako gerenteak sinatu zuen 2022ko urrian. Horren arabera, Nasuvinsak 10.000 metro koadroko pabiloi bat eraiki behar zuen Agoitzen, eta enpresa horrekin erosteko aukera ematen duen 25 urteko errentamendu errentamendu-kontratu bat formalizatu. Pabiloia enpresak zehaztutako beharren programara egokituta eraiki behar zen, eta enpresak proiektua onetsi behar zuen.

Aurreikusitako inbertsioa 6,7 milioikoa zen, eta horietatik 0,77 milioi lurzoruaren balioari zegozkion, eta 5,91 pabiloia egiteko kostuari, proiektua, obraren zuzendaritza, exekuzioa eta lizentziak barne. Hauek dira kontratuaren datuak:

Alokairu-urtea	Errenta
0. urtea	0
1. urtea	0
2. urtea	0
3. urtea	152.298
4. urtea	310.688
5. urtea	316.902
6. urtea	323.240
7. urtea	329.705
8. urtea	336.299
9. urtea	343.025
10. urtea	349.885

Jarraian, 11. urtetik aurrera eta errentamendua indarrean egon bitartean, kontsumo prezioen indizearen arabera eguneratu behar da errenta. Hauek dira erosteko aukera gauzatzeko hitzartutako prezioak, aukera zer urtetan gauzatzen den arabera:

Erosteko aukera (pabiloia + lurzorua)	
1. urtea	6.977.653
2. urtea	7.261.015
3. urtea	7.402.920
4. urtea	7.392.328
5. urtea	7.400.908
6. urtea	7.404.057
7. urtea	7.401.604
8. urtea	7.393.828
9. urtea	7.379.260
10. urtea	7.358.642
11. urtea	7.330.560
12. urtea	7.295.769
13. urtea	7.253.431
14. urtea	7.203.259
15. urtea	7.143.439
16. urtea	7.075.797
17. urtea	6.998.056
18. urtea	6.911.031
19. urtea	6.813.529
20. urtea	6.702.931
21. urtea	6.582.564
22. urtea	6.447.922
23. urtea	6.300.883
24. urtea	6.139.951
25. urtea	5.962.751

Inbertsio hori egiteko, Nasuvinsak eskaera izapidetu zuen 2024an, Nafarroako Gobernuak gehienez ere hiru milioiko zorpetze eragiketa bat baimen zezan, 15 urteko epera. Baimena Nafarroako Gobernuaren 2025eko urtarrilaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Egindako berrikuspenean oinarrituta, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Gerenteak erosteko aukera ematen duen errentamendu kontratua sinatu aurretik, eragiketa Nasuvinsako Administrazio Kontseiluak baimendu zuen 2022ko ekainean.

• Nafarroako Gobernuak 2024ko otsailaren 21ean onetsi zuen obra kontratuaren baimena, eta adierazi zuen baimen eskaera 2023ko azaroaren 20koa zela: kontratuaren lizitazioa 2023ko azaroaren 23an argitaratu zen. Kontratua 5,35 milioiko zenbatekoan adjudikatu zen 2024ko martxoaren 5ean, jada Gobernuak baimena emana zuenean.

• Zorpetze-eragiketa baimentzeko espedientearen izapidetzeari dagokionez, espedientean jasota dago CPENen txostena, eragiketaren aldekoa dena. Hala ere, onartzen du "% *4 inguruko*" errentagarritasun zenbatetsia kalkulatzeko funtsezkoa dela pabiloiaren hondar-balioa zehaztea; izan ere, txikiagoa balitz, "*errentagarritasun negatiboak izateko aukera egongo litzateke*".

Jasota dago, halaber, Next Generation – Ekonomiako Zuzendaritza Nagusiaren txostena, Nasuvinsak proiektuaren errentagarritasun zenbatetsia gainbaloratzen duela uste duena. Zehazki, adierazten du erosteko aukeraren ekitaldiko prezioak, errentagarritasunerako erabakigarriak direnak, doitu egin direla urteko % 4ko errentagarritasuna eman dezaten.

Eragiketari buruzko txostenean, Nasuvinsak dio erosteko aukeraren prezioak "*irizpide teknikoekin*" ezarri zirela. Aldiz, Next Generation – Ekonomiako Zuzendaritza Nagusiaren txostena egitean, eskatu zen azaltzeko proiektuaren errentagarritasuna kalkulatzeko orduan zergatik ez zen erabiltzen kontratuaren amaieran pabiloiak izango zuen hondar balio garbia, "*inbertsio analisietan ohikoa dena*". Erantzuna izan zen kontratuan hitzartutako erosketa aukera erabili zela, "*hondar balioa baino handiagoa baita, itzulerako barne tasa ez jaisteko kalkulatuta dagoelako*". Horren guztiaren ondorioz, aipatutako zuzendaritza nagusiak ondorioztatu zuen prezioak "*arbitrarioki finkatu*" zirela "*urtero % 4ko errentagarritasuna lortzeko*".

• Kontrako txosten horren aurrean, 2024ko abenduan, Nasuvinsako gerenteak proposamena egin zion Enpresen Sustapenerako zuzendari nagusiari, ordura arte egindako gastua justifikatuz (2,35 milioi) eta egitasmoa Zuzendaritza Nagusiaren kapital transferentzien partidekin finantzatzea proposatuz. Planteamendu hori geldiarazi egin zen, etete eragozpen-ohar bat jarri zuelako kontu-hartzailetza delegatuak aipatu departamentuan.

• Ondorioz, hasieran planteatutako zorpetze eragiketa baimentzeko proposamena izapidetzeari ekin zitzaion berriro, eta proposamena Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, zeina 2025eko urtarrilaren 15ean onetsi baitzen.

Enpresen Sustapenerako zuzendari nagusiaren 2025eko urtarrilaren 9ko txostenak, espedientean sartu denak, proiektuak eskualdearen garapen ekonomikorako duen izaera estrategikoan oinarritzen du proposamena, eta baimenik ez emateak ekar ditzakeen ondorio juridikoez eta ekonomikoez ohartarazten du. Ondorio horiek obren enpresa adjudikaziodunari eman beharreko balizko kalte-ordainak lirateke (dagoeneko martxan den obra geldiarazteagatik), bai eta 2022an sinatutako kontratua ez betetzeagatik Ensambla Madera SLk jar lezakeen demandatik eratorritakoak. Hori ez dago kontraesanean Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren txostenetan jasotako errentagarritasunaren eta finantza-arriskuaren azterketarekin.

Gure azterketatik, honako konklusio hauek nabarmentzen ditugu:

• Nasuvinsak 2022an sinatu zuen Ensambla Madera SLrekin erosteko aukera ematen duen errentamendu kontratua.

• Obra finantzatzeko beharrezkoa den zorpetze eragiketarako baimen eskaera Gobernuari helarazi zitzaion, eta 2025eko urtarrilean onetsi zen. Obra 2024tik egiten ari ziren, eta, finantzaketa bermatuta izan aurretik, gutxienez 2,35 milioiko gastuak eginda zeuden dagoeneko, eta horrek Gobernuaren erabakia baldintzatu ahal izan zuen.

• Nafarroako Gobernuak zorpetze eragiketa baimentzeko eskaera arrazoitzeko, eskualdeko garapen ekonomikoa sustatzeko arrazoiak eman ziren, bai eta baimenik eman ezean foru sektore publikoari ekarriko litzaizkiokeen erantzukizunak ere.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

• *Administrazio Kontseiluei egindako proposamenen txostenetan inbertsio-eragiketen arriskuen analisia sartzea.*

• *Nafarroako Gobernuak obrak kontratatzeko egiten dituen baimen-eskaeretan, dagozkion kontratuen ondorioz sortuko den gastuaren finantzaketaren eskuragarritasuna egiaztatzea.*

Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala

2024ko irailean "Eraikuntzari eta arkitekturari aplikatutako industrializazioa eta robotika sustatzeko fundazioa/Bulding & Architecture Institute (BAI)" eratu zen, eta 2024ko urrian inskribatu zen Nafarroako Fundazioen Erregistroan. Foru fundazio bat da, irabazi-asmorik gabea eta iraunkorra, eta bere helburu estatutarioak hauek dira:

a) *Eraikuntzari eta arkitekturari aplikatutako industrializazioari eta robotikari buruzko erreferentziazko zentro nazional bat sortzeko eta instalatzeko proiektua bultzatzea.*

b) *Eraikuntzaren industrializazioaren eta robotikaren arloko ezagutzan aurrera egitea, ekoizpen prozesuen efizientzia eta kalitate handiagoa bilatuz.*

c) *Industrializazioaren eta eraikuntzaren robotikaren sektoreko prestakuntza, talentua lan egiteko modu berrietara bideratuz eta profesionalak ekoizpen ereduen aldaketetara egokitzea erraztuz.*

d) *Eraikuntza sektorearen industrializazioari, robotizazioari eta jasangarritasunari lotutako teknologiaren transferentzia, eraikuntza sistemako eragile guztien funtzionatzeko moduan teknologia hori aplikatzea lortuz.*

Fundazioa pribatua da, eta Patronatua bederatzi kidek osatzen dute: hiru NFKAko ordezkariak dira[40], bat NUPekoa eta gainerakoak sektore pribatukoak. Horri dagokionez, adierazten dugu NFKAk patronatuan duen ordezkaritza minoritarioak erabakiak hartzerakoan eragiteko gaitasun mugatua dakarrela.

- **Proiektua esleitzea (diseinua, eraikuntza-proiektua eta obra-zuzendaritza)**

Nasuvinsak bi arkitektok osatutako talde bati esleitu zion kontratua 2021ean Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren (aurrerantzean, Zentroa) diseinua, heziketa-garapena, birgaikuntzako eraikuntza-proiektua eta obra-zuzendaritza bere gain hartzeko, 2021eko irailaren 8ko justifikazio txosten baten arabera.

- **Partzelaren erosketa**

Zentroa kokatuko den partzela NUPeko udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan dago, eta "Hiri-lurzoru finkatugabe" gisa sailkatuta dago, "zuzkidura-erabilera xehatu publiko" gisa. Bertan dagoen eraikuntza "antolamenduz kanpoko" gisa sailkatuta dago. Udalez gaindiko plan sektorialen aurreikusitako jarduketa-sistema desjabetzea da, eta NUP izango da zuzkidura horren titularra.

Hala ere, Nasuvinsak 2021eko azaroan erosi zuen partzela, 650.000 euroren truke. Prezio hori merkatuko prezioaren arabera ezarri zen, eta 2021eko urrian egindako peritu txostenean dago jasota. Txostenak partzelak NUPeko udalez gaindiko plan sektorialean zuen lege egoerari buruz ohartarazi zuen. Ondoren, 2022ko urrian, Ondare Zerbitzuak peritu txosten bat eskatu zuen partzelaren erosketa datari buruz, eta egindako balorazioa aipatutako lehen balorazioarekin ia bat zetorren.

Bestalde, beharrezkoa zen NUPeko udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa bat tramitatzea, geroago aipatuko duguna.

Inguruabar horiek direla-eta, proiektua asko atzeratu da.

[40] Nafarroako Gobernuak 2024ko ekainaren 19an onetsi zuen, hurrenez hurren, Industria, Etxebizitza eta Unibertsitate gaietan eskumena duten departamentuetako titularrak izendatzea NFKAko ordezkari, fundazioan parte har zezaten.

• **Zentroko obra-kontratuaren lizitazioak**

Zentroa eraikitzeko obra-kontratua 2022ko maiatzean lizitatu zen lehen aldiz, datu hauen arabera:

Lizitazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Balio zenbatetsia BEZik gabe	Adjudikazio-prozedura	Aurreikusitako finantzaketa
5.273.137	5.800.451	Europak ezarritako atalasea gainditzen duen prozedura irekia	3.367.041

Lizitazio hori titulartasun pribatuko partzela baten gainean egin zen, NUPeko udalez gaindiko plan sektorialean ezarritakoaren kontra; bertan, titulartasun publikoko eta zuzkidura-lurzoruaren kalifikazioa zuen partzela batean egitea jasotzen zen, eta aurreikusitako jarduketa sistema NUPen aldeko desjabetzearena zen. Ondorioz, Lurralde Antolamenduko Atalak ezezko ebazpena eman zuen 2022ko maiatzaren 17an, Nasuvinsak aurkeztutako obra lizentzia eskaeraren gainean.

Nasuvinsak atzera egin zuen, eta, ondoren, Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak atzera egitea onetsi zuen 2022ko ekainaren 7an.

2025eko martxoaren 24an (lizitazio berria baino sei egun lehenago), Nasuvinsako gerenteak, kontratazio-mahaiak proposatuta, uko egin zion lizitazioaren adjudikazioari, eta egoera horren berri eman zitzaien eskaintza bat aurkeztu zuten sei lizitatzaileei.

2023tik 2025era hainbat jarduera egin ziren zentroa eraiki ahal izateko. 2023an, hasierako eta behin betiko onetsi zen NUPeko udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa, partzelan irakaskuntzarako eta ikerketarako erabilerak ezarri ahal izateko. 2024ko martxoan, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiak, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eskatuta (NUPeko errektorearekin ados jarrita), NFKAren zenbait etxebizitza Nasuvinsaren jabetzako higiezinekin trukatzea onetsi zuen, eta partzela Unibertsitateko aipatu departamentuari adskribatu zion.

Hala ere, ondorengo gertakari gisa, honako hauek adierazten ditugu:

a) 2025eko martxoaren 13an, Unibertsitateko zuzendari nagusiak Nasuvinsari 2025-2027 aldian zentroa gauzatzeko eta abian jartzeko lanak enkargatzea onetsi zuen, 9,05 milioiko aurrekontuarekin. 2025eko apirilaren 1ean, Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak obrak eta jarduera sailkatua egiteko baimena eman zuen.

b) 2025eko martxoaren 31n, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren, Nasuvinsak obra-kontratuaren lizitazio berria argitaratu zuen, datu hauekin:

Lizitazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Zenbatetsitako balioa BEZik gabe	Adjudikazio-prozedura	Aurreikusitako finantzaketa Europako funtsak*
6456368*	7.102.004	Europak ezarritako atalasea gainditzen duen prozedura irekia	1.625.213

*Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak

Lizitazio balio berriari dagokionez, NUPeko udalez gaindiko plan sektoriala behin betiko aldatu ondoren, aldaketak egin ziren obra gauzatzeko proiektuan[41], eta horrek nabarmen handitu zuen aurrekontua, proiektuan sartutako erabaki teknikoak justifikazio gisa jarrita.

Txosten hau egin den egunean, obra adjudikatuta dago eta egiten ari da.

[41] Dokumentua: 2024ko martxoko exekuzio proiektu aldatuaren memoria, 2024ko maiatzaren 8an Arkitektoen Elkargo Ofizialean ikus-onetsia.

- **Finantzaketa**

a) Fundazioaren funtzionamendua.

Ganbera honetan eskuragarri dagoen dokumentazioaren arabera, fundazioa NFKAren eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioaren (aurrerantzean MIVAU) dirulaguntzen bidez finantzatzen da soilik, finantzaketa-hitzarmenak sinatuz. Hona hemen datu horiek jasotzen dituen taula:

	Exekuzio epea	Zenbatekoa	Kontzeptua	Erakunde finantzatzailea
2024	2024-2025	300.000	Prestakuntza	NFKA
2024	2024-2025	270.000	Funtzionalitatea	MIVAU*
Guztira		**570.000**		

* 2024ko abenduaren 11n, hitzarmen bat sinatu zen Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean, Zentroaren funtzionamendurako 300.000 euroko dirulaguntza bat bideratzeko.

Ondorengo gertakari gisa, adierazten dugu 2025eko eta 2026ko ekitaldietako finantzaketa honako hau dela:

	Exekuzio epea	Zenbatekoa	Kontzeptua	Erakunde finantzatzailea
2025	2025-2026	300.000	Prestakuntza	NFKA
2025	2025-2026	300.000	Funtzionalitatea	MIVAU*
2026**	2026-2027	100.000	Prestakuntzako ekipamendua	NFKA
2026**	2026-2027	200.000	Prestakuntza	NFKA

* 2025eko azaroaren 28an, hitzarmen bat sinatu zen Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean, Zentroaren funtzionamendurako 300.000 euroko dirulaguntza bat bideratzeko.
** Funtsak aurreikusita daude 16/2025 Foru Legean, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

b) Obra gauzatzea[42]

Hurrengo koadroak Zentroa gauzatzeko finantzaketa laburbiltzen du:

	2022	2023	2024	2025	2026	2027	Guztira
MRR PIREP[43]	1.625.213	-	-	-	-	-	1.625.213
Industria Ministerioa[44]	-	2.000.000	-	-	-	-	2.000.000
Diru-sarrerak guztira	**1.625.213**	**2.000.000**	**-**	**-**	**-**	**-**	**3.625.213**
Nasuvinsari egindako enkargua	-	-	-	2.823.862	6.181.794	42.468	9.048.134
Gastuak guztira	**-**	**-**	**-**	**2.823.862**	**6.181.794**	**42.468**	**9.048.134**

Proiektu osoan aurreikusitako 9,05 milioiko gastutik, MRR PIREP funtsen eta Industria Ministerioaren dirulaguntzek % 40 estaltzen dute, hau da, 3,63 milioi. Dirulaguntza horiek funtzionamendu eta justifikazio irizpide desberdinen arabera arautzen dira. NFKAren aurreikusitako aurrekontu-ekarpen garbia bi kopuruen arteko aldea izango litzateke, 5,42 milioi.

Proiektuaren barruan, PIREP funtsen dirulaguntza Zentroa eraikitzera bideratuta dago; Industria Ministerioarena, berriz, lantegi-pabiloia egokitzera eta birgaitzera, bertan egingo baitira zentroko industria-jarduerak.

[42] b) letrako testua, Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurkeztutako alegazioen arabera aldatua.
[43] MRR Funtsak (Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa), Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarekin sinatutako hitzarmenaren barruan. Funts horiek Nafarroako Gobernuaren 2021eko abenduaren 22ko Erabakiaren bidez onetsi ziren, Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programa (PIREP) gauzatzeko. Programa horretan sartzen da BAI.
[44] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (egungo Industria eta Turismo Ministerioa). Dirulaguntza izenduna, 2022ko azaroaren 24ko Aginduaren bidez.

Nolanahi ere, dirulaguntzengatiko diru-sarrerak lortzeko, Nafarroako Gobernuak obrak amaitzeko hitzemandako datak bete behar ziren. Hauek ziren, landa lana egin zenean:

Konpromisoak Nafarroako Gobernua	MRR PIREP	Industria Ministerioa
Obren amaiera data	2026ko martxoaren 31*	14 hilabete formalizatzen denetik obra-kontratua (2026ko urria)**

* Hasiera batean: 2024ko martxoak 30a.
** Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioren 2022ko azaroaren 24ko Aginduaren arabera.

Proiektua idatzi zuen taldearen hasierako memorian, Zentroa eraikitzeko jarduerak 2023ko urtarrilean hastea aurreikusten zen, eta urte bereko ekainean erabateko eraginkortasuna lortzea. Ondoren, barne txostenetan jasotakoaren arabera, proiektuaren garapena berandutzeak hasieran hitzemandako epeak ez betetzeko arriskua sortzen du, "*... eta, beraz, ezinbestekoa izango da epe horiek berriro negoziatzea*".

2024ko abenduaren amaieran, obra-kontratua lizitatu gabe zegoen, eta ez zegoen obra lizentziarik[45]. Beraz, kontuan hartuta baldintza-agirian Zentroaren obra egiteko ezarritako epea 15 hilabetekoa zela, uste dugu 2024ko abenduaren 31n arriskua zegoela dirulaguntza ematean aurreikusitako mugarriak ez betetzeko, eta, ondorioz, jasotako MMR PIREP funtsak itzuli behar izatea.

Hala ere, geroagoko gertakari bezala nabarmentzen dugu 2026ko otsailaren 19an, sinatu zela "Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak (orain Etxebizitzako eta Hiri Agendako Ministerioa) eta Nafarroako Foru Komunitateak (Lurralde Kohesiorako Departamentua) eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko programa gauzatzeko 2021eko abenduaren 30ean sinatutako lankidetza hitzarmenean jasotako epea aldatzeko gehigarria", eta bertan erabakitzen dela jarduketak amaitzeko epea aldatzea, besteak beste, "Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa" jarduketan, eta obrak amaitzeko gehieneko data 2026ko ekainaren 30a ezartzea, hitzarmenean aurreikusitako 2026ko martxoaren 31koa ordezkatuz.

Gaur egun, obrak 2026ko abenduan amaitzea aurreikusten da. Hala ere, adierazi behar da Foru Komunitateak jasotako MMR PIREP funtsak eraikin publikoak birgaitzeko bost proiektutara zabaltzen direla, eta horietako bakarra exekutatuta, Foru Komunitateri funts horiek ematean ezarritako helburu orokorrak betetzen direla.

Amaitzeko, fundazioaren aurreikusitako jarduerak Estatuan eta nazioartean lehiatzera bideratuta daude, bai prestakuntza akademikoan, bai ikerketan, bai proiektu pilotuen prestakuntzan.

[45] Kontratua 2025eko irailean formalizatu zen.

7. GEHIGARRIA. BELATEKO KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Aurrekariak

Hauek dira kontratuaren aurrekariak:

• “Belateko eta Almandozeko tunelak bikoiztea” obraren eraikuntza proiektua idazteko kontratua 2020ko irailaren 30ean esleitu zen, 1.059.449,63 euroan, BEZa barne. Belateko tunela eraikitzeko proiektua Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 13ko 1/2023 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

• “Belateko tunela bikoiztea” obra-kontratua 2023ko abenduaren 26an esleitu zitzaion, 76.086.980 euroan (BEZa barne), Túnel Belate aldi baterako enpresa-elkarteari –“Acciona Construcción SA, Servinabar 2.000 SL eta Excavaciones Fermín Oses SL” (aurrerantzean, ABEE adjudikazioduna edo kontratista)–, 45 hilabeteko iraupenarekin eta gastuaren urte anitzeko honako banaketa honen arabera:

	Zenbatekoa
2024	19.694.702
2025	19.694.702
2026	19.694.702
2027	17.002.873
GUZTIRA	76.086.980

• “Belateko eta Almandozeko tunelak bikoiztea” obra-zuzendaritzako kontratua 2024ko urtarrilaren 19ean adjudikatu zen, 2.629.497 euroan, BEZa barne.

Hasieran onetsitako banaketari dagokionez, ondoren, Nafarroako Gobernuaren 2024ko uztailaren 24ko Erabakiaren bidez, urterokoak doitzeko baimena eman zen, obraren gauzatzearen errealitatera egokitzeko. Banaketa berria hurrengo taulan dago jasota:

	Zenbatekoa
2024	4.107.083
2025	23.194.702
2026	21.194.702
2027	17.002.873
GUZTIRA	76.086.980

2024ko abuztuaren 12an, Herri-lanen eta Azpiegituretako zuzendari nagusiak lan programa berria onetsi zuen, bai eta indarreko urterokoak doitzea ere, lehen aipatutako gobernu erabakiaren arabera. Hori bai, obrak amaitzeko data ez zen aldatu.

2023ko ekitaldiko kontuetan egin genuen obra-kontratuaren fiskalizazioaren irismena adjudikazioaren unera arte iristen zen. Ez zen fiskalizazioaren irismenaren barruan sartu ez proiektua idazteko kontratua ez obra-zuzendaritza.

Fiskalizazio honetan, berriz, irismena obra-kontratua 2024ko ekitaldian gauzatzeko faseari dagokio soilik, 2025eko ekitaldiko ondorengo gertaera esanguratsuak kontuan hartzearen kalterik gabe. Nolanahi ere, ez ditu alderdi erabat teknikoak berrikusi, eta balorazio ekonomikoak Ganbera honek eskuratu duen dokumentazioan agertzen diren prezioen eta aurrekontuen premisan oinarritzen dira.

Hurrengo koadroan, kontratuaren exekuzioan eragina izan duten 2024ko administrazio jarduera esanguratsuenen zerrenda zehaztu dugu.

	Data
Kontratuaren formalizazioa	2024/01/25
Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztea	2024/02/08
Zuinketa egiaztatzeko akta negatiboa	2024/02/26
Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloari kanpo-leherketaren proiekturako baimen-eskaera	2024/03/13
Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariak Segurtasun eta Osasun Plana onestea	2024/03/15
Behin betiko zuinketa-akta	2024/03/22
Obren hasiera	2024/03/23
Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloari barne-leherketen proiektua eta euste-proiektua aurkeztea	2024/04/04
Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzak Industria Antolatzeko, Energia Azpiegituretako eta Meatzeetako Zerbitzuari barne-leherketen proiektua eta euste-proiektua bidaltzea eta aurkeztea	2024/05/03
Meatzeen Atalak barne-leherketen proiektuari eta euste-proiektuari egindako lehen errekerimendua	2024/06/11
ABEEak errekerimenduari lehen aldiz erantzutea	2024/07/04
Meatzeen Atalak euste-proiektuari egindako bigarren errekerimendua	2024/08/08
Meatzeen Atalak barne-leherketen proiektuari egindako bigarren errekerimendua	2024/11/11
ABEEak euste-proiektuaren bigarren errekerimenduari erantzutea	2024/09/20
Meatzeen Atalaren hirugarren errekerimendua	2024/10/01
ABEEak euste-proiektuaren hirugarren errekerimenduari erantzutea	2024/10/01
Meatzeen Atalak Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egitea	2024/10/09
760/2024 Ebazpena, Herri-lanen eta Azpiegituretako zuzendari nagusiarena, “Eustearen egunaratze” gisa aurkeztutako dokumentazioa onesten duena.	2024/10/10
Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren ebazpena, euste-proiektua onesten duena	2024/10/14
852/2024 Ebazpena, Herri-lanen zuzendari nagusiarena, Belateko tunela bikoizteko obren proiektuaren 1. aldaketa izapidetzeari baiezkoa emateko	2024/11/28

Obren lizitazioaren aurretik, 2023ko otsailaren 2an, Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariak sinatutako nahitaezko zuinketako eta lurren[46] erabilgarritasuneko akta formalizatu zen, honako hau kontuan hartuta: *“lanak bideragarriak dira eta obrak lizitaziorako beharrezkoak diren baimen guztiak ditu*”.

2024ko urtarrilaren 25ean kontratua formalizatu zen, eta KPFLrekin bat etorriz, 2024ko otsailaren 26an zuinketa egiaztatzeko ekintza egin zen. Ezezko akta bat egin zen, obrak hastea baldintzatu edo eragotzi zezaketen erreserbak adierazteko.

Ondoren, behin betiko zuinketa egiaztatu zen, eta 2024ko martxoaren 22an dagokion akta egin zen, non kontratistak eta obra-zuzendaritzak berak erreserbak adierazten jarraitzen duten.

Ziurtagiriak

Ziurtagirien espedienteak berrikusi ditugu, eta dokumentu hauek dituzte:

- Obra-zuzendaritzak emandako hileko ziurtagiria, Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariaren eta kontu-hartzaile delegatuaren sinadurekin. Azken sinadura horri dagokionez, badira ziurtagiriak, eta horietan kontu-hartzailetzak txosten osagarriak egin ditu, geroago aipatuko ditugunak.

- Obraren jarraipenari buruzko hileko txostena, obra-zuzendaritzak sinatua.

- Hala badagokio, prezio kontrajarriak onesteko txostena, eraikuntza-proiektuan aurreikusi gabeko obra-unitate berriak sartzeagatik; obra-zuzendaritzak proposatzen ditu, eta, ondoren, kontratistak, obra-

[46] KPFLren 165. artikulua.

zuzendaritzak berak eta Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariak sinatu. Era berean, prezio kontrajarrien akta bat erantsi da, ABEE adjudikaziodunak eta obra-zuzendaritzak sinatua.

- Azpiegitura Berrien Zerbitzuaren proposamen txostena, obra-ziurtagiriak onestea eta ordaintzea proposatzen duena.

- Ebazpena, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiarena, ziurtagiria eta ordainketa onesten dituena, bai eta, hala badagokio, proposatutako prezio kontrajarriak ere.

- Faktura.

Hurrengo koadroan 2024ko ekitaldiko obra ziurtagiriak islatzen dira, landa lana gauzatzeko fasean jasotako dokumentazioaren arabera. Kontratua gauzatzean, prezio kontrajarriak onetsi dira bata bestearen atzetik, eta prezio horiek dagozkien ziurtagirietan identifikatu dira:

2024	Ziurtagiri data	Zenbatekoa	Onespen data	Ordainketa data	Prezio kontrajarriak	Gastu handiagoaren zenbatespena
1. ziurtagiria	2024/04/30	67.282	2024/06/13	2024/06/26		
2. ziurtagiria	2024/05/31	194.783	2024/07/04	2024/07/12	PK-001	153.409
3. ziurtagiria	2024/06/30	103.325	2024/07/24	2024/07/31		
4. ziurtagiria	2024/07/31	606.980	2024/09/13	2024/09/18	PK (002tik 10era)	651.224
5. ziurtagiria	2024/08/31	390.096	2024/09/24	2024/10/02	PK (11tik 17ra)	542.564
6. ziurtagiria	2024/09/30	732.597	2024/11/04	2024/11/13		
7. ziurtagiria	2024/10/31	1.292.385	2024/12/19	2024/12/24	PK (18tik 27ra)	5.861.504
8. ziurtagiria	2024/11/30	2.130.494	2024/12/19	2024/12/24		
GUZTIRA 2024		5.517.942				7.208.701

Adierazten dugu aldi berean onetsi direla unitate berriak eta horien prezio kontrajarriak, partzialki gauzatzearekin bat, ziurtagiri berean edo ondorengoetan.

Bi gai esanguratsu nabarmendu nahi ditugu:

- 2024ko uztailari dagokion laugarren ziurtapenetik aurrera, plangintza orokorrarekiko desbideratzeak daudela jakinarazten hasi zen.

- 2024ko azaroaren 25ean, obra-zuzendaritzak txosten bat egin zuen, eta eraikuntza-proiektua aldatu behar zela proposatu zuen, tunelaren mantentze lanen eguneratzea eta beste aldaketa batzuk barne hartuta. Izan ere, onesten joandako prezio kontrajarri berrien gastuaren zenbatespenek, kontratu aurreikuspenak gainditzen dituzte (% 10etik gora). Proposamen horren ondorioz, Herri-lanen zuzendari nagusiaren 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpena onetsiko zen, zeinaren bidez obren proiektuaren 1. aldaketa izapidetzeari adostasuna eman zitzaion (geroago aipatuko dugu).

Ziurtagirien berrikuspenari dagokionez, alderdirik esanguratsuenak aipatuko ditugu jarraian:

- **1. obra-ziurtagiria (2024/04/30)**

Ziurtagiria 2024ko apirilean egindako lanei buruzkoa da, eta, batez ere, lurrak berdintzeko eta neurketa topografikoak egiteko lehen lanak hartzen ditu.

Kontu-hartzaile delegatuaren txosten bat dago, eragozpen-ohar ez etetzaile bat duena, honako gai hauetan oinarritzen dena:

- Segurtasun eta Osasun Plana atzerapenarekin onartzea[47]

[47] Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez onetsi zen, 2024ko martxoaren 15ean.

- Industria Departamentuaren baimena falta da erdi-tentsioko aireko linea bat desbideratzeko euskarri berria muntatzeko.

- Eragindako zerbitzuen gaineko erreserbak, proiektuan gutxi definitzen baitira.

Kontu-hartzailetza delegatuaren ondorioa da, bere ustez, proiektua ez dela behar bezala gainbegiratu[48], eta horrek obren hasieran gertatutako atzerapenak saihestuko zituzkeela nabarmendu du. Are, aurreko jarduketak gogoan, egoera horretaz ohartarazi duen lehen aldia ez dela ere badio.

Bestalde, obra-zuzendaritzak egiten duen hileko txostenean baieztatzen denez, [49] dekantazio-putzuak dimentsionatzeko proiektuaren proposamena 8 l/s-ko emarian oinarrituta egin zen, egungo tunelek drainatzen duten emariari dagokiona, tunelen ahoetan neurtuta. Txosten horretan jasotzen denez, "*emarien balizko igoera baten aurrean arintze-neurri gisa, tamaina handiagoko putzu mailakatuak eraikitzea proposatzen da (sedimentazioa erraztuko du), tunelen indusketan aurrera egiten den eremuetan emari-tontor handiagoak xurgatzeko gai izango direnak eta indusketan erabilitako produktuekin (lohiak) nahastuta azaleratutako urak drainatzeko gai izango direnak*".

- **3. obra-ziurtagiria (2024/06/30)**

Hirugarren ziurtagiria ekainean egindako lanei dagokie, batez ere drainatze lanei.

Hileko txostenari dagokion dokumentazioan, besteak beste, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana" dokumentua sartzen da, ABEE adjudikaziodunak kontratatutako aholkularitza batek egindako txostenarekin bat datorrena.

Obra-zuzendaritzak, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlanari buruzko iruzkinak" dokumentuan, 2024ko ekainaren 21ean, aipatutako aholkularitzak eraikuntza proiektuari eragiten dioten hurrengo aldaketa hauei buruz planteatutako proposamenen balorazio ekonomikoa egin zuen:

a) Eraikuntza-proiektuan aurreikusitako hondeaketa sistema (sekzio osoa + hondeaketa sekuentzialeko metodoa) ordeztea, tunel osorako hondeaketa sekuentzialeko metodoa hobetsiz. Prezio kontrajarriak[50] 2024ko urriaren 31ko zazpigarren ziurtagirian onetsi ziren.

b) Zertxa erretikularren ordez[51] HEB-160 zertxak jartzea. Prezio kontrajarriak[52] 2024ko urriaren 31ko zazpigarren ziurtagirian onetsi ziren.

c) Hormigoi armatua indartzea, zuntz metalikoen bidez eustearen ordez zuntz sintetikoak erabiliz. Prezio kontrajarriak[53] 2024ko urriaren 31ko zazpigarren ziurtagirian onetsi ziren.

d) Proiektatutako hormigoia bost zentimetroko lodieran handitzea. Prezio kontrajarriak[54] 2024ko urriaren 31ko zazpigarren ziurtagirian onetsi ziren.

Aldaketa horiek guztiak obra-zuzendaritzak baloratu ditu, eraikuntza-proiektuaren neurketen eta prezioen arabera, 1,43 milioi aurreztuta, hurrengo taularen arabera[55]:

ABEEaren proposamenaren eragina guztira	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Hondeaketa	-3.949.004
Eustea (zertxak + zuntzak + hormigoia)	2.519.687
Guztira (Aurrezkia)	**-1.429.317**

Obra-zuzendaritzak, aipatutako txostenean, honako hau adierazi zuen: "*Lortutako emaitzetan oinarrituta, Belateko tunela hondeaketa sekuentzialeko metodoa erabilita induskatzeko eraikuntza-enpresaren proposamena, proiektuaren prezioetan, proiektuan aurreikusitakoa baino merkeagoa da ST-*

[48] KPFLren 185. artikulua.
[49] N-121-A errepideko Belateko tunela bikoizteko proiektuaren azterketa hidrologikoaren txostena (2024ko apirila).
[50] PK (21etik 25era).
[51] Zertxak, funtsean, tunelak hondeatzeko euskarri gisa erabiltzen diren altzairuzko arkuak dira.
[52] PK 26.
[53] PK 27.
[54] PK 27.
[55] Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurkeztutako 2. alegazioaren arabera sartutako taula

I, ST-II eta ST-IIIA lursailak sekzio osoan induskatuko balira". Eusteari buruzko atalean adierazi zuen "*garestiagoa*" zela edo "*kostu gehigarrien igoera*" eragiten zuela.

Hala ere, aurreikuspen ekonomiko horrek, Meatzeen Atalak emandako informazioaren arabera lanaren eztabaida teknikoaren fasean, akats bat du proiektuaren hondeaketa-aurrekontuaren kuantifikazioan, bai eta hormigoiaren eustearekin lotutako beste akats batzuk ere. Honela dio: "*Laburbilduz, obra-uzendaritzak, eraikuntza-proiektuaren aurrekontuari dagokionez, guztira 3.049.749,91 euro ez zituen kontuan hartu*".[56]

Aipatutako kuantifikazio berriaren arabera, aurkeztutako proposamenak Gauzatze Materialaren Aurrekontuan (PEM) duen eragina honako hau da:

ABEEaren proposamenaren eragina guztira, eraikuntza-proiektuaren prezioetan	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Hondeaketa	-6.998.803
Eustea (zertxak + zuntzak + hormigoia)	2.395.581
Guztira (Aurrezkia)	**-4.603.222**

Obra-zuzendaritzak, ondorengo txostenetan, egindako kalkulu-akatsa zuzendu du.

Azterlanean proposatutako aldaketez gain, honako erabaki hauek hartu ziren, eta, hala badagokio, etorkizuneko aldaketak ekarriko dituzte:

a) Zazpi piezometro instalatzea eta horien jarraipena egitea, mendigune harritsuaren maila freatikoaren bilakaera aztertzeko eta jarraipena egiteko, konfederazio hidrografikoei erantzuteko, geruza freatikoaren mailak eta ziklo hidrologikoarekiko aldaketak kontrolatzeari dagokionez, obra egin aurretik eta egin bitartean –"*proiektuaren gabeziatzat*" hartzen da–. Proiektuan aurreikusi gabeko unitate bakoitzeko 424.958 euroko gainkostua aurreikusten da. Prezio kontrajarriak[57] zazpigarren obra ziurtagirian onetsi ziren.

b) Hondakin-urentzako industria-araztegi bat instalatzea, eraikuntza-proiektuan aurreikusitako iragazketa-uraren emariaren inguruko zalantzak daudelako eta justifikaziorik ez dagoelako (8 l/s). Zalantza horiek dagoeneko obra-zuzendaritzak agerian jarri zituen 2024ko apirileko txosten hidrologikoan, lehen aipatu dugun lehen ziurtagirian, hileko txostenaren barruan, non "*tamaina handiagoko putzu mailakatuak eraikitzea*" proposatu zen, bi araztegi eraikitzea aipatu gabe. Prezio kontrajarriaren onarpena[58] laugarren ziurtagirian egin zen.

c) Trafikoa moztea. Ekainaren 12an, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak trafikoa etetea erabaki zuen (hasiera batean aurreikusi gabe zegoen), uztailaren 15etik urriaren 15era zehazki; neurri seguruagotzat jo zen, lur-erauzketa jakin batzuk egiteko kanpoko leherketak egin behar zirelako. N-121 errepidea 2024ko abuztuaren 19an hasi zen behin betiko mozten, eta 2024ko urriaren 31n ireki zen. Berrikusitako ziurtagirietan ez dago jasota neurri horrek gastu handiagoa eragin duenik.

Obra-ziurtagirien ondorengo egitate gisa, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

–15. ziurtagirian, kontu-hartzaile nagusiak 2025eko abuztuaren 14an jakinarazi zion Herri-lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari obraren espedienteen gaineko ardura bereganatzen zuela, eta, beraz, data horretatik aurrera, espediente horien aurretiazko fiskalizazio izapidea zuzenean kontu-hartzaile nagusiari bidali beharko zitzaiola.

–2025eko azaroaren 26an, etete eragozpen-ohar bat igorri zuen kontu-hartzaile nagusiak. Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak onetsi egin zuen etete eragozpen-oharra, eta, beraz, amaitutzat eman zen kontratua aldatzeko 1. prozedura. Horrek, gainera, honakoa esan nahi du: "*izapidetzean zehar egin eta ordaindutako ziurtagiri guztiak behin-behineko konturako ordainketatzat hartuko dira, aldatutako proiektua onetsi edo ez egin daitezkeen zuzenketa eta aldaketen mende, bereziki hasierako proiektuan*

[56] Lurralde Kohesiorako Departamenturen 2. alegazioaren eta Industria Departamentuaren X. alegazioaren arabera aldatutako paragrafoa
[57] PK 11 eta 15.
[58] PK (04tik 10era).

aurreikusi gabeko obra-unitateak dituzten ziurtagirien kasuan, edo aldatutako proposamen teknikoan agertzen diren prezioak erreferentziatzat hartu dituzten obra-unitateak".

Eraikuntza-proiektuaren aldaketa izapidetzea

- Aldez aurreko izaerarekin, Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren 2024ko urriaren 14ko 139/2024 Ebazpenak euste-proiektuaren aldeko txostena eman zuen.

- Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpena onetsi zuen, zeinaren bidez obra-proiektuaren 1. aldaketa ezarritako izapideen arabera izapidetzeari adostasuna ematen baitzaio – 7,6 milioiko gehieneko zenbatekoarekin Gauzatze Materialaren Aurrekontuan, BEZik gabe (% 11,22ko igoera), aldaketa guztietarako–, KPFLren 143.3 artikuluan ezarritako izapideen arabera. Era berean, obrak behin-behinean jarraitzea baimendu zuen, interes publikoari kalte larririk ez eragiteko.

Izapide horrek, aipatu 143.3 artikuluak ezartzen duen bezala, esan nahi du kontratazio-organoak ebazpena ematen duenetik hasita, proiektu teknikoa sei hilabeteko epean onetsi behar dela eta kontratua aldatzeko espedientea zortzi hilabeteko epean.

Ondorengo gertakari gisa, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

–Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 2025eko maiatzaren 28ko 192/2025 Ebazpenaren bidez, 1. aldaketaren proiektua onetsi zen, 7,6 milioiko igoera ekonomikoarekin, BEZik gabe (% 11,22ko igoera), aldaketa guztietarako. Zenbatekoa eta desbiderapen ehunekoa ez da aldatzen 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpenean aurreikusitakoarekin alderatuta.

–2025eko azaroaren 26an, jada aipatu bezala, etete eragozpen-ohar bat igorri zuen kontu-hartzaile nagusiak. Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak onetsi egin zuen etete eragozpen-oharra, eta, beraz, amaitutzat emango da kontratua aldatzeko 1. prozedura. Txosten hau egin den egunean, ez dago jasota auzia behin betiko ebatzi denik.

Meatzeen Atalaren errekerimenduak eta Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusiak leherketa eta euste proiektuetarako baimenak ematea[59].

- Belateko tunelaren bikoizketa eraikitzeko lanetan, Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiak eraikuntza-proiektuaren honako proiektu osagarri hauek baimendu ditu:
    - Kanpoko leherketen proiektua[60], 2024ko abuztuaren 14an onetsia
    - Bolborategiaren euste-proiektua, 2024ko irailaren 13an onetsia
    - Tunelaren euste-proiektua, 2024ko urriaren 14an onetsia
    - Barneko leherketen proiektua[61], 2025eko urtarrilaren 31n onetsia

- Tunelaren euste-proiektuari dagokionez, obra kontratua lizitatzeko balio duen eraikuntza-proiektuaren parte dela nabarmendu nahi dugu, zehazki, 06.01.01.02 EUSTEA apartatua.

- Eraikuntza-proiektuak hondeaketa-metodoak konbinatzea aurreikusten zuen: sekzio osoko hondeaketa-sistema eta hondeaketa sekuentzialeko metodoa, RMR indizearen arabera aplikatzen direnak[62]. Lurraren kalitatearen arabera, indize hori zenbait tartetan banatzen da, eta tarte horiek hondeaketa-metodo bat edo bestea gomendatzen dute. Belateko tunelaren eraikuntza-proiektuan, sekzio osoko indusketa luzera osoaren % 71,6an aplikatzekoa zen, eta, gainerakoa zatian, hondeaketa sekuentzialeko metodoa aplikatzekoa zen.

Barneko leherketako proiektua eta euste-proiektuak batera aurkeztu ziren 2024ko apirilaren 4an, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloan. Ondoren, 2024ko maiatzaren 3an, aipatutako ordezkaritzak Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta

[59] Egungo Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia.
[60] Adjudikaziodunak ezin du lehergailuen hornidura jaso leherketa-proiektuaren nahitaezko baimena ez badu.
[61] Adjudikaziodunak ezin du lehergailuen hornidura jaso leherketa-proiektuaren nahitaezko baimena ez badu.
[62] Rock Mass Rating (RMR) indizea sailkapen geomekaniko bat da, Bieniawskik garatua mendigune harritsu baten kalitatea ebaluatzeko, 0 eta 100 arteko balioa esleituz; esleitutako balioen arabera, hondeaketa eta euste metodo gomendagarriak erabakitzeko aukera ematen du.

Meatzeen Zerbitzura bidali zuen, izapidetzeko. Zerbitzu horretako Meatzeen Atalak ematen ditu dagozkion txosten teknikoak.

Barneko leherketen proiektua tunel osoa induskatzeko sistema batekin lotzen zen, hondeaketa sekuentzialeko metodoaren bidez, eta hori ez zetorren bat aurkeztutako euste-proiektuarekin (obra esleitu zen eraikuntza-proiektuaren euste-zatiarekin bat zetorren erabat). Hau da, esleitutako eraikuntza-proiektuak RMR>40 balioak zituzten lurretarako sekzio osoko hondeaketa soilik aurreikusten zuen, eta, RMR < 40 balioetarako, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketa; bada, balio horiek dira euste-proiektuaren lehen proposamenean aurkeztu zirenak.

Meatzeen Atalaren lehen errekerimendua 2024ko ekainaren 11n egin zen, eta ABEEak 2024ko uztailaren 4an erantzun zuen. Honela zioen hitzez hitz: *"tunelaren kasuan, eta azalpen hoberik ezean, RMR<50 balioetarako, sekzio osoko hondeaketa aldatu, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren alde egiteko*".

Meatzeen Atalak eskatu ondoren, ABEEak, beste dokumentazio batzuen artean, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana" dokumentua aurkeztu zuen. Dokumentu horretan, tunelaren indusketa guztia hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketa erabilita proposatzen da, tunelaren RMR balioak edozein direla ere.

Azterlan horrek hasieran aurkeztutako euste-proiektua aldatzea proposatzen du, eta hondeaketa- eta euste-sistemari dagokionez, honako gai hauetan zentratzen da nagusiki:

- Esleitutako eraikuntza-proiektuan, tunelaren eustea bi metodoak erabilita egitea aurreikusita zegoen (sekzio osoko hondeaketa tunelaren % 71,2an eta hondeaketa sekuentzialeko metodo bidezko hondeaketa tunelaren % 28,8an); tunelari eusteko zertxa erretikularren sistema bat erabiltzea ere jasota zegoen.

- Hasieran aurkeztutako euste-proiektua aldatu egin zen tunelaren indusketa osoa hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren sistemarekin egiteko (%100), eta, gainera, zertxa erretikularren ordez HEB 160 zertxak jartzea hobetsi zen[63].

Aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta eta 2024ko urriaren 1eko hirugarren errekerimenduaren ondoren, Meatzeen Atalak 2024ko urriaren 9an kontsulta egin zion Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari, eta obraren adjudikaziodunak eraikuntza-proiektuaren eusteari buruz erantsitako dokumentuetan aurkeztutako proposamena onartzeko edo adostasuna agertzeko eskatu zion.

Honako dokumentu hauek erantsi ziren:

a) Tunelaren eustearen eguneraketa, 2024ko urriaren 1eko datarekin[64].

b) Planoak, 2024ko irailaren 20ko datarekin.

c) Eguneratutako aurrekontua, 2024ko irailaren 20ko datarekin. Dokumentu horri dagokionez, adierazi eraikuntza-proiektuaren aurrekontu eguneratua dela (ez soilik eusteari dagokion zatiarena); izan ere, besteak beste, bi bolborategi (tunelaren aho bakoitzean bat) eta bi araztegi instalatzea jasotzen du, bai eta horien mantentze-lanak ere, geroago aipatuko ditugunak. Eguneratutako aurrekontuaren Gauzatze Materialaren Aurrekontua 74.455.393 eurokoa da.

2024ko urriaren 10ean, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak ebazpen bat onetsi zuen, eustearen eguneraketa gisa aurkeztutako dokumentazioari adostasuna emateko. Baimen horrekin, Meatzeen Atalak euste-proiektuaren aldeko txostena egin zuen, eta 2024ko urriaren 14an onetsi zen, Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

[63] Jatorrizko proiektuak tunelaren lehen 10 metroetarako baino ez ditu aurreikusten zertxa horiek.

[64] Dokumentu honek "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana" ordezkatzen du, baina dokumentu horren proposamen tekniko berarekin bat dator.

- Eustearen eguneratzeak tunel osorako hondeaketa sekuentzialeko metodoa erabiltzea aurreikusten duenez, hondeaketa sistema aldatu egin behar zen. Hondeaketa sistemaren aldaketari buruzko prezio kontrajarriak, bai eta tuneleko zertxak eta gunita ere, 2024ko urriko zazpigarren ziurtagirian onetsi ziren. Oro har, honako hau da 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpenean proposatutako aldaketak dakarren igoera:

Aldaketa-proposamenean onetsitako indusketa eta eustea	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Hondeaketa	1.042.319
Eustea	3.855.916

Dekantazio-putzuak eta araztegiak

Tunela eraikitzearen ondorioz isuritako lohiak tratatzeko sistemarako, esleitutako proiektuan “Lohien tratamendua” izeneko apartatu bat aurreikusi zen, dekantazio-putzu batzuk jasotzen zituena, 298.850 euroko aurrekontuarekin, honako xehetasun hauekin:

10.02 Lohien tratamendua	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Lohien plantaren partida jasoa	298.850

Eraikuntza-proiektuan, tuneleko ura husteko emari zenbatetsia 8 litro/segundokoa zen; txosten teknikoen arabera, emari hori ez da nahikoa. Are, obra gauzatu bitartean, kopuru hori baino askoz handiagoak izan dira.

Txosten tekniko horien arabera, beraz, proiektuak dekantazio-putzu batzuk aurreikusten zituen, eta putzu horiek ez dira nahikoak, ez bolumetrikoki, ez teknikoki, obran zehar agertu diren ur kopuruak tratatzeko, esan bezala, proiektuan aurreikusitakoak baino askoz handiagoak direnak.

Arazoa konpontzeko, proposatutako irtenbide alternatiboa tratamendu fisiko-kimikoa, dekantazioa, pH-a doitzea eta lohien deshidratazioa baliatzen dituzten bi araztegi instalatzea da.

Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 2024ko urriaren 10eko 760/2024 Ebazpenaren parte zen dokumentazioaren barruan, zenbateko hauek beharrezkoak izango zirela kalkulatu zen:

10.02 Lohien tratamendua	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Iparraldeko araztegiaren funtzionamendua eta mantentze-lanak	810.950
Hegoaldeko araztegiaren funtzionamendua eta mantentze-lanak	765.796
Guztira	**1.576.746**

Bolborategiak

Proiektuan lehergailuak erabiltzea aurreikusita zegoen, eta kontratistak bere eskaintzan aurreikusi behar zuen biltegiratzeko, garraiatzeko eta kokatzeko modua.

ABEE adjudikaziodunak gel/emultsio formako lehergailu-sistema bat aurkeztu zuen eskaintzan, tokian bertan fabrikatzen dena, eta leherrarazi eta suntsitu egiten dena. Horretarako, honako hau adierazi zuen: “*Lehergai horiek dagozkien lehergailuen minibolborategietan gordeko dira*”.

Hala ere, ABEEak ondoren aurkeztu zuen barneko leherketen proiektuan, lehergailu konbentzionalez osatutako leherketa-sistema bat planteatzen du, obraren beharretarako bolborategi egokiak eta eskaintzan aurreikusitakoak baino handiagoak instalatzea eskatzen duena, eta horrek ez dio administrazioaren ezein eskakizuni erantzuten.

Bestalde, 2024ko irailaren 20ko “Aurrekontu eguneratua” dokumentuak, lehen aipatutakoak, iparraldeko ahoan eta hegoaldeko ahoan 2,1 milioiko Gauzatze Materialaren Aurrekontua zuten bi bolborategi instalatzea aurreikusten zuen.

Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak 2024ko azaroaren 28an onetsitako 852/2024 ebazpenak iparraldeko ahoko bolborategia baino ez zuen jasotzen, datu hauekin:

	Gauzatze Materialaren Aurrekontua
Iparraldeko bolborategia	1.172.697

Lurralde Kohesiorako Departamentuak adierazitakoaren arabera, hegoaldeko ahoko bolborategia ohiko bolborategi bat da, eta ABEE adjudikaziodunak bere gain hartzen du gastua, baldintza-agirian aurreikusitakoaren arabera.

Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusiaren etete eragozpen-oharra, 2025eko azaroaren 26koa

Geroagoko gertakari bezala, eragozpen horri dagokionez, honako gai hauek nabarmentzen ditugu:

- Kontu-hartzailetzaren fiskalizazioa 2025eko azaroaren 17ko kontratua aldatzeko proposamenaren gainean egin da.

- Kontu-hartzaile nagusiak fiskalizatzeko aurkeztutako “Belateko tunelaren bikoizketa” obra-proiektuaren 1. aldaketak obra-kontratuaren prezioa 7,6 milioi igotzea ekarriko luke (BEZik gabe), eta horrek gastua % 11,22 igotzea ekarriko luke.

- Egindako fiskalizazioaren irismena tunela eta iparraldeko bolborategia hondeatzeko eta eusteko sistemaren aldaketa izan da. Konklusioen artean, honako gogoeta hauek nabarmentzen ditugu:

a) Kontu-hartzailetzak aztertutako hiru unitateek (hondeaketa, eustea eta bolborategia) 5,3 milioi euroko zenbatekoa osatzen dute (BEZik gabe), hau da, proposatutako aldaketaren ia % 70.

b) KPFLren 114. artikuluaren arabera, Administrazioari esleitzen zaio, alde batetik, kontratu publiko bat interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatzeko ahalmena, bai eta beharrezkoak diren arrazoi objektiboei erantzuteko behar-beharrezkoak diren aldaketak sartzeko ahalmena ere, aldaketa horiek funtsezko edukiari eragin gabe; eta, bestetik, errespetatu beharreko muga batzuk, besteak beste, aldaketa justifikatzen duten gerora sortutako inguruabarrak erakunde adjudikaziodun arretatsu batentzat aurreikusezinak izatea.

c)Bada, kontu-hartzailetzak irizten duenez, “*aldaketaren arrazoia komenigarritasun edo egokitasun arrazoietan dago, inola ere ez aurreikusi ezineko egoeretan edo kontratua proiektuak aurreikusitako baldintzetan gauzatzeko ezintasunean*”.

Ondorioz, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetza Nagusiak uste duenez, Belateko tunela bikoizteko obren 1. aldaketak “*ez ditu betetzen aplikatzekoa den araudian aurreikusitako legezko baldintzak, eta horrek kalte ekonomikoak eragin diezazkioke Nafarroako Ogasun Publikoari*”. Ondorioz, etete eragozpen-oharra formulatu du, eta, adierazi duenez, organo kudeatzaileak “*desadostasuna plantea dezake, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaioena ebatz dezan*”.

Eragozpen-oharra Lurralde Kohesiorako Departamentuak onetsi du.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, 2022ko azaroaren 24ko Aginduaren bidez, 2.000.000,00 euroko dirulaguntza izenduna eman zion Nafarroako Foru Komunitateari, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa (BAI) industria jarduerak garatuko diren lantegi-pabiloia birgaitzeko eta egokitzeko obretarako. Ministro-agindu horren hirugarren puntuan ezartzen da jarduerak gauzatzeko epea 14 hilabeteko epean gauzatu beharko dela, dagokion obra-kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Ministro-agindu horren laugarren puntuan ezartzen den bezala, dirulaguntza honako jarduera hauek finantzatzera bideratuko da:

- Zubi-garabi bat barne hartzea.
- Eraikinaren sistema funtzionala eguneratzea: iragazgaizteak, isolamenduak, kanpoko arotzeriak, zoladura, estaldura, sabaiak eta barneko arotzeria.
- Ur-hornidurako instalazioak, elektrizitate-hornidura eta telekomunikazio, klimatizazio, aireztapen eta berokuntza sistemak eta suteen aurkako babesak egitea.
- Perimetroko urbanizazioa egokitzea, ibilgailuak lantegi-pabiloiaren barrura sartzeko.

Aurrekoarekin bat etorriz, dirulaguntza gauzatzeko denbora-esparrua arestian deskribatutako jarduerak egitera mugatzen da. Dirulaguntza ez dago BAI zentroaren obra osoa amaitzearen baldintzapean, aurreko jarduerak gauzatzearen baldintzapean baizik. Horretarako, 14 hilabeteko epea maximoa ezartzen da, obra-kontratua formalizatzen denetik.

Nafarroako 2024ko kontu orokorrei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari dagokionez, Lurralde Kohesiorako Departamentuak argibide hauek eman ditu:

1) Txostenaren zirriborroan (114. orrialdea) honako hau xedatzen da:

“Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi digu 2025eko abenduaren 16an egindako PIREP Solaskideen Batzorde Bateratuan obrak justifikatzeko epea gutxienez 2026ko ekainaren 30era arte luzatzeko aukera aztertu dela. Gaur egun, obrak 2026ko abenduan amaitzea aurreikusten da.

Amaitzeko, fundazioaren aurreikusitako jarduerak Estatuan eta nazioartean lehiatzera bideratuta daude, bai prestakuntza akademikoan, bai ikerketan, bai proiektu pilotuen prestakuntzan.

2024ko itxieran, proiektuaren kudeaketan izandako atzerapenek, PIREP funtsen dirulaguntza itzuli behar izateko arriskua zekarten. Arrisku horrek bere horretan dirau, obra egiteko epea behar beste luzatzea onesten ez den bitartean".

Gai horri dagokionez, gertaera garrantzitsu gisa kontuan hartu behar da 2026ko otsailaren 3an egindako Bitariko Batzordean (akta honekin batera doa) erabaki zela obrak amaitzeko data maximoa 2026ko ekainaren 30era atzeratzea, eta, horrenbestez, data berriak eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko programa gauzatzeko hitzarmenaren seigarren klausulan ("Finantzaketa eta epeak") aurreikusitako 2026ko martxoaren 31koa ordeztea.

Era berean, Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioak (MIVAU) "Ogasun Ministerioarekin eta Europako Batzordearekin gaur egun abian dagoen negoziazioaren berri eman zuen, egun horretatik aurrera hasitako obrekin jarraitu ahal izateko PIREP funtsak itzultzeko betebeharrik gabe, betiere CID37 helburua lortzen bada eta horretarako ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badira".

Azkenik, esan behar da dagoeneko sinadurak izapidetzen ari direla hitzarmenaren gehigarria onartzeko, zeinak obren justifikazioko data berri gisa 2026ko ekainaren 30a ezarriko duen.

2) Txostenaren zirriborroan (120. orrialdea) honako hau xedatzen da:

"Hala ere, aurreikuspen ekonomiko horrek, Meatzeen Atalak emandako informazioaren arabera, akats bat du proiektuaren hondeaketa-aurrekontuaren kuantifikazioan, bai eta hormigoiaren eustearekin lotutako beste akats batzuk ere.

Aipatutako kuantifikazio berriaren arabera, aurkeztutako proposamenak Gauzatze Materialaren Aurrekontuan (PEM) duen eragina honako hau da:

Efecto total propuesta UTE a precios del proyecto constructivo	P.E.M.
Excavación	-6.998.803
Sostenimiento (Cerchas + fibras + hormigón)	2.395.581
Total (Ahorro)	**-4.603.222**

Obra-zuzendaritzak, ondorengo txostenetan, egindako kalkulu-akatsa zuzendu du".

Gai horri dagokionez, ez dugu aipatzen den Meatzeen Atalaren txostenaren berririk, antza akats horien berri ematen duena. Ez dakigu zein den koadro horren jatorria, ezta koadro horretan dauden datuena ere, 4.603.222 euro aurrezten direla diotenak.

Taula hori kontraesanean dago txostenean aipatutako obra-zuzendaritzaren txostenarekin, bai eta Kontuen Ganberaren txostenaren aurreko zirriborroan sartutako taularekin ere, aurrezpena 1.429.317 euroan (1,43 milioi) ezartzen zuena.

Efecto total propuesta UTE	P.E.M.
Excavación	-3.949.004
Sostenimiento	2.519.687
Total	-1.429.317

Ildo beretik, Meatzeen Atalaren azaroaren 24ko txostenean, Aldaketaren etete eragozpen-oharrari erantsi zitzaionean, ekaineko obra-zuzendaritzaren txostenean jasotako 1.429.317 euroko aurrezpena erreproduzituta agertzen da, eustearen aldaketaren aurrezpenari zertxen gehikuntza kentzetik ateratzen dena (3949.004-2.519.687=1.429.317), eta Kontuen Ganberaren txostenaren aurreko zirriborroan ere agertzen zena.

Hala ere, esan bezala, balorazio hori proiektuaren prezioak aplikatzeko akats baten ondorio zen, eta, behin akatsaren berri izan ondoren, zuzendu egin zen obra-zuzendaritzaren hurrengo balorazio ekonomikoetan eta Aldatutako Proiektuan.

Azaldutakoaren arabera, taula hori kendu edo zuzendu egin behar da txostenean.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Idazkari Nagusi Teknikoa: Eduardo Jiménez Izu

TXOSTENA

Nori: Kontu-hartzailetza Nagusia

Nork: Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituren zuzendari nagusia

Xedea: Kontuen Ganberaren Nafarroako 2024ko kontu orokorrei buruzko txostenaren behin-behineko txostenari alegazioak.

2026ko otsailaren 19an, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorren behin-behineko txostena bidali zuen, horri buruzko alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Jasotako txostenaren apartatu bakarra, Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak aztertu duena, 7. gehigarria da: *Belateko kontratuaren exekuzioa*.

Gehigarri hori berrikusi ondoren, eta Javier Ruiz Echeverría Meatzeetako ingeniariak 2026ko martxoaren 2an egindako txostena ikusita (erantsi egin da), Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak alegazio hauek aurkeztu ditu:

1. alegazioa: Behin-behineko txostenaren 119. orrialdea:

Honako hau esan ordez:

Hileko txostenari dagokion dokumentazioan, besteak beste, “Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana” dokumentua sartzen da, ABEE adjudikaziodunak kontratatutako aholkularitza batek egindako txostenarekin bat datorrena.

Hau esatea proposatzen da:

Hileko txostenari dagokion dokumentazioan, besteak beste, “Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana” dokumentua sartzen da, ABEE adjudikaziodunak kontratatutako aholkularitza batek egindako txostenarekin bat datorrena. ABEE adjudikaziodunak 2024ko maiatzaren 16an aurkeztu zion dokumentu hori obra-zuzendaritzari”.

2. alegazioa: Behin-behineko txostenaren 123. orrialdea:

Honako hau esan ordez:

Barneko leherketen proiektua tunel osoa induskatzeko sistema batekin lotzen zen, hondeaketa sekuentzialeko metodoaren bidez, eta hori ez zetorren bat aurkeztutako euste-proiektuarekin (obra esleitu zen eraikuntza-proiektuaren euste-zatiarekin bat zetorren erabat). Hau da, esleitutako eraikuntza-proiektuak RMR>40 balioak zituzten lurretarako sekzio osoko hondeaketa soilik aurreikusten zuen, eta, RMR < 40 balioetarako, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketa; bada, balio horiek dira euste-proiektuaren lehen proposamenean aurkeztu zirenak.

Meatzeen Atalaren lehen errekerimendua 2024ko ekainaren 11n egin zen, eta ABEEak 2024ko uztailaren 4an erantzun zuen. Honela zioen hitzez hitz: “*tunelaren kasuan, eta azalpen hoberik ezean, RMR<50 balioetarako, sekzio osoko hondeaketa aldatu, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren alde egiteko*”.

Meatzeen Atalak eskatu ondoren, ABEEak, beste dokumentazio batzuen artean, “Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana” dokumentua aurkeztu zuen. Dokumentu horretan, tunelaren indusketa guztia hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketa erabilita proposatzen da, tunelaren RMR balioak edozein direla ere.

Hau esatea proposatzen da:

Barneko leherketen proiektua tunel osoa induskatzeko sistema batekin lotzen zen, hondeaketa sekuentzialeko metodoaren bidez, eta hori ez zetorren bat aurkeztutako euste-proiektuarekin (obra esleitu zen eraikuntza-proiektuaren euste-zatiarekin bat zetorren erabat). Hau da, esleitutako eraikuntza-proiektuak RMR>40 balioak zituzten lurretarako sekzio osoko hondeaketa soilik aurreikusten zuen, eta, RMR < 40 balioetarako, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketa; bada, balio horiek dira euste-proiektuaren lehen proposamenean aurkeztu zirenak.

Meatzeen Atalaren lehen errekerimendua 2024ko ekainaren 11n egin zen, eta ABEEak 2024ko uztailaren 4an erantzun zuen. Errekerimenduak honako hau esaten zuen hitzez hitz: “*tunelaren kasuan, eta azalpen hoberik ezean, RMR<50 balioetarako, sekzio osoko hondeaketa aldatu, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren alde egiteko*”.

Meatzeen Atalaren errekemenduaren ondoren, ABEEak, beste dokumentazio batzuen artean, “Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana” dokumentua aurkeztu zuen, ABEE adjudikaziodun 2024ko maiatzaren 16an obra-zuzendaritzari aldez aurretik aurkeztua. Dokumentu horretan proposatzen da tunelaren hondeaketa osoa hondeaketa sekuentzialeko metodoa erabilita egitea, tunelaren RMR balioak edozein direla ere, Meatzeen Atalak eskatutakoari buruzko azalpenik eman gabe, zehazki, eskatzen zuen RMR>40 eta RMR<50 arteko tarteetan, ez tunel osoan, hondaketa sistema aldatzea”.

3. alegazioa: Behin-behineko txostenaren 120. orrialdea:

Honako hau esan ordez:

“Hala ere, aurreikuspen ekonomiko horrek, Meatzeen Atalak emandako informazioaren arabera, akats bat du proiektuaren hondeaketa-aurrekontuaren kuantifikazioan, bai eta hormigoiaren eustearekin lotutako beste akats batzuk ere.

Hau esatea proposatzen da:

“Hala ere, aurreikuspen ekonomiko horrek, Kontuen Ganberaren 2024ko fiskalizazio txostena egiteko prozeduraren eztabaida teknikoaren izapidean Meatzeen Atalak 2026ko urtarrilaren 16an egindako txostenaren arabera, akats bat du proiektuaren hondeaketa aurrekontuaren kuantifikazioan, eta beste akats batzuk ere baditu hormigoiaren eustearekin lotuta”.

Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko zuzendaria: Laura Larraya Irigoyen.

Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituren zuzendari nagusia: Iñigo Arruti Torre

Nori: Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusia

Nork: Javier Ruiz Echeverría, Meatzeen Ataleko Meatzeetako ingeniaria

Xedea: Nafarroako 2024ko ekitaldiko kontu orokorren behin-behineko txostenaren 7. gehigarriari (*Belateko kontratuaren exekuzioa*) alegazioak jartzea

2026ko otsailaren 19an, Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko zuzendariak dokumentu hau sinatzen duen teknikariari bidali dio Nafarroako 2024ko ekitaldiko kontu orokorren behin-behineko txostena, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak egun berean bidali ziona, hari alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Jasotako txostenaren apartatu bakarra, Meatzeen Atalak aztertu duena, 7. gehigarria da: *Belateko kontratuaren exekuzioa*.

Gehigarri hori berrikusi ondoren, honako alegazio hauek aurkezten dira, Meatzeen Atalak Belateko tunelaren bikoizketaren euste-proiektua onesteko espedientearen izapidean izan duen parte-hartzea argitzeko. Parte-hartze hori, dokumentu hau idazten duen teknikariaren ustez, ez dago behar bezala islatuta behin-behineko txostenean.

1. *"Ziurtagiriak"* apartatuan, *"3. Obra-ziurtagiria (2024/06/30)"* aipatzean (or. 120/128), hurrengoa jasotzen da (hemendik aurrera horiz markatuta guztia, teknikari honek nabarmendu du):

> **• 3. obra-ziurtagiria (2024/06/30)**
>
> Hirugarren ziurtagiria ekainean egindako lanei dagokie, batez ere drainatze lanei.
>
> Hileko txostenari dagokion dokumentazioan, besteak beste, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana" dokumentua sartzen da, ABEE adjudikaziodunak kontratatutako aholkularitza batek egindako txostenarekin bat datorrena.
>
> Obra-zuzendaritzak, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlanari buruzko iruzkinak" dokumentuan, 2024ko ekainaren 21ean, aipatutako aholkularitzak eraikuntza-proiektuari eragiten dioten aldaketa hauei buruz planteatutako proposamenen balorazio ekonomikoa egin zuen:

"*Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana*"-ri aipamena (aurrerantzean aurretiazko azterlana), berriro aurkezten dena behin-behineko txostenean, "*Meatzeen Atalaren errekerimenduak eta Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusiak leherketa eta euste proiektuetarako baimenak ematea*" apartatutan, honako termino hauetan (or. 124/128):

Meatzeen Atalaren lehen errekerimendua 2024ko ekainaren 11n egin zen, eta ABEEak 2024ko uztailaren 4an erantzun zuen.

Honela zioen hitzez hitz: "*tunelaren kasuan, eta azalpen hoberik ezean, RMR<50 balioetarako, sekzio osoko hondeaketa aldatu, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren alde egiteko*".

Meatzeen Atalak eskatu ondoren, ABEEak, beste dokumentazio batzuen artean, "Proiektua berrikusteko aurretiazko azterlana" dokumentua aurkeztu zuen. Bertan, tunelaren hondeaketa osoa hondeaketa sekuentzialeko metodo bidez egitea proposatzen da, RMR balioak edozein direla ere.

Azterlan horrek hasieran aurkeztutako euste-proiektua aldatzea proposatzen du, eta hondeaketa eta euste sistemari dagokionez, honako gai hauetan zentratzen da nagusiki:

Behin-behineko txostenean informazioa kanpoan utzi denez, bai Meatzeen Atalak izapidetutako Belateko tunel berriaren euste-proiektua onesteko espedientekoa, bai auzi berdinaren inguruko beste zenbait dokumentutakoa, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak kudeatutakoak, aurretik laburbildutako paragrafoetatik, behin-behineko txostenekoak, ondoriozta daiteke aurretiazko azterlanaren prestaketak eta aurkezpenak, hasierako euste-proiektua aldatzeko oinarri dena, Meatzeen Atalaren lehen errekerimenduaren izan zuela iturburua. Ez da hala, ezta gutxiago ere.

Balizko interpretazio akats hori argitzeko, nahikoa da Belateko tunelaren bikoizketaren proiektuaren gaineko 2024ko ekaineko hileroko txostenera jotzea (2024/06/30), 3. obra-ziurtagiriaren dokumentazioan jasota dagoena, eta, besteak beste, honako dokumentua duena: *"Iruzkinak "Proiektuaren berrikuspenaren aurretiazko azterketa"-ri".* 2024ko ekainaren 21ean Obra Zuzendaritzako Laguntza Teknikoko geologia eta geoteknia arduradunak eta Obra Zuzendaritzak sinatutako dokumentua da, bere xedean honako hau ezartzen duena (2024ko ekaineko hileroko txosteneko 163/404 orriak):

1 OBJETO

2024ko maiatzaren 15an eraikuntza enpresak obra zuzendaritzari txosten bat aurkeztu zion "Proiektuaren berrikuspenaren aurretiazko azterketa" izenarekin, TAT enpresaren aholkularitza teknikoak egindakoa, eta tunelak egiten pilatutako esperientzian oinarritutakoa, tartean uneotan zerbitzuan den Belateko tuneleko aholkularitza bezala.

Dokumentu horretan hainbat iruzkin aurkezten dira, proiektuaren ebaluazio kritikoa eta egokitzapena egitera bideratutakoak, helburu hartuta proiektuaren garapena optimizatzea eta eraikuntza-proiektuko diseinuarekiko desbideratzeak mugatzea.

Berrikuspenean, Obra Zuzendaritzako Laguntza Teknikoko faltan bota du proposamen teknikoari erantsitako txosten bat, dagokion balorazio ekonomikoarekin.

2024ko maiatzaren 24an, obraren bulegoan, bilera bat egin zuten Obra Zuzendaritzako Laguntza Teknikoko kideek, eraikuntza enpresak eta berrikuspenaren egile den TAT enpresako Jose Moreno Vascok, txostenean proposatutako alternatibak azal zitzan.

Bilera horretan, Obra Zuzendaritzako Laguntza Teknikokoak, ikuspegi teknikotik, argi utzi zuen landutako puntu guztiei buruz duen iritzia. Iritzi hori bileraren aktan jaso zen.

Obra Zuzendaritzako Laguntza Teknikoak ohar hau idatzi du ikuspegi teknikotik, eta txostenaren puntu nagusiak aztertu ditu. Era berean, eraikuntza enpresak aldatu nahi dituen elementu nagusien balorazio ekonomikoa egin da, proiektuaren prezioak eta neurketak kontuan hartuta.

Hau da, aurreko informazioarekin, argi geratzen da, inolako zalantzarik gabe, Meatzeen Atalak 2024ko ekainaren 11n lehen errekerimendua egin aurretik, ABEEak prest zuela 2024ko maiatzaren 16an Obra Zuzendaritzari aurkeztu zion aldaketa proposamen bat. Proposamen hori, maiatzaren 24an ABEEarekin egindako bilera baten ondoren, Obrako zuzendariak ekonomikoki baloratu zuen 2024ko ekainaren 21eko txosten batean, eta emaitza, eraikuntza proiektuarekin alderatuta aurrezpena lortzea zen.

Teknikari honek ez zuen txosten horren berri izan, harik eta Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak, 2025eko azaroaren 6an, txostena jasotzen zuen dokumentazioa eman zion arte, 2025eko azaroaren 26an Nafarroako Parlamentuko batzordearen aurrean egin beharreko agerraldia prestatzeko dokumentazioa eskatu ondoren, Nafarroako obra publikoen lizitazioei eta esleipenei buruzko ikerketaren esparruan.

2025eko azaroaren 18an batzorde horren aurrean egindako agerraldian, Geocontroleko eta Sertecnako ordezkariek (Belateko tunela bikoizteko eraikuntza proiektua idazteko kontratuaren enpresa adjudikaziodunak) adierazi zuten Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak obraren adjudikazioduna den ABEEak eskatutako aurretiazko azterlana bidali ziela, aztertzeko. Azterketa horren ondorioa aurretiazko azterlanean jasotako aldaketen kontrakoa izan zen. Batzordearen aurrean ondorio horiek berretsi zituen.

Gainera, proiektua idatzi zuen taldeko ordezkariek jakinarazi zuten beren lana ez zela soilik obra lizitatzeko erabili zen proiektua idaztea; aitzitik, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiarekin aholkularitzako kontratu edo akordio bat sinatu zuten, tunela egiteko aldi osorako. Akordio horren esparruan uler liteke obraren adjudikaziodun den ABEEaren proposamenari aurrean egin zitzaien kontsulta.

Alegazio hauek sinatzen dituen teknikariak Geocontrolek egindako azterketa-dokumentua eskuratu ahal izan du, baina informazio hori ez zuen erabat ezagutzen, harik eta dokumentua idatzi zutenak batzorde parlamentarioan agertu ziren arte.

Teknikari honek jasotako datuengatik, 2024ko ekainaren 12an, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Azterlan eta Proiektuen Zerbitzuak aurretiazko azterlana bidali zion eraikuntza proiektua idatzi zuen taldeari, eta iritzia eskatu zion. Iritzi hori 2024ko ekainaren 27ko data duen dokumentuan adierazi zuten.

“Belateko tunela bikoizteko eraikuntza-proiektua berrikusteko aurretiazko azterlanaren gaineko iruzkinak” dokumentuak, Geocontrolek egindakoa, honakoa ondorioztatzen du (Geocontroleko dokumentuaren 7. orrialdea):

Horregatik guztiagatik, irizten da TATen azterlanean jasotako proposamenak ez direla onetsi behar.

Alegazioen dokumentu hau sinatzen duen teknikariarentzat, aurreko informazioa oso garrantzitsua da. Izan ere, Belateko tunel berriaren euste-proiektua onesteko espedientea izapidetzen ari zen bitartean, errekerimenduetan behin eta berriz eskatu zitzaien proiektuaren idazleei kontsulta egiteko, obraren adjudikazioduna den ABEEak aurkeztutako aldaketa-proposamenen aurrean iritzia eman zezaten. ABEEaren edo Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren erantzun bakar batean ere ez zen aipatu kontsulta hori eginda zegoela, Meatzeen Atalak eskatu baino askoz lehenago, eta erantzuna aldaketa horiek onestearen aurkakoa izan zela.

Hala, adibidez, bigarren errekerimenduan, 2024ko abuztuaren 8koan, Meatzeen Atalak ABEEak lehen errekerimenduari erantzun ondoren emandakoan (aurretiazko azterketa aurkeztu zuten), honako hau adierazten zen (2. errekerimenduko 17 eta 18/18 word orriak):

> Belateko egungo tunelaren eraikuntzak, berria eraikitzeko proiektuan eta adjudikaziodunak aurkeztutako proiektua berrikusteko aurretiazko azterlanean agerian geratu den bezala, aurreikusi gabeko arazo eta egoera garrantzitsuak izan zituen, baita ondorio judizialak ere, eta horiek asko zaildu zuten tunela gauzatzea. Arazo horiek ia gaur egun arte gertatu dira, eta trafikoa behin eta berriz moztu da, konponketak edo hobekuntzak egiteko.
>
> Beraz, eta egoera horiek ez liratekeela berriro gertatu behar ulertuta, adjudikaziodunak, eraikuntza-proiektuko eusteari dagokionez, aholkularitza baten bidez eta egungo tunela egitean gertatutakoari buruzko zuzeneko ezagutzarekin azaleratu dituen desadostasunek, gure ustez, Herri-lanen Zuzendaritza Nagusiaren balorazioa eskatzen dute, obraren eta proiektuaren titular gisa, eraikuntza-proiektuaren proiektugileekin batera.

Bestalde, Meatzeen Atalak 2024ko ekainaren 11n egindako lehen errekerimenduari dagokionez, garrantzitsua da harekin lotutako bi alderdi aipatzea, garrantzitsutzat jotzen baitira. Horretarako, hasiera batean, eskakizun bikoitza zela esango dugu, bai euste-proiektuari dagokionez, bai leherketa moten proiektuari dagokionez. Leherketen proiektuari dagokion zatian, Meatzeen Atalak jada antzeman zuen ez zetorrela bat egin behar zuen euste-proiektuarekin (1. errekerimenduko 28 eta 29/36 orriak, 2024/06/11):

> 14. Proiektuan jasotako leherketa motak 4.2 apartatuan jasotzen dira. *Egin beharreko leherketa motak* (or. 55/388). Gure ustez okerra den hurrengo premisa honetatik abiatuta.
>
> Hondeaketarako, tunelaren sekzioa bi fasetan egingo da, eta, beraz, leherketak modu berean egingo dira: batetik, goiko sekzioa, eta, bestetik, a posteriori, behekoa; hau da, hondeaketa sekuentzialeko metodoa.
>
> Aurkeztutako leherketen oinarrizko irizpide gisa aplikatzen duten premisa da (55/388 orriak)
>
> Leherketak ez dira sekzio osokoak izango. Alde batetik, goiko sekzioa induskatuko da, eta, ondoren, behekoa.

Okerra dela diogu, eraikuntza-proiektuak tunelaren indusketa fase batean, sekzio osoan, nahiz bi fasetan, goiko sekzioa eta behekoa, hondeaketa sekuentzialeko metodoa erabiliz, egitea planteatzen duelako, hondeatu beharreko mendigune harritsuaren kalitatearen arabera. Indusketa sekzio osoan kalitate handieneko mendiguneetan egitea planteatzen da: konglomeratuetan (TBcg) eta hareharri eta lutitetan (TBsl), 60tik gorako batez besteko RMR balioekin. Hain zuzen ere, hondeaketa-metodo egokia leherketena dutenak, eta ST-I eta ST-II motako euste-sekzioekin bat datozenak.

Horregatik guztiagatik, aurkeztutako leherketa mota guztiak desegokitzat jotzen ditugu; izan ere, jasotako sei motek indusketa bi fasetan egitea hartzen dute kontuan, hau da, hondeaketa sekuentzialeko metodoa, lehergailuak erabiltzea eskatzen duten litologien indusketa batez ere sekzio osoan egingo denean. Eta gainera, bi fasetan hondeatzeko lehergailuak erabil daitezkeen kasu bakarrean, limolitetan, ez da kontuan hartu hondeaketa mistoa izango dela.

Preskripzioa: errekerimendu honen hasieran adierazi bezala, euste-proiektua aztertu aurretik, leherketa motek euste-proiektuaren konklusioen araberakoak izan behar dute. Eta hori da kasu honetan diseinatzerakoan kontuan hartu ez dena.

Beraz, euste-proiektuarekin eta haren analisian jasotakoarekin koherenteak diren leherketa motak aurkeztuko dira.

Agindu hori betetzeak aurkeztutako leherketa moten proiektua ia erabat aldatzea dakar.

Jarraian errekerimenduan aztertzen diren puntuak orokorrak dira, leherketen diseinuarekin zerikusirik ez dutenak.

Aurrekoa esanda, adierazi beharreko lehen alderdia da, lehen errekerimendu hori egin zenean, idatzi zuen ingeniariak ulertu zuela leherketen proiektuaren erredaktoreek akats bat egin zutela: ez zituztela diseinatu aurkeztutako euste-proiektuarekin bat etorriz, behar zen bezala. Eta horregatik agindu zuen bere errekerimenduaren aurreko laburpenean azaldutakoa.

Hala ere, ABEEaren erantzuna jaso ondoren, 2024ko uztailaren 4an, aurretiazko azterketa jasotzen zuena, argi geratu zen egoera kontrakoa zela, hasieran aurkeztutako euste-proiektua zen benetan gauzatu nahi zutenarekin bat ez zetorrena, eta leherketen proiektua, berriz, bai.

Lehen alderdi horren ondoren, agerian geratzen da ezen, Meatzeen Atalak 2024ko ekainaren 11n lehen errekerimendua egin aurretik ez ezik, 2024ko maiatzaren 3an dokumentazioa aztertzeko jaso aurretik ere, obraren adjudikazioduna den ABEEak aurreikusita zuela euste-proiektua aldatzeko proposamen bat aurkeztea. Aldaketa hori hasieran aurkeztutako leherketa-proiektuan islatzen zen. Idatzi arte itxaron ez bazuen ere, 2024ko maiatzaren 3an obra esleitzeko erabili zen eraikuntza proiektuan jasotako eustea aurkeztu zuenean.

Lehen errekerimenduari buruz adierazi beharreko bigarren alderdia, ABEEak 2024ko ekainaren 27ko dokumentuan sustatutako aurretiazko azterlanean jasotako proposamenekin Geocontrolek duen desadostasuna ezagutu ondoren, hau da: proiektua idatzi zutenak Meatzeen Atalak 2024ko ekainaren 11ko lehen errekerimenduaren 3. puntuan preskribatutakoa azaltzen eta erantzuten saiatu ziren (14/36 orrialdeak):

Tunelaren kasuan, eta azalpen hoberik ezean, RMR < 50 balioetarako sekzio osoko indusketa aldatzea, hondeaketa sekuentzialeko metodoko bidezko hondeaketaren alde egiteko.

Azalpen hori ez zen eman lehen errekerimendu horri emandako erantzunean, 2024ko uztailaren 4an; Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak, gutxienez ekainaren 27tik, proiektua idatzi zutenek hondeaketa sistema aldatzearen aurkako iritzia zutela jakin arren. Beraz, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak hala nahi izan balu, hondeaketa sistemaren gaineko irtenbide teknikoa meatzaritzako agintaritzaren aurrean defendatuko zuketen.

Aipatu behar da eraikuntza-proiektuaren hondeaketa- eta euste-sistema, aurretiazko azterlanaren bidez zalantzan jarri zena, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak onetsi zuela, eta harekin lizitatu eta esleitu zitzaion obra Acciona Construccion, Excavaciones Fermín Osés eta Servinavar 2000 enpresek osatutako ABEEari. Eta atariko azterketa tunelaren indusketa hasi baino askoz lehenago aurkeztu zela. Inola ere ezin zela gertatu euste-proiektua onetsi aurretik, eta hori 2024ko urriaren 14an gertatu zen, hau da, bost hilabete geroago.

Aurreko guztiak erakusten du, Meatzeen Atalak lehen errekerimenduan adierazitakoa alde batera utzita, tunelari eusteko proiektua aldatzeko proposamen bat aurkezteko erabakia ABEEak lehenagotik hartua zuela. Beraz, Meatzeen Atala eta haren eskakizunak ez dira ABEEak proposatutako aldaketaren jatorria.

Teknikari honek 2024ko urriaren 14an Belateko tunela bikoizteko euste lanak onesteko bere ebazpen proposamen txostenean jaso zuen bezala (1/3 orrialdeak):

ABEEak aurkeztutako dokumentazioak agerian utzi du desadostasun handiak dituela hasieran aurkeztutako euste-proiektuarekin, hau da, obraren eraikuntza-proiektuan jasotako eustearekin. Azkenean hura aldatzeko proposamena aurkezteraino, 2024ko irailaren 20an (planoak eta aurrekontua) eta 2024ko urriaren 1ean (memoria). 2024ko maiatzaren 3an aurkeztutakoa *de facto* ordezten duen dokumentazioa. Aurkeztutako azken dokumentazioaren edukiak gainditu egiten du hasierako dokumentazioaren errekerimenduaren irismena; izan ere, bertan jasotako preskripzioei erantzuteaz gain, eraikuntza-proiektuan ezarritako eustea aldatzea proposatzen du. Era berean, eskatutako gai batzuk esleipendunak erantzun gabe geratu dira.

Azkenean onetsi zen euste-proiektua ez zen obra esleitzeko erabili zen eraikuntza-proiektukoa, hau da, hasieran meatze-agintaritzari aurkeztu zitzaiona onetsi zezan. 2024ko urriaren 14ko proposamen txostenean bertan zehazten zen (1/3 orrialdeak):

> Garrantzitsua da adieraztea, esleipendunari jakinarazitako lehen errekerimenduan adierazi zen bezala, aurkeztutako euste-proiektua onestea, tunel berria eusteari buruzko eraikuntza-proiektuaren zatiarena izango litzatekeela. Hau da, ABEEa titularra ez den proiektua.
>
> Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta eraikuntza-proiektuaren titularra, Belateko tunel berriaren eustean jasotzen duena, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia dela, aldaketa proposamen batek, obraren esleipendunak aurkeztutakoa bezalakoa, nahitaez izan behar du haren onespena edo oniritzia, hala badagokio, meatzaritzako agintaritza eskudunaren onespena lortu aurretik.
> Gainera

Aurretik azaldutakoagatik, eta behin-behineko txostenari egindako lehen alegazio gisa, behin betiko txostenak aipatutako apartatuetan duen idazkera alda dezala eskatzen da, aipatu ez den eta adierazi den informazioa gehituz, Meatzeen Atalak, meatzaritzako agintaritza eskuduna den aldetik, Belateko tunel berriari eusteko proiektuaren onespena izapidetzean parte hartu zuen egitateak eta administrazio-jarduerak kronologikoki eta behar bezala identifikatzeko eta azaltzeko.

2. *3. obra-ziurtagiria (2024/06/30)* aipatzean (behin-behineko txostenaren 120 eta 121/128 orriak), Meatzeen Atala aipatzen du behin-behineko txostenak, eta haren txosten bat aipatzen du obra-zuzendaritzak 2024ko ekainaren 21eko txostenean hasieran aurreikusitako aurrezkiaren goranzko zuzenketaren jatorri gisa, 1,43 milioitik 4,6 milioira igaro zena hasierako eraikuntza proiektuarekin alderatuta:

Aldaketa horiek guztiak obra-zuzendaritzak baloratu ditu, eraikuntza-proiektuaren neurketen eta prezioen arabera, 1,43 milioi aurreztuta. Obra-zuzendaritzaren ustez, txosten horretan ulertzen duenez, "*Lortutako emaitzetan oinarrituta, Belateko tunela hondeaketa sekuentzialeko metodoa erabilita induskatzeko eraikuntza-enpresaren proposamena, proiektuaren prezioetan, proiektuan aurreikusitakoa baino merkeagoa da ST-I, ST-II eta ST-IIIA lursailak sekzio osoan induskatuko balira*". Eusteari buruzko atalean adierazten du "*garestiagoa*" dela edo "*kostu gehigarrien igoera*" eragiten duela.

Hala ere, aurreikuspen ekonomiko horrek, Meatzeen Atalak emandako informazioaren arabera, akats bat du proiektuaren hondeaketa-aurrekontuaren kuantifikazioan, bai eta hormigoiaren eustearekin lotutako beste akats batzuk ere.

Aipatutako kuantifikazio berriaren arabera, aurkeztutako proposamenak Gauzatze Materialaren Aurrekontuan (PEM) duen eragina honako hau da:

ABEEaren proposamenaren eragina guztira, eraikuntza-proiektuaren	Gauzatze Materiala-
Hondeaketa	-
Eustea (zertxak + zuntzak + hormigoia)	2.395.58
Guztira (Aurrezkia)	-

Obra-zuzendaritzak, ondorengo txostenetan, egindako kalkulu-akatsa zuzendu du.

Gure ustez, Meatzeen Atalaren aipatutako txostena 2026ko urtarrilaren 16ko data duen dokumentu bat da, Kontuen Ganberaren 2024ko fiskalizazio txostena egiteko prozeduraren eztabaida teknikoaren izapidearen barruan emana.

Obra-zuzendariak aipatutako txostenei dagokienez, non, dirudienez, Meatzeen Atalak 2024ko ekainaren 21eko bere txostenean antzemandako akatsa zuzentzen duen, alegazioak sinatzen dituen teknikariak ez daki zer txosten izan daitezkeen.

Horregatik, behin-behineko txostenaren bigarren alegazio gisa, behin betiko txostenean aipatzen diren txosten guztiak egilearen, dataren eta, hala badagokio, lokalizazioaren arabera identifikatzeko eskatzen da. Horien artean, aipatutako biak.

3. Behin-behineko txostenak, 7. Gehigarrian (*Belateko kontratuaren exekuzioa*), ez du ezer ondorioztatzen. Horrela, egitateak zerrendatze huts gisa geratzen da, hobeto edo okerrago azalduta, omisio gehiagorekin edo gutxiagorekin, baina idatzita dauden egunetan jada ezagunak direnak.

   2025eko azaroaren 26an kontu-hartzaile nagusiak Belateko tunela bikoizteko obren 1. aldaketari egindako etete eragozpen-oharrean ezarritakotik oso bestelako egoera, non, gertakari berberetatik abiatuta, tunela hondeatzeari eta eusteari eta Meatzeen Atalaren parte hartzeari dagokienez, adibidez, honako hau ondorioztatzen duen:

d) Tunela hondeatzeari dagokionez.

"...frogatuta geratzen da proposatutako aldaketak ez duela jatorria meatzeen autoritateak aipatutako datetan egindako errekerimenduetan. Horrenbestez, baztertuta geratzen ezin aurreikusi ezinezko inguruabarrek Tunelaren hondeaketa aldatzea justifikatzea.", ... "Bistan denez, arrazoiak beste batzuk dira,iragarrezintasunarekin lotuta ez daudenak".

e) Eusteari dagokionez

"Horrenbestez, argi geratzen de aldaketa honen justifikazioa ere ez dela meatzeen agintaritzaren errekerimenduetatik eta preskripzioetatik eratorritako iragarrezintasuna. Baizik eta aldaketa aurretik aurreikusita zuen eraikuntza enpresak obraren exekuzioaren hasieratik, 2024ko maiatzaren 16an, obra-zuzendaritzari aurkeztu zioenean ""Proiektuaren berrikuspenaren aurretiazko azterketa" txostena, aurretik aipatutakoa". "Horrenbestez, ikus daiteke eustea aldatzeko arrazoia komenigarritasuna dela..."

Amaitzeko:

KONKLUSIOA:

"*... Aitzitik, txosten honetan agerian geratu denez, aldaketaren arrazoia komenigarritasun edo egokitasun arrazoietan dago, baina inoiz ez aurreikusi ezineko egoeretan edo kontratua proiektuak aurreikusten zuen baldintzetan egiteko ezintasunean.*

[a]..... Ondorioz, azaldutako arrazoiengatik, irizten da Kontu-hartzaile nagusiak fiskalizatzeko 2025eko azaroaren 17an aurkeztutako "Belateko tunelaren bikoizketa" obra-proiektuaren 1. aldaketak, ez dituela betetzen aplikatzekoa den araudian aurreikusitako legezko baldintzak, eta horrek kalte ekonomikoak eragin diezazkiokela Nafarroako Ogasun Publikoari.

Horregatik, eta behin-behieneko txostenari egindako hirugarren eta azken alegazio gisa, eskatzen da behin betiko txosteneko 7. gehigarrian aipatutako gertaerei buruzko konklusio batzuk sartzeko. Gutxienez argi utzi behar da Belateko tunela bikoizteko obrak egiteko adjudikaziodunak proposatutako aldaketak, Energiako, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusiak urriaren 14ko 139/2024 Ebazpenean onetsitako euste proiektuan sartutakoak, ez dutela jatorria eta ez direla justifikatzen meatzeen agintaritzaren errekerimenduetan eta preskripzioetan.

Meatzeen Ataleko Javier Ruiz Echeverría Mehatzeen ingeniaria

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAK EGINDAKO 2024KO KONTU OROKORREN FISKALIZAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

D. Francisco Fernández Nistal jaunak, CORPORACIÓN PÚBLICA EMPRESARIAL DE NAVARRA SLU merkataritzako sozietateko (aurrerantzean CPEN) zuzendari nagusia den aldetik (IFZ: B/71018360) eta egoitza ondorio hauetarako Iruñean, Sarasate pasealekua, 38. zenbakia, 2. eskuina helbidean duena, begirunez

A D I E R A Z TEN D U

1.- 2026ko otsailaren 19an, Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kontuen Ganberako presidentearen ebazpena bidali zuen, “2024ko Nafarroako kontu orokorren" gaineko behin-behineko fiskalizazio txostena onesten duena.

2.- Txostena helaraztean egokitzat jotako alegazioak aurkezteko aukera ematen da, eta epea 2024ko azaroaren 20n amaitzen da. Zehazki, honako hau xedatzen da:

> Behin-behineko txosten hori fiskalizatutako erakundeari helaraztea, azter dezan eta, hala badagokio, alegazioak egin ditzan, otsailaren 26ra arte. Era berean, ohartaraziko zaio txostenean jasotako konklusioei eta iritziei argi eta zuzenean buruzkoak ez direnak ez direla aintzat hartuko, ez eta txostenean sartuko ere.

3.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sozietate publikoen matrizea den CPENen nahia da honako hauek formulatzea, horretarako ezarritako epearen barruan:

ALEGAZIOA

BAKARRA.- 98. orrialdea (5.13 Sozietate publikoak eta fundazio publikoak Sozietate publikoen auditoretzak)

Behin-behineko txostenean honako hau xedatzen da:

> Urteko kontuei buruzko auditoretza guztietan aldeko iritzia dago.
>
> Hala ere, Sodenako 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan Parquenasa Sari emandako kredituek agertzen jarraitzen dute, eta ez da kontabilizatu haien balio-zuzenketa; beraz, uste dugu kontu horietan ageri den ondare-garbia gainbaloratuta egonen litzatekeela, gutxienez 22 milioitan.

Aurrekoetan adierazi dugun bezala, zehazki 2023ko urteko kontuen behin-behineko txostenari guk aurkeztutako alegazioetan, erabat ez gatoz bat aurretik transkribatutako baieztapenarekin, eta CPENek eta Sociedad de Desarrollo de Navarra SLk (SODENA) elkarrekin aurkeztutako alegazioetara jotzen dugu, Nafarroako Kontuen Ganberak 2023ko azaroan SODENAk PARQUENASAri (2001 2023) egindako finantza ekarpenen gainean egindako behin-behineko txostenaren aurrean. Txosten horretatik honako gogoeta hauek ateratzen ditugu:

A. Lehenik, Parquenasak, kontabilitateko araudiari jarraikiz, "eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktibotzat" jo behar ditu bere aktibo materialak, martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduko laugarren arauan ezarritakoaren babesean (Zenbait egoeratan jarduten duten kontabilitate alderdiak onesten dituen Agindua), aktibo horien balioa narriatuta dagoen ala ez ebaluatzeko irizpideak direla-eta.

B. Ezin da ukatu Parquenasa sozietate pribatua dela, baina Parquenasak uste du arau horiek nahitaez aplikatu behar dituela bere aktiboen narriaduraren kontabilitate-balorazioan, bera autonomia erkidegoko sektore publikoko entitatea delako kontabilitate-ondorioetarako. Izan ere, (i) Sodena (egun Navarra Impulsa Cultura Deporte y Ocio SL –Nicdo-)[65] Sozietatearen administratzaile bakarrak izan dira eta haren kudeaketa gainbegiratu dute, hau da, haren gaineko kontrola izan dute; (ii) Sodenak, eta orain Nafarroako Gobernuak, beren gain hartu dute arrisku finantzario osoa 2005az geroztik; (iii) halaber kontuan hartu behar da akziodunen arteko ituna, data horretakoa; eta (iv) gainera, CPENen bitartez, eta berriz ere kontabilitate-ondorioetarako, Sozietatea autonomia erkidegoko sektore publikoko parte da. Izatez, horrela jaso izan da CPENen urteko kontu bateratuetan, zehatzago, 2024ko ekitaldietakoetan:

> "Alde horretatik, berariaz menpeko sozietatetzat jo da Parque de la Naturaleza SA, nahiz eta taldeak sozietatean duen benetako partaidetza % 45ekoa izan 2024ko eta 2023ko ekitaldien amaieran, eta haren gaineko kontrola dagoela uste izan da taldeak entitatearen arriskuetan eta emaitzetan duen partaidetzaren arabera".

Aurreko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan ere halaxe jaso da.

C. EHA/733/2010 Aginduko lehenengo arauak honela definitzen ditu fluxurik sortzen ez duten aktiboak:

> "e) Eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktiboak: ibilgetu materialeko eta ukiezineko osagaiak eta higiezinetako inbertsioak, merkataritzako etekina sortzeaz bestelako helburua dutenak; adibidez, aktibo horiek kolektibitatearen onurarako sortzen dituzten fluxu ekonomiko sozialak, alegia, haien onura soziala edo zerbitzu ahalmena".

[65] Biak aritu baitira eta/edo ari baitira Parquenasaren administratzaile bakarraren karguan. Bereziki, Sodena, 2005eko ekainaren 15ean izendatu zutenetik 2023ko otsailaren 2an uko egin zuen arte; eta NICDO, egun horretan (2023ko otsailaren 2an) izendatu zutenetik eta orain arte.

D. Transkribatutako kontabilitate arauaren ondorioetarako, azpimarratu behar da Parquenasak egiten dituen eragin sozioekonomikoari buruzko urteroko azterketek agerian jartzen dutela proiektuak arlo sozioekonomikoan duen eraginaren balorazioa; azterketa horiek 2007tik egiten dituzte aholkularitza enpresa baimenduek. Txosten horiek gizartearentzat errenta eta enplegu gisa sortzen diren onura ekonomikoak baloratzen dituzte. Hori bat dator transkribatutako arauan eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktiboei buruz ematen den definizioarekin.

E. Hortaz, bere aktiboen balizko narriadura baloratzeko garaian, Parquenasak ez du irizpide komertzialen arabera aztertzen balizko balio galera, aktiboek sortzen duten zerbitzu ahalmenaren arabera baizik. Eta, EHA/733/2010 Aginduak adierazten duen bezala, narriadura zantzurik baldin badago, balio berreskuragarria da erabilera-balioaren eta zentzuzko balioaren artetik handiena. Erabilera-balioa da bere zerbitzu ahalmenari eusten dion aktiboaren egungo balioa, eta balioa galdutako berrezarpen kostuaren erreferentziaren bidez zehazten da. Horrelaxe ari dira baloratzen aktiboak Parquenasan.

F. Aipatu kontabilitate-arauaren aplikazioa onetsi eta berretsi izan dute Parquenasa 2001ean sortu zenetik haren kontuen auditoriak egin dituzten enpresek. Aintzat hartu dituzte EHA/733/2010 Aginduan adierazitako irizpideak, Parquenasak aktibo horien balio-narriadurarik ba ote dagoen ebaluatzeko garaian, eta haien iritzia inoiz ez da salbuespen batekin kualifikatu.

G. Sodenan kontabilizatutako maileguen balio berreskuragarriari dagokionez, Sodenak oinarri hartu du Parquenasak bere aktibo materialei ematen dien kontabilitate-tratamendua, eskudiru fluxurik sortzen ez duten aktibotzat jotzen baititu, Parquenasaren urteko kontuetan bertan adierazten den moduan.

H. Horregatik, aurreko guztia kontuan hartuta, Sodenak bere narriadura-azterketa egitean aintzat hartu izan du eta hartzen du Parquenasaren aktibo horien balio berreskuragarria, bai eta Parquenasaren beste aktibo eta pasibo batzuek (Sodenak emandako maileguez bestelakoek) duten kontabilitate-balioa ere, kontuan hartuta mailegu horien kontabilitate-balio garbia bat datorrela zenbatetsitako balio berreskuragarriarekin, eta, beraz, jada egindakoez gain beste balorazio-zuzenketarik egin gabe. Balio hori haren urteko kontuetan islatuta dago urtez urte, eta hartan oinarrituta egin dira balorazio-zuzenketak Sodenan.

I. Irizpide hori zuzena da eta halakotzat jo dute entzute handiko hiru auditoretza enpresak. Horiek Sodenaren eta CPENen urteko kontuak egiaztatu izan dituzte Parquenasari lehenengoz finantzaketa eman zitzaionetik (ez dute inolako salbuespenik azaldu Sodenaren eta CPNEen urteko kontuei buruzko auditoretza txostenetan hark balorazio irizpide hori aplikatzen hasi zenez geroztik).

J. Era berean, nabarmentzekoa da Nafarroako Kontuen Ganberak berak, 2014ko urriaren 13ko txostenean, «Nafarroako Garapen Sozietatearen (Sodena) inbertsio finantzarioak enpresa partaidetuetan. 2002tik 2013ra». Sodenak Parquenasari egindako ekarpenak aztertu zituela, besteak beste. Hala, 12. orrian honakoa esaten da: “Sodenaren 2002tik 2013ra bitarteko urteko kontuek beren alderdi nabarmen guztietan islatzen dituzte enpresen kapitalean parte hartzeko finantza-eragiketak, bai eta sozietate publikoak parte hartutako enpresei aldi horretan maileguak emateko jarduketak ere; azkenik, eragiketa horiei buruz kudeaketa txostenean jasotako informazioa bat dator ekitaldi bakoitzeko urteko kontuetan islatutakoarekin”.

K. Horrenbestez, alegazio honetan honaino emandako azalpenetan oinarrituta, begi bistan dago Sodenak Parquenasari emandako maileguen balorazioa zuzen egin dela eta zorrotz aplikatu dela kontabilitateko araudia (EHA/733/2010 Agindua, gorago aipatua). Araudi hori nahitaez aplikatu behar da, arau esparru ezberdinak egon arren (kontabilitate arlokoak eta juridiko-administratiboak) eta biak batera gertatu arren.

Hori guztia dela eta, ez gatoz bat behin-behineko txostenean jasotzen den gogoetarekin: “urteko kontu horietan agertzen den ondare garbia gutxienez 22 milioitan gainbaloratuta egongo litzateke”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Zuzendari nagusia: Francisco Fernández Nistal

KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaien Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari, alegazioak aurkez zitzan.

Kontuen Ganberak ezarritako epean, honakoek aurkeztu dituzte alegazioak: Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Idazkari Tekniko Nagusiak, Industriako eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalareko Departamentuko Enpresa Sustapenerako eta Azpiegituretarako Zuzendaritza Nagusiak eta CPENeko zuzendari nagusiak, eta txosten honi erantsi zaizkio, Ganbera honen erantzunarekin batera. Aurkeztutako alegazio guztiak eskertzen ditugu.

Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari eransten zaizkio, eta hori behin betikotzat hartzen da. Hala ere, aztertu ondoren, txostenaren gorputzean adierazten den bezala, Ganbera honek honako alderdi hauek adierazi nahi ditu:

• Kontuen Ganberak, bere berrikuspenean, ez ditu alderdi erabat teknikoak kontuan hartzen, 7. gehigarrian berariaz adierazten den bezala.

• Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako alegazioari dagokionez, 6. gehigarrian, *Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren Finantzaketa*, aintzat hartu eta sartu da.

• Lurralde Kohesiorako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak aurkeztutako alegazioei dagokienez:

- Lehenengoak lehen aipatutako Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalari egiten dio erreferentzia, antzeko terminoetan. Onetsi egin da, eta aipatutako zentroaren apartatua aldatu egin da 6. gehigarriaren barruan.

- Bigarrena, Belateko tuneleko obrei buruzkoa da. Hala, onartu egin da, eta 7. gehigarriko 3. ziurtagiriari buruzko apartatuan jasotako bi paragrafo aldatu dira.

• Enpresa Sustapeneko eta Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak Belateko tunela egiteko 7. gehigarriari buruz aurkeztutako alegazioei dagokienez, eta horren edukiari buruzko argibideak eta zehaztapenak direnez, txostenaren 7. gehigarriari dagozkion paragrafoak aldatu dira.

• CPENeko Zuzendaritza Nagusiak Parquenasari emandako kredituei buruz aurkeztutako alegazioari dagokionez. Gaiari buruzko aurreko txostenetan behin eta berriz egindako alegazioak kontuan hartuta, eta EHA/733/2020 Aginduaren aplikazio eremuari buruzko interpretazio tekniko posible eta arrazoizkoak kontuan hartuta, CPENek aurkeztutako alegazioa onartu da.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

MIGUEL ÁNGEL AURRECOECHEA GUTIÉRREZ AUDITOREAK AURKEZTUTAKO BEHIN BETIKO TXOSTENAREKIKO DESADOSTASUNA

DESADOSTASUN IDATZIA (14. FASEA-2/2025 INSTRUKZIOA)

NAFARROAKO KONTUEN GANBERA
Auditore txostengilea: MIGUEL ANGEL AURRECOECHEA GUTIERREZ
Txostena: Nafarroako 2024ko kontu orokorrei buruzko behin betiko txostena
Behin Betiko Txostenaren Data: 2026/03/05

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAKO LEHENDAKARIARI

Miguel Angel Aurrecoechea Gutierrezek, aipatutako txostenaren auditore txostengileak, desadostasun-idazki hau egin du 19/1984 Foru Legearen 22.2 artikuluaren babesean, zeinak aitortzen baitu txostengileak eskubidea duela bere irizpidea idatziz jasota uzteko, Lehendakaritzak onetsitako behin betiko txostenean jasotakoaz bestelakoa denean. Prozedura hori arautzen duen eta desadostasuna Nafarroako Parlamentura bidalitako txostenari eranskin gisa eranstea xedatzen duen 2/2025 Instrukzioaren arabera jokatzen dut.

AZALTZEN DUT:

IV.1 Finantza-auditoretzako iritzi salbuespendunaren oinarria

Salbuespen hau alde batera utzi da:

a) Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera Orria eta Eskudiru-fluxuen Egoera Orria ez dira aurkeztu; indarrean dagoen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrak (aurrerantzean, KPPO), 2010ean onartutakoak, nahitaezkoak diren finantza-egoerak direla ezartzen du.

Lehendakariak adierazi du ez dagoela ados ondare garbiko aldaketen egoera-orria eta eskudiru-fluxuen egoera-orria ez aurkezteari buruzko salbuespen espezifiko bat formulatzearekin; izan ere, aurreko ekitaldietako txostenetan, gai hori salbuespen zabalago baten barruan sartzen zen, gainerako gaiekin batera, eta, zehazki, paragrafoaren amaieran:

a) Ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean jasota dauden kontu, irizpide eta printzipioak, nagusiki zergen, tributu-zordun eta -hartzekodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrez gain, badaude garrantzi txikiagoko akatsak ere kontuen edo atalen sailkapenean; horiek berekin dakarte dirusarreren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintza-geldikinaren eta balantzearen likidazioko egoera-orriaren egitura bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako eredue-

kin. Era berean, ez da aurkeztu ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, ez eta diru-fluxuen egoera-orria ere. (Oraingo txostenean mantentzen den salbuespena)

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legeak ez ditu aipatzen Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera Orria eta Eskudiru Fluxuen Egoera Orria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuetan sartu behar diren dokumentuen artean, 127. artikuluan, baina ezartzen du Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren 120. artikuluan ezarritako printzipioak eta arauak aplikatu behar direla.

Indarrean dagoen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrak ezartzen du urteko kontuek hainbat dokumentu izan behar dituztela, eta horien artean lehen aipatutako biak daude. Horrez gain, zehazten du horiek "unitate bat" osatzen dutela, eta ez dela bakoitza modu isolatuan hartu behar, baizik eta dokumentu-sistema integratu bat dela, erakundearen finantza-egoerari eta -jarduerari buruzko ikuspegi desberdinak ematen dituena eta, integratuta, haren irudi fidela ematen duena.

Ildo horretan, esan daiteke dokumentu horietakoren bat falta izateak urteko kontu guztiei eragiten diela. Ildo beretik, ISSAI-ES 200ek ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta eskudiru-fluxuen egoera-orria barne hartzen ditu, "finantza-egoeren multzo oso bat sektore publikoko erakunde batentzat" osatzen duten dokumentuen artean, "aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru baten arabera prestatzen denean".

Kontuan izan behar da Kontuen Auzitegiak, 2022ko ekitaldiko Sektore Publiko Autonomikoaren Txosten Globalean (1.661)[66], gai hauek adierazten dituela 2022ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz:

a) Fiskalizatutako ekitaldian, autonomia erkidego gehienek kontabilitate plan autonomikoak zituzten, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onartutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren kontabilitate esparrura egokituak, eta Asturiasko Printzerria izan zen indarrean jarri zituen azkena, 2021eko urtarrilean. Salbuespen dira Valentziako Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea, ez baitute kontabilitate-plan propiorik onartu eta Estatuko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra aplikatzen baitute. Ildo horretan, Kontuen Ganberak gomendatzen du Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.

Esan gabe doa Ganberak 14 urte daramatzala gomendio bera egiten, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean NFKA) ez duela aintzat hartu.

b) Nafarroa: Kontuen Ganberak, 2022ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorren fiskalizazio txostenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, adierazten du ez dela aurkezten Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera, ez eta Eskudiru Fluxuen Egoera ere.

Hau da, Kontuen Auzitegiak bere txostenean zerbait nabarmendu badu, finantza-egoera horien falta da, nahiz eta Ganberaren salbuespen-paragrafo tradizionalaren amaieran aipatu.

Auditore honen iritzi, eta Kontuen Auzitegiak berriki egindako kontsiderazioa erreferentziatzat hartuta, ezin da normalizatu hutsuneen zerrenda batean nahitaezko bi finantza-egoera ez aurkeztea. Beraz, eta NFKAk 14 urte daramatzanez finantzetako egoera-orri horiek aurkeztu gabe,

[66] Kontu Auzitegiaren Osoko Bilkurak 2025/12/18an onartutako fiskalizazio txostena

arrazoizkotzat jo nuen salbuespen independente bat egiteko aukera, garrantzi handiagoa emateko helburu logikoarekin, eta NFKAk ahalik eta eperik laburrenean erantzun diezaion.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ez zuenez oharrik egin Aldaketei Lotutako Zirriborroari dagokion izapidean, baieztapen hori Parlamentuko lehendakariari egindako Behin-behineko Txostenaren proposamenean sartu nuen.

IV.2 Legeria betetzeari buruzko iritzi salbuespendunaren oinarria

A) Salbuespen hau alde batera utzi da paragrafo honetan:

- NFKAk ez du foru sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateen eraginkortasunaren eta etengabeko gainbegiratzearen kontrolik egiten, NFKAri eta foru sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean eskatutakoaren aurka.

Gai horri dagokionez, ez nago ados hura ezabatzearekin; izan ere, legezkotasuna betetzeko salbuespentzat hartzeko arrazoiak Sektore Publiko Instituzionalaren gaineko eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea apartatuan jasotzen dira oraindik ere, eta lehendakariak ez die garrantzi hori ematen.

Ez-betetze hori ez da salbuespenezkoa eta 2024ko ekitaldiari bakarrik egozteko modukoa, fiskalizazio honetan ikusi baita ez-betetze hori sistematikoa izan dela 2019an lege eskakizun horri buruzko esparru arautzailea onartu zenetik, eta, beraz, duen garrantzia dela eta, salbuespentzat hartu nuen. Izan ere, lehendakariak berak inplizituki jasotzen du bere paragrafoan:

> 11/2019 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, ez dago jasota eraginkortasun-kontrola eta etengabeko gainbegiratzea bermatzeko derrigorrezko kontrolak egin direnik, ez eta gaitutako langileen gaineko erregelamendua garatu denik, eta horrek foru lege horretan eskatutakoa ez betetzea dakar.

Ez-betetze horri egotzi nion garrantzia, sistematikoa izateagatik ez ezik, sektore publiko instituzionalak NFKAren kudeaketan duen garrantziagatik ere izan zen. Nire baieztapena, lehendakariak aipatu ez duena, honako hau zen:

> "Kontuan izan behar da NFKAk enpresa-sektore publikoa duela, urteko kontu indibidualen arabera 502 milioiko ondare garbiarekin eta urteko kontu bateratuen arabera 735 milioirekin, bai eta sozietate eta fundazio publikoak, batez ere sozietate publikoak, erabiltzeak kudeaketa publikoan duen garrantziagatik ere".

B) Eta C) Salbuespen hau alde batera utzi da paragrafo honetan:

- "Belateko tunela bikoizteko" obrari dagokionez, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 2024ko urriaren 10eko 760/2024 Ebazpenak, Eustearen Eguneratze gisa aurkeztutako dokumentazioa onartzen duenak, inplizituki onartzen du eraikuntza proiektuaren aldaketa, horretarako legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita.

- "Belateko tunela bikoizteko" obrari dagokionez, Herri-lanen eta Azpiegituretako zuzendari nagusiaren 2024ko azaroaren 28ko 852/2024 Ebazpenak obra-proiektuaren 1. aldaketa tramitatzeari oniritzia eman zion, eta interes publikoko arrazoiengatik obrek behin-behinean jarraitzea baimendu zuen, eta, horren ondorioz, NFKAk hortik eratorritako gastuak egin zituen.

Ganbera honen iritziz, ebazpen horretan aurreikusitako gastutik, exekuzio materialeko aurrekontuaren 7,54 milioi gutxienez ez datoz bat KPFLren 114.3 artikuluan aurreikusitako kasuekin, aldaketak egin ahal izateko, proposatutakoaren aurka, eta, beraz, ez dagokio NFKAri gastu handiagoa bere gain hartzea.

Bi salbuespen horiek kentzeari dagokionez, aurrerago 7. gehigarriari dagozkion azalpenetan azalduko ditudan azalpenetara jotzen dut. Belateko kontratuaren exekuzioa

VII. Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

A) Paragrafo honetako baieztapen hauek ez dira aipatu nire behin-behineko txostenaren proposamenari dagokionez:

1. galdera:

"Diru-laguntzak zuzenean emateko araubidea salbuespenezko araubide bat da, eta, lehia-printzipioa sakrifikatzen bada ere, ez du inola ere diskriminatzailea izan behar. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan aurreikusitako araubidera etengabe eta gero eta gehiago jotzearen ondorioz, salbuespenezko araubide bat araubide arrunt bihurtzen ari da, hori justifikatzen duen arrazoirik gabe.

Fiskalizatzen ari garen dirulaguntzen onuradunak toki-erakundeak badira ere, azken batean, udalerri bakoitzeko herritarren beharrak dira bete behar direnak, toki-erakundeei emandako laguntzen bidez, erakunde eskudun diren aldetik eta tokiko zerbitzu publikoak behar bezala emateko azpiegitura egokiak behar dituzten aldetik.

Berdintasun-printzipioak diskriminazio-debekua du bere baitan, eta hori eragiten ari da herritarrei modu subsidiarioan eragitean, bizi diren udalerriaren arabera, juridikoki aintzat har daitezkeen arrazoietan oinarritzen ez diren eta azken batean nabarmendu behar ditugun erabakien ondorioz; Konstituzioaren beraren arabera, herritar guztiek tratu bera jaso behar dute.

Beraz, ez da berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzen Parlamentuaren zuzenketen bidez onesten diren dirulaguntza izendunetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikulura joz, baldin eta haren xedea bat badator lehia-araubideko deialdiak dituzten dirulaguntzekin, bai eta Tokiko Inbertsio Planen finantzaketa osagarriaren mekanismoarekin ere, finantzaketa-araubide hori bateraezina baita artikulu horren bidez emandako dirulaguntzekin".

Gai honi buruzko nire baieztapenak 5. gehigarrian (Erregulartasunari buruzko fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuk) ematen nuen tratamenduan oinarritzen ziren, presidenteak Behin Betiko Txostenaren hurrengo atalean osorik aipatu ez dituenak:

5.7 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua	Zuzenketen zenbatekoa	Deialdiaren zenbatekoa
Kirol instalazioetarako toki entitateentzako laguntzak	2.653.966	1.000.000
Toki-erakunde onuradunen kopurua	44	17

2024. deialdiko emaitzak honako hauek dira:

	Eskaera	Onartuak	Ezetsiak kreditu faltagatik
Kirol-instalazioak eraberritzeko deialdia 2024	101	17	72

Deialdia ez zen nahikoa izan, eskaera asko egin zirelako.

Hezkuntza Departamentua	Zuzenketen zenbatekoa	Deialdiaren zenbatekoa
Udal-jabetzako ikastetxeetako obrak	622.600	1.200.000
Toki-erakunde onuradunen kopurua.	14	59

2024. deialdiko emaitzak honako hauek izan ziren:

	Eskaera	Onartuak	Ezetsiak kreditu faltagatik
Udal-jabetzako ikastetxeetako obrak	75	137	59

Deialdia ez zen nahikoa izan, eskaera asko egin zirelako.

–**Lurralde Kohesiorako Departamentua**. Toki erakundeen partaidetza funtsaren kontura finantza daitezkeen inbertsioei dagokienez, 6,39 milioiko 95 zuzenketa izapidetzeko eskaera agertzen da.

Departamentuak emandako informazioaren arabera, zuzenketen % 39 inguru PILekin bateragarriak izango liratekeen jarduerak finantzatzera bideratu dira, eta gainerako % 61 inguru, dirulaguntzen partida izendunen bidez, bateragarriak ez izan arren, toki-erakundeen partaidetza-funtsaren aukerak gainditzen dituen finantzaketa-mota bat gainjartzea eraginez.

Gogoratu behar da Funts hori toki-ogasunak finantzatzeko mekanismo bat dela, araudian berariaz aurreikusita dagoena, udalen eta kontzejuen baliabide propio, parte-hartzaile eta ez-subentzionala dena, eta transferentzia arruntetan eta kapital-transferentzietan banatzen dena. Egiten ari den praktikak desitxuratu eta indargabetu egiten du tokiko finantzaketaren zerga-arloko partaidetza-izaera.

Hurrengo taulan, bi finantzaketa-araubideek ekarri dituzten zenbatekoak jaso ditugu:

	Zuzenketen zenbatekoa	%
Nafarroako zergetan EELL partaidetzarako funtsaren finantzaketa	27.223.327	81
Zuzenketa parlamentarioak	6.392.030	19
	33.615.357	100

- Aztertutako zuzenketen zenbateko osoa honako hau da:

Onartutako eta izapidetutako zuzenketak	Zuzenketen zenbatekoa
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua	2.653.966
Langileriaren eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia	622.600
Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia	6.392.030
Guztira	9.668.596

Zenbateko horretatik, egiaztatu dugu lotura dagoela Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusira bidaltzen diren talde parlamentarioek Parlamentuan onartutako zuzenketen[67] eta jasotzen dituzten udalak gobernatzen dituzten talde politikoen artean; gutxienez % 72 dela zenbatetsi dugu, hau da, 7,07 milioi.

[67] PSN, EH BILDU, GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA

Azken batean, zuzenketen eskaeren aurrean departamentuen egindako izapidetze formalista soilak, eta aritmetika parlamentarioak berak, laguntzak udalerri jakin batzuetara bideratzea eta udalerri horiek beste batzuen kaltetan lehenestea dakar, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen porrota eraginez, bidezko arrazoirik gabe herritarrei eraginez, horiek baitira laguntza publikoen azken onuradunak.

Laguntzen xedea bat etorrita ere, desberdintasun eta diskriminazio hori ezinezkoa da norgehiagoka-araubideko deialdietan gertatzea, funtsezko bi arrazoirengatik:

a) Lehenik eta behin, tokiko erakunde guztiek dutelako laguntzak eskatzeko eskubidea, inolako lurralde-mugarik gabe. Kontrakoa diskriminatzailea litzateke.

b) Bigarrenik, deialdi batean jatorria duten laguntzak ematea eskaeren balorazio eta lehentasun teknikoaren ondorio delako, oinarri arautzaileetan aldez aurretik ezarritako balorazio-irizpide objektibo eta ez-diskriminatzaileen arabera. Toki-erakundeek aurkeztutako dokumentazio teknikoa oinarri arautzaileetan aurreikusitakora egokitzeak, eta erabilgarri dauden aurrekontuek, baldintzatuko dute deialdien onuradunen azken zehaztapena. Hau da, baldintzatzaile eta muga objektiboak erabiltzen dira beti.

SFLren 17.2.a) artikuluan aurreikusitako araubidera etengabe eta gero eta gehiago jotzearen ondorioz, salbuespenezko araubide bat erregimen arrunt bihurtzen ari da, berdintasun-printzipioaren haustura nabarmenarekin, zeinak desberdintasun eta diskriminazio nabarmena sortzen baitu eragindako subjektuekiko (herritarrak), bizi diren udalerriaren arabera, juridikoki aintzat har daitezkeen arrazoietan oinarritzen ez diren erabakien ondorioz. Azken batean, azpimarratu behar dugu, Konstituzioaren beraren arabera, herritar guztiek tratu bera jaso behar dutela.

Beraz, ez dira bermatzen ari Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean eskatzen diren berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, lehia-araubideko deialdiekin bat datozen xedea duten dirulaguntza izendunetan, ez eta Tokiko Inbertsio Planen finantzaketa osagarrirako mekanismoan ere.

Horregatik guztiagatik, “Dirulaguntza izendunak Nafarroako 2019-2022ko Aurrekontu Orokorretan” txostenean egindako gomendioak berresten ditugu. Honako hauek izan ziren:

- Dirulaguntzak zuzenean emateko ohiz kanpoko prozedurara jotzea, Nafarroako Parlamentuak dirulaguntzen partida izendunak onetsiz, soilik benetan lehia-konkurrentziaren bidez bete ezin diren salbuespenezko inguruabarrak badaude.

- Aurrekontu-proiektuari aurkeztutako zuzenketa parlamentarioen negoziazio-prozesuan, finantzaketa handiagoko proposamenak, oro har, norgehiagoka-araubideko laguntza-partidetara bideratzea, onuradun jakin batzuei baliabide partikularrak bideratzea saihestuz, hori justifikatzen duen arrazoirik gabe.

- Parlamentuko zuzenketen negoziazio-prozesuan, Tokiko Inbertsioen Planetik finantza daitezkeen zenbatekoak eta helburuak ez hutsaltzen saiatzea, dirulaguntza izendunak ematetik bereizitako finantzaketa-mekanismo gisa.

Ildo horretan, gomendatzen dugu Tokiko Inbertsioen Planaren zuzkidura handitzea, tokiko finantzaketa modu bidezkoagoan banatzeko, edo, hala badagokio, laguntzen urteko deialdiak onartzea, norgehiagoka-erregimenean, tokiko finantzaketa-sistema horrekin bateragarriak eta koherenteak direnak.

Era berean, fiskalizazio horren gomendio gisa, honako hau erantsi dugu:

Zuzenketa parlamentario eskaerei aurrekontu-izapidea eman behar dieten departamentuek, norgehiagoka-araubideko deialdiak daudela jakinaraztea, talde parlamentarioek eskatutako dirulaguntzaren helburuarekin bat datozenean.

B. Kontuen Ganberak dirulaguntza izendunei eman dien tratamenduari dagokionez, uste dut beharrezkoa dela desadostasun txosten honetan honako hau kontuan hartzea:

a) 2023ko iraileko “Nafarroako Aurrekontu Orokorretako dirulaguntza izendunen txostena (2019-2022)” txostenean, Ganberako Aholkularitza Juridikoak zuzentzat jo zuen nire proposamenean dirulaguntza izendunei ematen zitzaien legezko tratamendua.

Ondorioz, Kontuen Ganberako lehendakariaren behin betiko txostenak honako hau ondorioztatu zuen, besteak beste:

Uste dugu aurrekontu-baliabideak dirulaguntza izendunetara bideratzeak, norgehiagoka-araubidearen bidez xede bererako dirulaguntzak ukatzen diren bitartean, saihestu beharreko tratu-desberdintasuna sortzen duela.

b) 2023ko Kontu Orokorren Txostenean, Aholkularitza Juridikoak, auditore honen proposamenean, ez zuen dirulaguntza izendunen tratamendu legala berdintasun printzipioaren eta izaera diskriminatzailearen aurkakotzat jo, baieztapenak aurreko txostenarekiko antzekoak izan arren.

Hala ere, Lehendakariaren Behin Betiko Txostenak, beste konklusio batzuen artean, honako hauek baieztatzen zituen:

Beraz, oraindik ez dira bermatzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak laguntzaren xedea eta helburua norgehiagoka-erregimeneko deialdietan aurreikusitakoarekin bat datozen dirulaguntza izendun guztietan. Izan ere, dirulaguntzak zuzenean emateko araubidea salbuespenezko araubide bat da, eta, lehia-printzipioa sakrifikatzen bada ere, ez du inola ere diskriminatzailea izan behar.

c) 2024ko Kontu Orokorren Txostenean, Aholkularitza Juridikoak aurreko ekitaldian kontuan hartutakoen antzeko gogoetak egiten ditu, eta, gainera, besteak beste, adierazten du ez dela zuzena berdintasun konstituzionalaren printzipioa dirulaguntzen eremura ekartzea, eta Ganberak ez duela sartu behar legegilearen eta exekutiboaren eskumenean aurrekontuei buruzko foru legea izapidetzean, ezta haren edukia kritikatzean ere. Lehendakariak bere egin zituen gogoeta horiek, eta lehendakariak irizpide hori jakinarazi zidan, nire txosten-proposamenarekiko desadostasuna adieraziz.

Horri dagokionez, diru-laguntza izendunak onartzeko prozesuari buruz egindako berrikuspena aurreko ekitaldietan egindako bera izan da, eta auditore honek aurreko proposamenetan egindako baieztapen berak izan dira. Proposamen horiek lehendakariak onartu zituen aurreko txostenetan, eta txosten honetan proposamen horietatik aldendu da.

Auditore honek berretsi egiten du lehia-erregimeneko deialdietan helburu bera duten diru-laguntza izendunei buruzko iritzia, bai eta Toki Ogasunen Funtsaren finantzaketa-araubide espezifikoarekin gainjartzen direnei buruzkoa ere: ez dira errespetatzen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, eta azkenean herritarrengan duen eragina, bizi diren udalerriaren arabera juridikoki aintzat hartu ezin diren arrazoiengatik; azken egoera hori berria da fiskalizazio honetan.

Ondorioz, eta NFKAko ezein departamentuk Aldaketei Lotutako Zirriborroari dagokion izapidean inolako oharrik egin ez zuenez, Legebiltzarreko lehendakariari egindako Behin-behineko Txostenaren proposamenean egindako analisia gehitu nuen.

2. galdera ezabatu da

• Beheko taulan jaso dugu Kontingentzia Funtserako zuzkidura horrek 2019-2024 bitartean nolako bilakaera izan duen bai aurrekontuei buruzko foru lege proiektuan, bai geroago, foru legearen onespenean:

(milakotan)

Kontingentzia funtsa	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Aurrekontuei buruzko foru lege proiektuko hasierako zuzkidura	15.123	3.938	21.049	20.809	19.544	32.333
Aurrekontuei buruzko foru legeko amaierako zuzkidura	4.564	3.938	10.563	5.430	4.558	17.035
Aldea	10.559	0	10.486	15.379	14.986	15.298
Hasierako zuzkiduraren % aurrekontuei buruzko foru lege proiektuaren aldean	% 0,4	% 0,1	% 0,4	% 0,4	% 0,3	% 0,5
Amaierako zuzkiduraren % aurrekontuei buruzko foru legearen aldean	% 0,1	% 0,1	% 0,2	% 0,1	% 0,08	% 0,3

Agertu diren aldeak talde parlamentarioek aurrekontuen proiektuei aurkeztu dizkieten zuzenketak eztabaidatzeko prozesuan gertatu dira, foru legea onetsi aurreko urratsean.

Aurrekontu orokorrei buruzko foru lege-proiektuarekin batera doan dokumentazioaren arabera, Kontingentzia Funtsaren zuzkiduraren zenbatespenak balizko kontingentziak aztertuz egiten dira, eta betiere zuhurtasun-irizpidearekin, unean uneko ziurgabetasuna dela eta.

Kontingentzia Funtsaren helburua aurrekontuetan hasiera batean aurreikusi gabeko beharrizanetarako kredituak hornitzea denez[68], ez da arrazoizkoa aurrekontuei buruzko foru lege-proiektua eztabaidatzeko prozesuan munta hori gutxitzea zuzenketak finantzatzeko, haren lege-aurreikuspena hutsaltzen ariko bailitzateke.

Aholkularitza Juridikoak ez du egokitzat jotzen gai horri buruzko tratamendua, eta, nolanahi ere, bere ustez, baieztapen hau ez da zuzena: "... legezko aurreikuspena indargabetzen ariko litzatekeelako".

Ezabatu den paragrafoa guztiz bat dator nire proposamenarekin (baina datuak 2024ko ekitaldira eguneratuta), 2023ko Kontu Orokorren Txostenean jasotzen baitzen. Lehendakariak aurreko ekitaldian behin betiko txostenean onartu zuen "... bere lege-aurreikuspena indargabetzen ari zelako" baieztapena. Aholkularitza Juridikoak ez zuen gai horri buruzko oharrik egin 2023ko ekitaldiari dagokion irizpenean.

Amaitzeko, Ganbera honek Kontingentzia Funtsari emandako tratamenduari buruz, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak ez zion inolako oharrik edo alegaziorik aurkeztu aurreko ekitaldiko txostenari. Ekitaldi honetan, eta zuzendaritza nagusi horrek inolako oharrik egin ez duenez, Aldaketei Lotutako Zirriborroari dagokion izapidean, baieztapen hori sartu nuen Ganberako lehendakariari egindako behin-behineko txostenaren proposamenean.

[68]Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 31. artikulua.

5. gehigarria. Erregulartasunari buruzko fiskalizazioko oharrak eta aurkitutako beste gorabehera batzuk

Erakunde instrumentalei egindako enkarguen araubidea

Lehendakariaren baieztapenari buruz:

Informazio hori CPENek kontratatutako auditoretza-enpresak berrikusi du, eta egiaztatu da erakunde instrumental izateko baldintzak betetzen dituztela aitorpen hori duten sozietate publikoek.

Baieztapen hori egiazkoa izan arren, CPENek gai horri buruz Aldaketei Lotutako Zirriborroaren prozedura-izapidean egin zituen oharretan adierazten zitzaigun berrikuspena honako hauetan oinarrituta egiten ari dela: "... 2016an dagozkion erabakiak hartzeko oinarri izan ziren kalkulu-irizpide eta -parametroak, 23/2014 Foru Dekretuaren 2.2 b) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta...". Auditore honek ez du gai hori eztabaidatzen.

Hala ere, kontuan hartu behar da egitate bat: enkargua egiten duen erakundearentzat bere jardueraren funtsezko zatia gutxienez ehuneko 80koa izatearen baldintza ez da gure ordenamendura lekualdatzen 2017ra arte Estatuko Administrazio Orokorrean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2/2017 Legea onartuta, eta gure foru administrazioaren esparruan, 2018ra arte, orduan onetsi baitzen Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea.

Lehendakariak aipatu ez dituen nire baieztapenetan adierazten nuenez, Estatuko Abokatutzak eta Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiak irizpide batzuk ezarri zituzten 2019an eta 2023an jardueraren ehuneko hori kalkulatzeko, eta Zinpeko Kontu Azterlarien Institutuak irizpide horiek hartu zituen auditore pribatuek behar bezala interpretatzeko, sozietate publikoen urteko kontuen auditoretzetan jardueraren betekizuna betetzen dela egiaztatzeko. Irizpide horiekin bat etorriz, nire ustez, eta CPENek aintzat hartutako jarduera-irizpideen arabera enpresa pribatuen berrikuspena zalantzan jarri gabe, baieztatu dut sozietate batzuetan zalantzak daudela erakunde instrumental gisa jarraitzeari buruz, jardueraren baldintza benetan betetzeari dagokionez.

Hori dela eta, gai horri dagokionez (erakunde instrumentalei buruzko Foru Dekretu berri bat onartzeari buruz Behin Betiko Txostenaren 79. orrialdean egiten den gomendioaz gain), alderdi horiek erregelamendu-garapen berrian sartzeko beharra azpimarratzen zuen, sozietate publikoen segurtasun juridikoagatik. Baieztapen hori ez da Behin Betiko Txostenean agertzen, eta beharrezkotzat jotzen dut Ganberak NFKAri eta CPENi jakinarazi beharreko inguruabarrak hobeto identifikatzeko.

5.13. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak

Sozietate publikoen auditoretzak

Lehendakariak ez du egin nire behin-behineko txostenaren proposamenean egiten nuen baieztapen hau:

Hala ere, Sodenako 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan Parquenasa Sari emandako kredituek agertzen jarraitzen dute, eta ez da kontabilizatu haien balio-zuzenketa; beraz, uste dugu kontu horietan ageri den ondare-garbia gainbaloratuta egonen litzatekeela, gutxienez 22 milioitan.

Ezabatze hori lehendakariak egin du, Behin Betiko Txostenean jasota dagoen bezala, CPENek horri buruz aurkeztu zuen alegazioa onartu delako. Auditore hau ez dator bat hura ezabatzearekin, arrazoi hauengatik:

a) Sodenak Parquenasari emandako kredituen narriaduraren kontabilitate-tratamenduari buruz CPENek txosten honi alegatzen dizkion arrazoi berberak planteatu ziren alegazio gisa Ganberaren txosten hauei dagokienez:

   - Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak (2001-2023)
   - Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio txostena.

b) Bi txostenetan, lehendakariak ez zituen onartu Parquenasak kontabilizatzen zuen aktiboen narriadurari buruzko kontabilitate-tratamenduari buruzko alegazioak (gaur egun egiten diren irizpide berarekin bat datozenak), ez eta Sodenak Parquenasari emandako kredituen kontabilitate-tratamendua ere. Horiek urteko kontuetan jasotzen ziren, bi kasuetan kontabilitate-esparru desegokia erabiltzen ari baitzen. Zehazki, 2023ko Kontuen Txostenean, lehendakariak hau adierazi zuen:

   - Parquenasari emandako kredituei buruzko seigarren alegazioari dagokionez, berriro diogu, CPENek adierazten duen txostenean adierazi genuen bezala, kreditu horiek, ganbera honen iritziz, hondatu egin beharko liratekeela. Testuinguru horretan, berriro diogu kreditu horien kontabilitate-balorazioa Sodenako urteko kontuetan kontabilitate-esparru desegokian oinarritzen dela.

Ondorioz, auditore honek berretsi egiten du lehendakariak aipatu ez duen baieztapena, eta ez dator bat txostenaren atalean identifikatzen den irizpide-aldaketarekin: **Kontuen Ganberaren erantzuna behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei.**

6. gehigarria – SOZIETATE PUBLIKOEN ANALISIA

Nafarroako Inbertsio Institutua (INI)

Lehendakariak onartutako Behin Betiko Txostenean, Lehendakariari egindako Behin-behineko Txostenaren proposamenean INIri buruz egindako azterketa eta gomendio guztiak alde batera utzi dira. Aldaketei Lotutako Zirriborroaren prozedura izapidean, CPENek ohar jakin batzuk egin zituen 2026ko urtarrilaren 19ko txostenaren bidez. INIri egindakoei dagokienez, eta nire baieztapen guztiak erabat ezabatu direnez, uste dut lehendakariak bere egiten eta onartzen dituela INIri buruz planteatutako arrazoibideak, are gehiago X. paragrafoan (Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena) inolako aipamenik egiten ez denean.

Aipatutako sozietate publikoari buruzko nire baieztapen guztiak ezabatzeari dagokionez, are gehiago INIk 2024an garatutako jarduerak edo INIri buruzkoak daudenean, ez nago ados honekin:

a) 2024ko urtarrilean, CPENeko kontseilari ordezkariak jarraibide bat eman zuen INIk eta SODENAk garatu behar zituzten jardueren irismenari buruz. Hala ere, jarraibide hori ez da nahikoa dagoen bikoiztasuna zuzentzeko, hortik ondorioztatzen baita INIren jarduera guztiak SODENAk egin ditzakeela.

Horregatik, nire ustez, neurriak ez du inondik inora betetzen Ganbera honek 2022ko eta 2023ko ekitaldietako Kontu Txostenetan emandako gomendioa. Ondorioz, nire behin-behineko txostenaren proposamenean, honako hau zen nire baieztapena:

“Gure ustez, instrukzio hori ez da nahikoa bi sozietateen arteko jardueren bikoiztasuna saihesteko; izan ere, ez ditu helburu sozialen gainjartzeak ezabatzen, eta, beraz, biek egin ditzakete izaera bereko eta lurralde beraren gaineko jarduerak. Beraz, ez du betetzen Ganbera honek egindako gomendioa ”.

b) “INIk 2024ko martxoaren 27an argitaratu zuen “Diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratazioa, Nafarroako hazkunde ekonomikoa indartzeko” zerbitzu-kontratuaren lizitazioa, 720.000 euroko balio zenbatetsiarekin. Horrelako azterlanak egitea SODENAri esleitutako helburu sozialaren eta funtzioen parte da, eta horrek agerian uzten du, berriro ere, bi sozietate publikoen arteko benetako bereizketarik eza.

Kontuan izan behar da, nire behin-behineko txostenaren proposamenean, baieztapen horiek guztiz koherenteak zirela Kontuen Ganberako lehendakariak aurreko ekitaldiko kontuen txostenean ateratako konklusioekin. Konklusio horiek lehendakariak berak berretsi zituen CPENek egindako alegazioei emandako erantzunean, eta txosten horren parte dira:

- INI eta Sodena sozietate publikoei buruzko laugarren eta bosgarren alegazioei dagokienez, Ganbera honek berretsi egiten du bi sozietate publikoen helburu soziala bikoiztuta dagoela, eta egoera hori saihestu egin beharko litzatekeela.

c) 2024an, INIk bere lehen jarduera egin zuen: zortzi milioi euroko kapital ekarpena egin zion egoitza Tuteran duen biltegiratze industrialeko egiturak eta sistemak fabrikatzen dituen enpresa bati. SODENAk, bere helburu soziala dela eta, eratu zenetik egiten ditu horrelako eragiketak, eta, beraz, hura ere egin zezakeen.

